# Hezkuntza kritiko emantzipatzailea

## Diagnostikoa Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) (2011-2015)




Amaia del Río Martínez eta Gema Celorio Díaz

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

hegoa
INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTEKO LANKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA

# Hezkuntza kritiko emantzipatzailea

## Diagnostikoa Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) (2011-2015)




Amaia del Río Martínez eta Gema Celorio Díaz

Argitalpen honek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (GLEA) laguntza izan du, *Hariak ehunduz. Unibertsitatean hezkuntza kritiko eta emantzipatzailea pixkanaka gehitzeko estrategia, tresnak eta prestakuntza. Topaketa gizarteko eta hezkuntzako eragileekin (2015)* proiektuaren markoan. Testu honen edukia Hegoaren ardura osoa da eta ez du zertan GLEAren iritziarekin bat etorri.

Argitaratzaileak:

Zubiria Etxea. UPV/EHU
Lehendakari Agirre etorb., 83 • 48015 Bilbo
Tel.: 94 601 70 91 • Faxa: 94 601 70 40 • hegoa@ehu.eus

Arabako Campuseko Liburutegia. UPV/EHU
Nieves Cano, 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz
Tel. • Faxa: 945 01 42 87 • gema_celorio@ehu.eus
www.hegoa.ehu.eus

Babesleak:

Egileak: Amaia del Río Martínez eta Gema Celorio Díaz
Diseinatzailea eta Maketatzailea: Marra servicios publicitarios
Inprimatzailea: Lankopi, S.A.L.
Itzultzailea: Iñigo Gallastegi Zorrilla
ISBN: 878-84-16257-32-4
Lege gordailua: BI-1207-2018

Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa

Dokumentu honek Creative Commons lizentzia du. Baimenduta dago lan hau askatasunez kopiatzea, banatzea eta publikoki komunikatzea baldin eta egilea aipatzen bada eta helburu komertzialetarako erabiltzen ez bada. Ezin da lan hau aldatu edo eraldatu ezta, lan honetan oinarrituz, beste lan bat eratorri. Lizentzia osoa, hemen: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/>.

# Aurkibide orokorra


## Aurkezpena 7

## I. Atala. Hezkuntza emantzipatzailearen kontzeptualizazioa 11

**1. Marko teorikoa 13**

1.1. Mundu mailako krisi sistemikoko testuinguru bat 13

1.2. Unibertsitate publikoaren krisia eta eraldaketa 15

1.3. Hezkuntza kritiko emantzipatzailea, aldaketa estrukturalerako agendaren ezinbesteko oinarria 17

1.3.1. Hezkuntza ikuspegi horren printzipioak 18

1.3.2. Hezkuntza dimentsioak 20

1.3.3. Esku hartzeko estrategiak. Unibertsitatearen praktikak, gabeziak eta erronkak 21

1.4. Hezkuntza Emantzipatzailearen proposamena hezkuntzaren teoria kritikoen eremuan 22

1.5. Hezkuntza Emantzipatzaile baterako ezagutza... baita Unibertsitatean ere 24

## II. Atala. Azterketa instituzionala eta eragileen diskurtsoaren azterketa 27

**1. Azterketa instituzionala 29**

1.1. Unibertsitate politikaren azterketa 29

1.1.1. Unibertsitateen jokabide kodea Garapenerako lankidetzaren arloan 29

1.1.2. Eusko Jaurlaritzaren 2011-2014ko Unibertsitate Plana 30

1.1.3. UPV/EHUko estatutuak 31

1.1.4. IKD hezkuntza eredua 32

1.1.5. UPV/EHUko Plan Estrategikoa 2012-2017 32

1.1.6. I UPV/EHUko emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. Plana (2010-2013) eta UPV/EHUko emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. Plana (2014-2017) 33

1.1.7. UPV/EHUko Ikasleen I. Partaidetza-Plana 34

1.1.8. UPV/EHUko II. Inklusio Plana 35

1.2. Egitura instituzionalaren azterketa 35

1.2.1. Garapenerako Lankidetza Kontseilua 36

1.2.2. Ikasle Kontseilua 37

1.2.3. Berdintasunerako Batzordea 37

1.2.4. Lankidetzako instituzioak eta erakundeak 38

1.2.4.1. Hegoa, Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua 38

1.2.4.2. UPV/EHUko %0,7 Elkartasun Fondoa Elkartea 39

1.2.4.3. Ingeniería Sin Fronteras-Mugarik Gabeko Ingeniaritza (GGKE) 39

1.2.5. Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetza 40

1.2.5.1. Berdintasunerako Zuzendaritza 41

1.2.5.2. Ikasleen Zuzendaritza 41

1.2.5.3. Gizarte Erantzukizuneko Zuzendaritza 41

1.2.6. Hedakuntzaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetza 43

1.2.6.1. EhuGune 44

1.2.6.2. Erakunde arteko katedrak 44

1.2.7. Ikerketa arloko Errektoreordetza 45

1.2.7.1. Unibertsitate institutuak 46

1.2.7.2. Eusko Jaurlaritzako Ikerketa Talde finkatuak 46

1.2.7.3. Beste ikerketa talde batzuk 49

1.2.8. Graduondoko Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko Errektoreordetza 53

1.2.8.1. Graduko Ikasketen Zerbitzua 53

1.2.8.2. Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzua (SAE/HELAZ) 53

1.2.9. Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko erektoreordetza 54

1.2.9.1. Nazioarteko Harremanen Zuzendaritza 55

1.2.9.2. Graduondoko Ikasketen Zerbitzua 56

1.3. Ardatz estrategikoen azterketa 56

1.3.1. Prestakuntza eta unibertsitate irakaskuntza 56

1.3.1.1. Graduak, Ikasketa planak eta Irakasgaiak 56

1.3.1.2. Doktorego programak, Masterrak eta Berezko Tituluak 60

1.3.1.3. Praktika programak, Gradu Amaierako Lanak eta Ikastaro monografikoak 66

1.3.1.4. Irakasleen eta laguntzaileen etengabeko prestakuntza 71

1.3.2. Ikerketa 72

1.3.2.1. Parte Hartuz taldearen Ikerketa Proiektuak 72

1.3.2.2. Nazioarteko Ikasketen Katedrak sustatutako ikerketak 74

1.3.2.3. Hegoa Institutuaren Ikerketa Proiektuak 75

1.3.2.4. Doktore tesiak 77

1.3.3. Gizarte konpromisoa 78
1.3.3.1. Unibertsitate egiturek sustatutako diru-laguntzetarako deialdiak 78
1.3.3.2. Sentsibilizazio jarduerak eta eragile desberdinek sustatutako beste zenbait ekimen 81
1.3.4. Ardatz estrategikoei lotutako ekimenak, hezkuntza kritikoaren ikuspegian interesa izateagatik nabarmentzen ditugunak 83

**2. Elkarrizketen azterketa** **87**

2.1. Globalizazio neoliberalak Unibertsitate publikoan duen inpaktua eta Hezkuntza Emantzipatzaile baterantz ibiltzeko aukerak 87
2.2. Goi mailako Hezkuntzaren Europar Esparruaren ezarpena, Unibertsitateak gizartea eraldatzeko prozesuetan duen rolaren inguruan eztabaidatzeko aitzakia 89
2.3. Hurbilketa desberdinetatik Unibertsitatean eragiteko estrategiak 93
2.4. Elkarrizketaren bitartez alternatibak sortu eta beste hezkuntza eta gizarte eragile batzuekin lan egin. 94

## III. Atala. Ikerketaren azken gogoetak **99**

**1. Ondorioak** **101**

1.1. Unibertsitate politikari buruz 101
1.2. Unibertsitatearen egiturari buruz 103
1.3. Ardatz estrategikoei buruz 104

## Bibliografia **107**

## Eranskinak **113**

## Taulen aurkibidea

1. taula. Aurreko ikerketen oinarrian dauden ikuspegiak eta ideiak 9
2. taula. Eusko Jaurlaritzako Ikerketa Talde finkatuak 47
3. taula. IKD eredua sustatzeko prestakuntza eta hezkuntza berrikuntza programak 54
4. taula. Garapenerako Hezkuntzaren eta Hezkuntza Emantzipatzailearen ikuspegiarekin harremana duten irakasgaiak (2015-2016ko ikasturtea) 57
5. taula. Garapenerako Hezkuntzaren eta Hezkuntza Emantzipatzailearen ikuspegiarekin harremana duten graduen zeharkako gaitasunak (2015-16 ikasturtea) 58
6. taula. Garapenerako Hezkuntzaren eta Hezkuntza Emantzipatzailearen zeharkako alderdiak lantzen dituzten doktorego programak (2015-2016 ikasturtea) 61

7. taula. Garapenerako Hezkuntzaren eta Hezkuntza Emantzipatzailearen zeharkako alderdiak lantzen dituzten Unibertsitate Master Ofizialak (2015-2016 ikasturtea) 63

8. taula. Garapenerako Hezkuntzaren eta Hezkuntza Emantzipatzailearen zeharkako alderdiak lantzen dituzten berezko tituluak (2015-2016 ikasturtea) 65

9. taula. Graduondoko eskaintzaren laburpena 66

10. taula. Garapenerako Lankidetzaren inguruko unibertsitate-praktikak edo Gradu amaierako lanak programa 67

11. taula. Garapenerako Lankidetzaren inguruko unibertsitate-praktikak edo Gradu amaierako lanak programa garatze aldera GGKEekin egindako hitzarmenak 68

12. taula. Ikastaro monografikoak 69

13. taula. Unibertsitateko irakasleen irakas-prestakuntza (UIPRE) programaren ikastaroak 71

14. taula. Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuak 71

15. taula. Parte Hartuz taldearen ikerketak 73

16. taula. Nazioarteko Ikasketen Katedraren ikerketak 75

17. taula. Hegoa Institutuaren ikerketak 75

18. taula. Doktore tesien zerrenda 77

## Eranskinen aurkibidea

1. eranskina. Nazioarteko Ikasketen Katedraren prestakuntza jarduerak 115

2. eranskina. Garapen iraunkorrari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCO Katedrak sustatutako proiektuak (Garapenerako Lankidetza Bulegoaren laguntzaz) 116

3. eranskina. Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedraren proiektuak 117

4. eranskina. Unibertsitate egiturek sustatutako diru-laguntzetarako deialdiak 118

5. eranskina. Elkarrizketaren gidoia eta elkarrizketatutako egitura eta kolektiboen zerrenda 124

6. eranskina. UPV/EHU eta gizarte eragileen arteko akordioak 125

7. eranskina. Zenbait eragilek sustatutako ekimenak eta esparruak 126

8. eranskina. Elkarrizketaren gidoia eta elkarrizketatutako egitura eta kolektiboen zerrenda 127

## Aurkezpena

Hegoa Institutuko Hezkuntza taldearen ekimen hau "*Hariak ehunduz Unibertsitatean hezkuntza kritiko eta emantzipatzailea pixkanaka gehitzeko estrategia, tresnak eta prestakuntza. Topaketa gizarteko eta hezkuntzako eragileekin*"[1] proiektuan kokatzen da. Ekimen hori, bada, unibertsitatera zuzenduta dago eta, Hezkuntza Emantzipatzailearen (HE) inguruan, Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) eta beste zenbait hezkuntza eta gizarte eragileren arteko harremana sendotzea du helburu[2].

Hala, globalizazio neoliberalak martxan jarritako politika eta praktiken ondorioz, mundu mailako krisi bat dugu eta proiektu hori testuinguru horretan kokatzen da. Krisiak gure gizarteak zeharkatzen dituen heinean, ondorioak ditu Hezkuntzan ere. Izan ere, eremu ekonomikoaz harago doa eta gizarte ekintza osoan du eragina.

Testuinguru horretan, beraz, Hezkuntzaren eta, bereziki, Goi mailako Hezkuntzaren izaeraren inguruan eztabaidatu behar dugu. Eztabaida horren bitartez hezkuntza ondasun publikotzat edo merkatu zerbitzutzat harten duen dikotomiari erantzun beharko diogu. Aspaldi honetan, bada, Hezkuntza merkantilizatzen duen joera bat nagusitu da. Zentzu horretan, Goi mailako Hezkuntzaren Europar Esparruaren (Bolonia plana) garapenak eta Kalitate eta Ziurtapenaren Ebaluazio Agentzia Nazionalak (ANECA) markatutako ildoek kalitatean eta lehiakortasunean oinarritzen dira. Hori, alabaina, ez dator bat ezagutza kritikoa sortzeko eta etika profesionala garatzeko prozesuekin, merkantilizazio prozesuekin baizik. Izan ere, merkantilizazio prozesu horietan, efizientzia eta errentagarritasuna dira funtsezko irizpideak.

Gauzak horrela, Unibertsitatea emantzipazioa helburu duten bestelako hezkuntza ereduetara zabaldu behar dela uste dugu. Bestelako eredu horiek, pentsamendu kritikoa sortzeko eta gizarteak aurrean dituen arazoei erantzuteko gai izan beharko dute. Helburu horrekin, beraz, Garapenerako Hezkuntzaren (GH) eta Hezkuntza Emantzipatzailearen arloan, UPV/EHUren "argazki" bat eskainiko digun diagnostikoa egiteko prozesuari ekin diogu.

Harritzen gaitu interes arlo honetan ikerketarik ez egotea. Bi hauek dira salbuespen bakarrak: Fundaciò Autònoma Solidària-k 2015ean argitaratutako *"Diagnosis del estado actual de implementación, posibilidades y estrategias en la Educación formal en las Universidades públicas catalanas. Impulsando la educación crítica y comprometida en los estudios de grado"*[3] eta Hegoako Hezkuntza taldeko Juan José Celorio buru izan duen ikerketa -UPV/EHUn zentratuta baina Espainiako estatuko Unibertsitateetan Garapenerako Hezkuntzaren egoera orokorra aztertzen duena-[4], Hortaz, hutsune hori betetzeko asmoz, 2011-2015 urteetan GH eta HE arloan egindakoaren lagin bat hartu nahi dugu. Badakigu ezin ditugula egindako ekimen guztiak bildu, ondorioz, UPV/EHU eredu hartuta, instituzio horren patroia eta joerak aurkeztuko eta aztertuko ditugu. Izan ere, UPV/EHUren ikuspegiak honako helburu hauek ditu: gizon eta emakumeen artean benetako berdintasuna lortzeko neurriak garatzea eta gizarte eta kultura

1 Proiektu horrek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntza izan du (2015/2017).

2 I kerketa honen marko teorikoan proposamen hori zertan den azaltzen dugu. Era berean, Hegoaren web orrialdean ere kontsultatzeko aukera dago:<http://www.hegoa.ehu.es/es/educacion>.

3 Hemen eskuragarri: <http://www.ocud.es/es/files/doc559/resumen-diagnosis-eduniversidad-cast.pdf>.

4 Diagnostikoaren ondorioak irakurtzeko, ikus 2011ko azaroaren 24 eta 25ean ospatutako Garapenerako Hezkuntzaren inguruko jardunaldien ondoren Hegoak argitaratutako dokumentuko *"Garapenerako Hezkuntzaren diagnostikoa. Argi-ilunez betetako ikuspegia"* kapitulua. <http://publicaciones.hegoa.ehu.eus/uploads/pdfs/222/GH_jardunaldiak.pdf?1488539766>.

desberdintasunak murriztea, gizarteak ekitatez, jasangarritasunez eta giza eskubideekin bat eginez aurrera egin dezaten.

Beraz, *Garapenerako Hezkuntza Unibertsitatean izeneko I. Jardunaldietan* aurkeztutako Celorioren ikerketak (2011) 2006-2011 denboraldia aztertzen zuenez, oraingo ikerketa hau 2011-2015 denboraldian zentratuko dugu. Izan ere, ordutik hona, ikuspegi horren diskurtsoan eta praktiketan bilakaerarik izan den egiaztatu nahi dugu. Era berean, ikuspegi horren gaur egungo ezaugarriak eta elementuak identifikatu nahi ditugu. Ikus daitekeenez, lan honen eta Celoriok egindakoaren helburuak bat datoz elementu askotan.

Hala ere, aurreko ikerketak Garapenerako Hezkuntzan ardazten zen. Gurean, ordea, Hezkuntza Emantzipatzailearen ekarpenak ere biltzen ditugu; izan ere, Celoriok berak esan bezala, "Garapenerako Hezkuntzatik sortu ez diren baina Garapenerako Hezkuntzaren ikuspegi kritiko, zabal, berritzaile eta eraldatzailearekin bat datozen ikuspegi, ekimen eta diskurtso interesgarriak" aipatu nahi ditugu[5]. Hori da, hain zuzen ere, marko teorikoaren atalean ageri den ikuspegia.

Hautaketa hau ikuspegi zehatz batean oinarritzen da eta horren bitartez honako hau aztertu nahi dugu: aztertutako ekimenek zer neurritan hurbiltzen edo aldentzen dute Unibertsitatea ikuspegi horretatik. Nolanahi ere, normala denez, instituzio hori heterogeneoa da eta ekintza eta eragile desberdinak biltzen ditu.

Hortaz, ikerketa honetan Garapenerako Hezkuntza terminoa izen hori berariaz erabiltzen duten praktikak izendatzeko erabiliko dugu. Aitzitik, Unibertsitatea bidezko eta berdintasunezko mundu baten eraikuntzarekin konprometitzen den instituzio bilakatzeko lan egiten duten praktikei izendatzeko Hezkuntza kritiko eta emantzipatzaile eta Hezkuntza eraldatzaile terminoak aukeratu ditugu.

Bi dokumentu hauek lan honen aurrekaritzat har daitezke eta interesgarriak dira gaur egungo egoera ulertzeko: alde batetik, UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Kontseiluak sustatutako eta Garapenerako Lankidetza Bulegoak egindako testua[6], eta bestetik, lehen aipatutako Hegoako Hezkuntza taldearen ikerketa.

Hurrengo taulan, testu bi horien zenbait gogoeta biltzen dugu. Testu biak garai berekoak dira eta, ondorioz, unibertsitate sisteman hezkuntzaren ikuspegiaren zentzuaren eta esanahiaren inguruan dauden desberdintasunak argi erakusten dituzte. Urteak joan urteak etorri, ikuspegi biak aurkitzen ditugu UPV/EHUn. Bietako batek sostengu handiagoa lortu du eta ez du arazorik sortzen instituzioaren joera merkantilizatzaileekin; bestea, ordea, marjinala da eta hori bultzatzen duten eragileek unibertsitateko politikan eragiteko ahalmen txikia dute.

5 "Diagnóstico: La Educación para el Desarrollo en la UPV/EHU. Un estudio de caso sobre la situación de la ED en el sistema universitario del Estado español" (Hegoa, 2011).

6 Garapenerako Hezkuntza Bulegoa (2011): *Garapenerako Lankidetza UPV/EHUn. 0 diagnostikoa*. Bilbo, UPV/EHU. Hemen: <https://www.ehu.eus/documents/3044109/3074929/Diagnostico0_eu.pdf>.

| 1. taula. Aurreko ikerketen oinarrian dauden ikuspegiak eta ideiak | |
|---|---|
| *Garapenerako Lankidetza UPV/EHUn. 0 diagnostikoa.* (2011) | *Garapenerako Hezkuntzak UPV/EHUn duen egoeraren inguruko diagnostikoa.* (2011) |
| Garapenerako Unibertsitate Lankidetzaren diagnostikoa, UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Bulegoak egina. | Garapenerako Hezkuntzaren egoeraren diagnostikoa, Hegoako Hezkuntza taldeak egina. |
| Lan honek Koldo Uncetak[7] 2007an zuzendutako lanaren egitura bera du. Horren marko teorikoak giza garapenaren/garapen iraunkorraren ikuspegiak txertatzen ditu. Unibertsitate hezkuntzaren ikuspegi murriztaile bat du, "giza baliabideen" trebakuntza kualifikatuaren bitartez gizarteen garapena handitzeko gaitasunari lotua. GHren ikuspegi despolitizatua du. Ez du berezko diskurtso bat Hezkuntzari buruz. | Erreferentziazko marko teorikoa 5. belaunaldiko Garapenerako Hezkuntza da baina kontuan hartzen ditu garapen eredua zalantzan jartzen dituzten beste hurbilketa teoriko eta praktikoak ere. |
| Garapenerako Hezkuntza terminoa Sentsibilizazioari lotuta agertzen da etengabe. Unibertsitateko heziketa, irakaskuntza eta ikerketa jarduerak ez dira GH estrategiatzat hartzen eta ez dira ikuspegi horren arabera berrikusten. | Esperientziak biltzen eta aztertzen ditu GHren lau estrategia erabakitzaileak kontuan hartuz: sentsibilizazioa, prestakuntza, ikerketa eta gizarte mobilizazioa/eragin politikoa. |
| Garapenerako Hezkuntza Garapenerako Lankidetzaren menpe dago, hau da, Lankidetzari laguntzeko tresnatzat jotzen du. | Garapenerako Hezkuntza harremanean dago Lankidetzarekin. Hala ere, GH globalizazio neoliberalarekin, garapen eredu hegemonikoarekin eta hezkuntzarekin ere kritikoak diren esperientziekin ere harremanean dago. |
| Garapenerako Unibertsitate Lankidetzako elkarteak dira kontuan hartzen dituen gizarte eragile bakarrak. | Garapenerako Hezkuntza akademia baino zabalagoa den eremu batean kokatzen du. Hala, horren jarduera beste hainbat gizarte eragile eraldatzaileren jarduerarekin antolatzen du. |

Iturria: Egileak.

Ikerketa honetarako honako helburu hauek zehaztu ditugu:

- UPV/EHUn Garapenerako Hezkuntza/Hezkuntza Emantzipatzailearen ikuspegiak duen zentzua eta garrantzia karakterizatzea.
- 2011-2015 urteetan, UPV/EHUn izan diren GH/HE ekimenen lagin bat (guztiak hartzea ez da posible) deskribatzea eta aztertzea.
- Unibertsitate komunitateko eragile desberdinen iritziak esploratzea eta ezagutzea. Unibertsitatean HEren proposamena sustatzeari dagokionez, problematikak, tentsioak eta aukerak identifikatzea.

7 Unceta, Koldo (2007): La Cooperación al Desarrollo en las Universidades Españolas. Hemen eskuragarri: <http://www.aecid.es/galerias/cooperacion/Cultural/descargas/03-Coop.Universidades.pdf>.

Lan honetan erabilitako metodologiak ondoko elementu hauek hartzen ditu:

1. Hezkuntza Emantzipatzailearen inguruko Marko teorikoa.

2. Analisi instituzionala. Informazio iturri ez zuzenen azterketa dokumentala (gehienbat, UPV/EHUren web orrialdeak eskaintzen dituen datuak, memoriak eta jarduera txostenak; eta Unibertsitateak unibertsitate lankidetzari buruz dituen dokumentu ofizial eta normatiboak eta beste departamentuetako eta UPV/EHUz kanpoko baina instituzio horretan eragin zuzena duten beste erakundeetako testuak).

3. GH/HEren esparruan unibertsitatearen betekizunari buruzko informazio garrantzitsua eman diguten eragile desberdinen diskurtsoa aztertzea. Hori pertsona desberdinei elkarrizketa sakonak eginez landuko da. Horretarako UPV/EHUko unibertsitate komunitatean giltzarri diren pertsonak eta lankidetza kritikoarekin eta nazioarteko elkartasunarekin erlazioa duten pertsonak aukeratuko ditugu[8].

4. Eztabaidarako zenbait ondorio, Unibertsitate eraldatzaile eta emantzipatzaile bat lortzeko konpromisoan aurrera jarraitzeko.

Elkarrizketatutako pertsona guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, beren jarrera eta konfiantzagatik eta beren gogoetak partekatzeagatik. Esfortzu honek unibertsitate kritiko bat eraikitzeko lan egiten duten eragile desberdinak elkar ezagutzeko eta topatzeko balio izatea espero dugu.

8 Elkarrizketen gidoia eta elkarrizketatutako egituren eta kolektiboen zerrenda 8. eranskinean aurkitzen dira.

# I. Atala

## Hezkuntza emantzipatzailearen kontzeptualizazioa

# 1. Marko teorikoa

## 1.1. Mundu mailako krisi sistemikoko testuinguru bat

Hurrengo paragrafoetan Hezkuntza Emantzipatzailea eredu aldaketa estrukturalerako proposamen gisa ulertzea ahalbidetzen duen gizarte testuingurua azalduko dugu. Eredu aldaketarekin batera, haatik, kultura aldaketa sakon bat ere eman beharko da.

Azken urteotan, globalizazio neoliberalaren fenomenoa nagusitu da. Horrek, bada, pobretutako sektoreak eta aberastutako eliteak banatzen dituen arraila larriagotu du (hori posible bada). Termino horrek biltzen du "prozesu multzo bat, eremu desberdin askotan eta XX. mendeko azken urteetatik aurrera, mundu osoan zehar gero eta agresiboagoak diren praktika ekonomikoetan oinarritzen diren jarraibideak hedatzeko helburua duena. Izan ere, jarraibide horiek mendebaldeko kapitalismoaren modu eta interesei erantzuten diete" (Taibo, 2007:202).

Gaur egun, elkarri lotutako krisi anizkunak bizi ditugu. Horiek, hain zuzen ere, globalizazio neoliberalak sortutako politiken eta praktiken ondorio dira. Izan ere, politika eta praktika horiek ekoizpen eta kontsumo eredu kapitalista batean oinarritzen dira eta, hortaz, herrien eta pertsonen eskubideen aurretik, merkatuaren interesak lehenesten dituzte, gizarte desberdintasunak larriagotzen dituzte eta gizarte heteropatriarkala legitimatzen dute eta horretan oinarritzen dira.

**Krisi ekonomikoa**, bada, hauen ondorioa da: banku erakundeen gehiegikeriak; ekonomia finantzarioak ekonomia monetarioarekin konparatuta duen garrantzi gero eta handiagoa; eta transnazionalen hedapena eta boterea. Transnazionalen botere horrek, besteak beste, lan ezegonkortasuna, ekoizpenaren deslokalizazioa, lan eskubideen eta eskubide sindikalen urraketa, baliabide komun eta publikoen pribatizazioa eta estatuen demokrazia ahultzea ekarri du.

**Gizarte krisia**, bere aldetik, kapitalismoaren praktiken ondorioa da. Horrek, pobreziako, desberdintasuneko eta bidegabekeriako egoerak eragin ditu eta inoiz ez bezalako bazterkeria prozesuak sortu ditu. Krisiak, izan ere, emakumeengan izan du inpakturik kritikoena, ikerketa gehienek errealitate horri ezikusia egiten dioten arren. Hauek dira, besteak beste, horren kausak: botere harreman desberdinak, baliabideak eta zerbitzuak erabiltzeko aukera desberdinak -zerbitzuak gainera nabarmen hondatu dira gizarte murrizketen ondorioz-, eta gizonek eta emakumeek zaintzaren ekonomian duten parte-hartze desberdina. Horri, gainera, emakumeen sexu eta ugalketa eskubideak ez onartzea eta emakumeen kontrako indarkeria gehitzen zaio.

**Zaintza krisia**, bestalde, "herritarren zaintza beharrei erantzuna emateko moduaren berrantolaketa prozesu" gisa definitzen dugu (Orozco, 2006:1). Hala, krisi horren ondorioz, eztabaida piztu da -generoko inplikazio argiak dituen- zaintzaren arduraren banaketa ereduaren inguruan eta kapitalaren erreprodukzioaren eta giza bizitzaren ugalketaren arteko tentsioaren inguruan.

**Krisi ekologikoa.** Klima aldaketa logika produktibistaren eta kapitalismoaren oinarria den hazkuntza neurrigabearen ondorio latzena da. Kapitalismoaren produkzio sistemak erauzketa praktikak eta baliabide naturalen ustiatze sistematikoa eta bereizi gabea eragiten ditu. Hortaz, ez du munduko bizitzaren garapen iraunkorra bermatzen. Zenbait egileren arabera, "sistema ekonomikoa oreka ekologikoarekin bateraezina da, hortaz, hura eraldatu behar dugu" (Bermejo et al., 2010:7).

**Krisi politikoa** intentsitate baxuko demokraziaren ondorioa da (Boaventura de Sousa Santosek eta beste zenbait egilek erabiltzen dute termino hori). Horrek aurre egiten dio herritartasunaren erabilera beteari baina oso erabilgarria da kapitalismoarentzat eta, ondorioz, globalizazio neoliberalaren proiektuarentzat ere. Intentsitate baxuko demokrazia bi merkatutan oinarritzen da. "Merkatu ekonomikoan prezioa duten baloreak trukatzen dira eta merkatu politikoan preziorik gabeko baloreak trukatzen dira: ideia politikoak eta ideologiak, gero eta gehiago nahasten dira eta pixkanaka ustelkeria natural bihurtzen da. Hori ezinbestekoa da intentsitate baxuko demokrazia hori mantentzeko, herritarrak politikatik urruntzen baititu" (Santos, 2006:78). Demokrazia ordezkatzailea eredu hegemonikoaren antolatzeko modua da. Horretan herritarrek ordezkari politikoak aukeratuz erabiltzen dute beren herri subiranotasuna. Hala, parte-hartzea hauteskunde eremura mugatzen da.

**Krisi kulturala**, kapitalismo globalaren garapenaren ondorioz sortu da. Izan ere, horrek mendebaldeko ereduak inposatzeko eta zerbitzu eta produktu kultural berriak hedatzeko balio izan du. Hala, zerbitzu eta produktu horiek enpresa transnazional handiek irabaziak lortzeko logikari erantzuten diote. Alabaina, hori baino kezkagarriagoa da zenbait mezuren nagusitasuna. Mezu horiek, bada, hiperkontsumoa bultzatu eta beharrizan berriak sortzen dituzte, zoriontasunaren ideia eta merkatuak eskaintzen duena erlazionatuz. Horrela, bada, herritarron despolitizazioa lortzen dute.

**Krisi epistemikoa.** Zientzia modernoa paradigma positibista eta objektibista batean oinarritzen da. Krisi epistemikoak zalantzan jartzen du zientzia horren ezagutza ekoizpena. Ezagutza tekniko zientifikoa analisi enpirikoan oinarritu izan da. Analisi horrek sortzen dituen datuek izaera unibertsala duten legeak ezartzen dituzte. Hala, azkenean, ematen du lege horiek ez dutela zerikusirik datuak sortu dituzten pertsonen baloreekin eta lan ikuspegiekin. Hala, objektibotasunaren irizpide teknikoa erabiliz, alde batetik, beste ezagutza eta jakintza batzuen egiazkotasuna ukatzen dute eta, bestetik, autoritate berdingabea ematen diote lanketa zientifiko-akademiko batetik sortutako ezagutzari. Gainera, ezagutza hori izaera eurozentrikoa eta androzentrikoa duten logika kartesiarretan oinarritzen da.

Nagusi diren planteamendu epistemologikoen aurrean, XX. mende amaieran, errealitatearen ezagutza, bere eraikuntza eta eraikuntza horrek errealitatean duen eragina ulertzeko modu alternatiboak sortu ziren. Lehenik, epistemologia feministak nabarmendu nahi ditugu. Horien ekarpen nagusietako bat honako baieztapen hau da: ezagutza ezin da inoiz neutrala izan, beti izango da *ezagutza kokatu* bat (Haraway, 1995). Ezagutza, beraz, ekoizpen testuinguruaren eta hori sortu duen subjektibitatearen araberakoa izango da. Hau da, gure ikuspegia eta sortzen dugun ezagutza subjektu bezala forma ematen diguten gizarte egoeren araberakoak dira. Beraz, analisi horrek erakusten digunez, errealitatearen irudikapenak beti dira partzialak, iritzi politikoak erakusten dituzte eta horrela ulertu behar ditugu.

Beste alde batetik, gehien bat Latinoamerikan, zenbait egilek (Catherine Walsh; Aníbal Quijano, Arturo Escobar, Irene Lara…) proposatzen duten ikuspegi dekoloniala dugu. Hori iraultza epistemologiko horren aurrean dugun beste alternatiba bat. Egile horien arabera, kolonizatutako eskualdeak, kolonialismoaren ondoren ere, hiru kolonialtasun hauen menpe daude: boterearen kolonialtasuna, izatearen kolonialtasuna eta ezagutzaren kolonialtasuna. Azken hori da, hain zuzen ere, ezagutzaren eremuan eragin handiena duena.

Ikuspegi alternatibo horiek, bada, aintzat hartzen dituzte bereziki, ezagutzak eta jakintzak sortzen dituzten baina Akademiaren eredutik kanpo egoteagatik marjinatuak izan diren subjektu eta gizarte kolektiboak. Boaventura de Sousa Santosek *ezagutzen ekologia* bat proposatzen du. Horrek honako helburu hau du: jakintza herrikoiak, tradizionalak, emakumeen, nekazarien

eta mendebaldekoak ez diren kulturen jakintzak eta, azken finean, historikoki ez ikusiak eta zapalduak izan diren gizarte sektoreen jakintzak ezagutza zientifikoan txertatzea. Zentzu horretan, hortaz, komunitate epistemiko kritikoak aurkitzen ditugu. Horiek, bada, subjektuekin eta subjektuengandik pentsamendua sortzen ari dira, ekintza eraldatzaile eta emantzipatzaile baten alde.

Ikusi dugun bezala, ekoizpen eredu kapitalistak ideologia neoliberala du eta gizarte proiektu patriarkal batean oinarritzen da. Eredu horren porrotak inoiz baino nabariagoak dira. Hala, sistemaren zenbait sustatzailek ere porrot horiek onartu izan dituzte; izan ere, planetako bizitzaren iraupenari dagokionez, eredua eutsiezina dela onartu behar izan dute. Ikuspegi kritikoagoek, zibilizazio krisi horren irismenaz ohartarazten digute. Horrek guztiak, beraz, ereduz aldatzera eta Garapenaren ideia bera zalantzan jartzera bultzatzen gaituzte. Izan ere, Garapen ereduak ezin izan du bidezkoa, iraunkorra eta, gizon eta emakumeei dagokienez, ekitatiboa den mundu bat eraiki.

Hala, krisi global honek erakutsi digunez, ez da posible sistema kapitalista “humanizatzea”; sistema horren helburu nagusia irabazi ekonomiko handiena bilatzea baita, horretako desberdintasuna sortu, pertsonak eta natura esplotatu eta bizitzaren ugalketari lotutako lanak jarduera ekonomikotik isolatu behar baditu ere. Beraz, ekoizteko, kontsumitzeko, harremanak izateko, parte hartzeko eta ezagutzeko moduak aldatu ezean, ezin izango ditugu bizitzaren iraunkortasunaren aldeko proposamenak gauzatu. Eredu hegemonikoa da, hain zuzen ere, krisian dagoena. Beraz, agertoki berri bat sortzeko baldintzak jarri behar ditugu. Horretan, honen inguruan pentsatu beharko dugu: zer mundu motak eta zer gizarte antolaketa motak bermatu ahal izango ditu gizarte justiziaren, ekitatearen eta elkartasunaren printzipioak betetzen dituzten gizarte inklusiboak.

## 1.2. Unibertsitate publikoaren krisia eta eraldaketa

Unibertsitatea leku eta momentu historiko bakoitzean gertatzen diren aldaketen menpe dago. Gaur egungo testuinguruan, hegemonia neoliberalarekin, Unibertsitate publikoak zenbait dilemari egin behar dio aurre; horiek desiragarriak diren autonomiaren eta gizartearekiko konpromisoaren ideiak arriskuan jartzen baitituzte.

Boaventura de Sousa Santosek (2004), joan den mendeko azken hamarkadan, hiru krisi hauek identifikatu zituen Unibertsitatean: hegemonia krisia, legitimitate krisia eta krisi instituzionala. Hegemonia krisiaren jatorria elite kulturalen prestakuntza eta kapitalismoak behar duen eskulan gaituaren prestakuntza jardueren arteko kontradikzioan aurkitzen dugu. Legitimitate krisiaren jatorria beste bat da. Izan ere, Unibertsitatea, dagoeneko, ez da adostasuneko instituzioa hauen artean sortzen den desakordioaren aurrean: alde batetik, jakintza espezializatuen hierarkizazioa eta, bestetik, demokratizazio eta aukera berdintasuneko prozesuei zabaltzeko eskakizuna.

Koldo Uncetaren arabera (2014:29), “ezagutzaren merkantilizazio baldintza berriek eragin handia izan dute Unibertsitatearen rolaren gogoetan eta Unibertsitate sisteman azken urteetan egin diren erreformak baldintzatu dituzte”. Europar Batasunean, hain zuzen, erreforma horietako bat Bolonia Plana izenaz ezagutzen dugun Goi mailako Hezkuntzaren Europar Esparruaren (GHEE) eraketa izan da. Uncetaren hitzetan, “Unibertsitate politikak eta Unibertsitatean abiatutako erreformek lotura estua dute gaur egun nagusi diren politika ekonomikoen ildoekin” eta horrela definitzen ditu Unibertsitatea merkatura bideratzeko joera horren ondorioetako batzuk (Unceta, 2014:30):

- Unibertsitatea enpresa batekin parekatzearen eta ezagutza merkantzia bihurtzearen ondorioz, ikerketaren finantzamenduaren eta lortutako emaitzek duten balio komertzialaren arteko erlazioa sortzen da. Horrek ondorio latzak ditu gai batzuen edo besteen inguruan ikertzeko ustezko askatasunean.

- Kalitatearen kudeaketa eta neurketa ereduak enpresa eremutik hartzen dira eta ez dute behar bezala aztertzen Unibertsitateak gizarteari egiten dion ekarpena.

- Kalitatea neurtzeko irizpide gisa rankingak erabiltzen dituzte. Horiek erabiltzen dituzten parametroak kanpotik zehazten dira eta ez dituzte aintzat hartzen Unibertsitate komunitatearen benetako kezkak. Parametro horiek, bada, Unibertsitate bakoitzak ezagutzen "merkatuan" duen posizioa zehazten dute eta eragina dute irakasleen jardueran.

- Gaitasunetan oinarritutako curriculuma hartzen dute Unibertsitateak gaur egun eman beharko lukeen heziketa motaren adierazpen nagusitzat.

Unibertsitateak, modu kontzientean ala inkontzientean, aparatu indartsu baten modura funtzionatzen du. Bere praktikekin nagusi den sistema sozioekonomikoaren erreprodukzioari lagun diezaioke edo, alderantziz, gizartea eraldatzen eta *statu quo*-arekin hausten lagun dezake. Hortaz, Unibertsitateak menperatze eta gizartea eraldatze prozesuetan dituen rolen inguruko eztabaida sustatzeko momentua da. Horrek, derrigorrez, Unibertsitateak sortzen duen ezagutzarekin eta atzean dauden interesekin duen harremanari heltzea eskatzen du.

Hala, Unibertsitatearen funtzioari dagokionez, sailkapen desberdinak daude. Guk, bada, Rafael Diaz-Salazarrek (2015) proposatutako tipologia nabarmendu nahi dugu:

- Eredu teknokratiko neoliberala. Bere helburu nagusia formakuntza handiko profesionalak prestatzea da, sistema kapitalista mantentzeko. Ikuspegi horren arabera, Unibertsitatea, gehienbat irakaskuntza eta ikerketaren bitartez, enpresaren eta ezagutzaren eta teknologiaren gizarte berriaren eskakizunei moldatzen da.

- Eredu humanista eta liberal soziala. Oso kritikoa da Unibertsitate teknokratiko eta neoliberalekin, elite profesional ikasiak eta filantropikoak prestatzera bideratzen da.

- Eredu askatzailea eta eraldatzailea. Mundua eraldatu nahi duen proposamen kontrahegemoniko bat da Unibertsitatearen baitan. Ekoizpen eta kontsumo kapitalistaren moduak zalantzan jartzen ditu erabat. Horrela bizitzaren iraunkortasunean oinarritzen diren alternatibak diseinatzen eta garatzen ditu.

Azken eredu horren alde lan egiten duten unibertsitateek sozializazio prozesuak sustatzen dituzte, kontzientzia kritikoa garatzeko, boteretzeko eta munduko arazoen aurrean eta baztertutako eta zapaldutako sektoreekin konpromisoa hartzeko helburuarekin. Aurrerago egiaztatuko dugunez, helburu horiek bat datoz Hezkuntza Emantzipatzailearen proposamenaren zentzuarekin.

Zenbait egilek hirugarren eredu horren inguruan teorizatu dute. Horietako batzuen iritziz Unibertsitateak identitate kontrahegemonikoa lortzen badu errealitatea eta gizartea eraldatzeko aukera egon liteke. "Globalizazio neoliberalari aurre egiteko modu eraginkor eta emantzipatzaile bakarra hau da; globalizazio alternatibo bat, globalizazio kontrahegemoniko bat kontrajartzea" (Santos, 2004:44). Horren arabera, Unibertsitateko lanak gizarteak dituen

arazo handiei konponbidea emateko helburua izan behar du, tokiko-global ikuspegi batetik eta gizartearen aldaketaren protagonistekin batera ezagutza sortuz.

Ildo beretik, Vicente Manzano-Arrondok proposamen alternatibo bat egiten du goi mailako hezkuntza instituzio horretarako. Berak *Unibertsitate konprometitua* deitzen dio. "Unibertsitatea egiteko bestelako modu bat ekarriko duten ereduak eta praktikak sortzen ari dira, baita, historia asmatu genuenetik, gizadiarekin izan diren gaitzei seriotasunez eta itxaropenez aurre egiteko modu bat ere, lehenengoa, izan ere. Hau da, guztion onarekiko konpromiso zuzenaz ari gara. Gizarte estruktura bidegabeen kontra borrokatzeaz ari gara. Ondo banatutako botere berdintasunaz ari gara. Goi mailako hezkuntzari dagokionez, bada, Unibertsitate konprometituaz ari gara" (2012:126).

Unibertsitatean lehen aipatu ditugun globalizazio neoliberaleko joerak ematen dira. Horiek pedagogia kritikoaren papera eta ezagutzaren eraikuntzaren logika berrikustera eramaten gaituzte. Aurrerago gai horietan sakonduko dugu.

## 1.3. Hezkuntza kritiko emantzipatzailea, aldaketa estrukturalerako agendaren ezinbesteko oinarria

Europako troikak (Europako Banku Zentrala, Nazioarteko Diru Funtsa, Europako Batzordea) inposatutako "austeritate politikek" sortzen duten haserreak jendea eragiten du. Hala, jendea kalera irtetera eta profil politikoa berreskuratzera animatzen ditu, kalitatezko hezkuntza eta osasun publikoaren aldeko, etxebizitza duina izateko eskubidearen aldeko eta alternatiba feministak, ekologistak eta abar eskatzeko borroketan parte hartuz.

Bereziki, LOMCE (Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoa 8/2013, abenduaren 9koa,) izeneko azken hezkuntza erreformaren kontra sortutako protestak eta Goi mailako Hezkuntzaren Europar Esparrua ezartzen laguntzen duten joera merkantilizatzaileen inpaktuak sortutako haserrea nabarmendu azpimarratu nahi ditugu. Kritika askoren arabera, Munduko Merkataritza Erakundeak (MME) sustatutako Zerbitzuen Merkataritzaren gaineko Akordio Orokorrak (GATS, ingelesezko siglen arabera) edo berriagoa den Zerbitzuen Merkataritzaren gaineko Akordioak (TISA) "zerbitzuen merkataritza" liberalizatzea dute helburu -hezkuntza barne-. Hau da, eskubide hori pribatizatu nahi dute, horrek herritartasun politiko eta konprometitua eraikitzeko duen ahalmena galduz.

Herritartasun Globalerako Hezkuntza[9] (GHren 5. belaunaldia) testuinguru horrek sortutako erronkei aurre egiteko sortu zen, besteak beste. Hasieran, planetako bizitzaren ezaugarri diren interdependentzia harremanak onartzeko eta giza eskubideak harreman guztien ardatz gisa planteatzeko helburuak izan zituen. Gaur, ordea, herritartasun globalaren kontzeptu bera ere eztabaidan dago; izan ere, bere diskurtsoak eta proposamenak ez dituzte garapenerako lankidetzaren eremutik kanpo dauden gizarte eragileak kutsatzen.

---

9 Ikuspegi hau Garapenerako Hezkuntzaren azken belaunaldiari dagokio. Haren sorrera eta bilakaera Garapenerako Lankidetzaren eremuari lotuta dago. Horren inguruan gehiago jakiteko: Ortega, Mª Luz (2007): "*Educación para el Desarrollo. Evolución*" in: Celorio, Gema eta Alicia López de Munain: *Diccionario de Educación para el Desarrollo*. Bilbo, Hegoa. 130-132. orr. Boni, Alejandra eta Pilar Baselga (koord.) (2006): *Construir ciudadanía global desde la universidad*. Bartzelona, Intermón Oxfam eta Ingeniería Sin Fronteras.

Dagoeneko, beraz, hasi da 6. belaunaldiko hezkuntza baterantz ibiltzearen inguruko eztabaida. Hezkuntza horrek teoria kritikoen, feminismo pluralaren eta herri hezkuntzaren pedagogiaren printzipioak errotik hartzen dituzten prozesu emantzipatzaileak sustatu beharko ditu. Hau da, kultura aldatzeko gai den hezkuntza, mundua interpretatzeko modua eraldatzen duena, pentsamolde bitar dikotomikoari (gizon/emakume, publiko/pribatu, natura/kultura, ekonomiko/ez ekonomiko, objektibo/subjektibo, etab.) aurre eginez, begiradak eta diskurtsoak konplexuagotzen dituena, eta gizarte pentsamendu hegemonikoari aurre egiteko ideia erradikalak proiektatzen dituena. Hezkuntza Emantzipatzailearen kontzeptuak, gizartea aldatzeko konpromisoan oinarrituz, zentzu horiek guztiak biltzen ditu eta, hori gauzatze eta hedatze aldera, epe luzeko esku-hartzea proposatzen du.

Hala, emantzipazioa lortzeko helburua duen hezkuntza ekintzak kontzientziazio prozesuak bultzatu nahi ditu -Freireren zentzuan-. Horien helburua da subjektuak beren bizitzak zeharkatzen dituzten zapalkuntzak identifikatzeko gai izatea dute eta, globalizazioaren garaian, kapitalismoaren ondorioei aurre egingo dieten betekizunak burutzea. Bide horretan, beraz, ezinbestekoa da aukerak zabaltzea -duela gutxira arte lankidetzari eta eskola instituzioetako hezkuntzari oso lotuak- aliantza desberdinak sortzeko. Aliantza horiek, bada, beste subjektu batzuk aintzat hartu beharko dituzte; esaterako, gizarte mugimenduak, herri mugimenduak... Izan ere, horiek dituzten gaitasun eta esperientziengatik, indarrak metatzeko estrategia ona izan daitezke.

### 1.3.1. Hezkuntza ikuspegi horren printzipioak

**Kapitalismoa nagusi den paradigma ekonomizista gisa desnaturalizatzea.** Gure gizarteak printzipio kultural zehatz batzuetan eraiki eta oinarritu dira. Printzipio horiei balio eta aintzatespen berezia ematen zaie. Horietako bat, hain zuzen ere, kapitalismoa da. Eremu sozioekonomikoaren antolaketa proposamen hori, bada, naturaltasunez barneratzen dugu eta, horrela, bere izaerari eta unibertsaltasun asmoari buruz eztabaidatzea ez da beharrezkoa. “Onartu behar dugu ekonomia sistemak kapitalismo kontsumitzailearen ideologia behar duela hori naturalizatzeko eta zentzuzko gisa aurkezteko. Patriarkatuaren ideologia ere beharrezkoa da, hegemonia horretan ekonomiaren izaera salbu mantentzeko. Nagusi diren ideologia horiek, bada, urte askoz ‘elikatu’ gaituzte, hedabide masiboen, eskolen eta familiaren sozializazioaren bitartez” (McLaren, 2005:281).

Ikuskera hori desegiteko eta izaera eraldatzailea duten alternatibak garatzeko, beraz, premiazkoa da hori legitimatzen duten sinesmenak zeintzuk diren identifikatzea. Izan ere, feminismoak zientziaz, erlijioz edo kulturaz jantzita menpekotasuna eta zapalkuntza justifikatzen duten gauza guztien aurrean mesfidati izaten erakutsi digu.

**Imajinario kolektiboa deskolonizatzea.** Aurrean dugun sistema horrek erro sakonak ditu gure imajinarioan ere eta harremanak izateko, errealitatea aztertzeko eta alternatibak proposatzeko modua baldintzatzen du. Emakumeok asko dakigu horren inguruan; izan ere, mundu androzentriko batean jaio, hazi eta sozializatu gara. Androzentrismo horrek mundua eta bere arazoak menperatzearen eta oinperatzearen (kolonizazioa eta patriarkatua) logikatik interpretatzera eraman gaitu. Gure ezagutza, arrazoibidea eta jarduera, beraz, modu kontziente ala inkontzientean, gure kulturak duen mundu-ikuskeraren araberakoak dira. Hortaz, imajinario kolektibo hori deskolonizatzeko beharrezkoa da kontzientzia hartzea, menperatze sistema desberdinek gure bizitzan duten inpaktua identifikatu ahal izateko. Estrategia hori izango da, hain zuzen ere, eredua aldatzeko eta esplotatutako eta zapaldutako ezagutza oinperatua aintzat hartzeko aukerak sortuko dituena.

Beraz, zentzu horretan, *Proyecto Modernidad/Colonialidad*[10] proiektuaren ekarpenek eta ikuspegi dekolonialak oso interesgarriak dira. Modernitateak eskaintzen duen botere totalitarioko proiektua, bada, zapalkuntza inperialista, arrazista eta sexistetan oinarritzen da. Horren aurrean, inflexio koloniala -pentsamendu kritikoen multzo gisa- apustu bat da; ezagutza, izateko modu eta asmo desberdinak ezagutzera eman eta bideragarri egin nahi dituena, eredu eurozentristak eta menperatze logikak baztertuz.

Dekolonizazioaz gain, kultura artekotasun kritikoa ezinbesteko ezaugarria da pentsamendu emantzipatzailea eraikitzeko. Hala, Isabel Rauberrek eta beste zenbait egilek ematen dioten zentzuarekin bat gatoz: "Horren arabera, historikoki hegemonikoa izan den horren nagusitasuna ekiditeko edo murrizteko, ez ditugu desberdinen artean berdintasunezko harremanak ezarri behar. Bestela, hori berrargitaratuko eta birlegitimatuko litzateke, baina hizkuntza berri batez jantzita eta ikusezin bihurtuta, parte hartzen duten aktoreen borondatea gorabehera" (2014:31).

**Feminismoa proiektu politiko bezala txertatzea.** Feminismoak kultura patriarkalari eusten dioten mekanismo politiko, ekonomiko, sozial eta sinbolikoak argitzen laguntzen du. Era berean, errealitatea aldatzeko eta justuagoa eta ekitatiboagoa egiteko emakumeek eta gizonek dituzten aukera indibidual zein kolektiboak antzematen ditu. Gizartea eraldatzeko paradigma hori, bada, proposatzen dugun hezkuntza kritiko eta emantzipatzailearen oinarrian egon beharko da.

Proiektu feminista onartuz bakarrik egingo dugu aurrera izan daitekeen beste mundu posible horren eraikuntzan; kapitalismorik eta estruktura eta dinamika patriarkalik gabeko mundua, bizitza eta bere iraunkortasuna proposamenaren muinean jartzen dituena. Hain zuzen ere, bizitzaren iraunkortasuna ekonomia feministatik dator, gehienbat. Hausnarketa horren arabera, bestelako antolaketa eredu bat posiblea da. Eredu hori, bada, guztiz demokratikoa da eta bere jarduera gizakiaren zaintzan oinarritzen da.

Beste alde batetik, feminismoa edo feminismoak txertatzeko, beharrezkoa da bere praktika politikoaren subjektua aintzat hartzea. Hau da, proposatzen dugun hezkuntza ekintza horrek aldarrikatzen duen eraldaketa sozialaren sustatzaile gisa onartu behar dugu mugimendu feminista. Era berean, sexu eta generoko identitate aniztasunaren aldeko gizarte eragileek ere, desberdintasunak onartzen eta intersekzionalitatea Hezkuntza Emantzipatzailearen eraikuntzaren oinarri gisa ulertzen laguntzen dute.

**Aldaketaren subjektu politiko guztien parte-hartze aktiboa eta kalitatezkoa.** Boteretze logikei lotutako parte-hartze horretan, emakumeek, gizonek eta herriek euren etorkizunaren agintea hartuko dute. Izan ere, horrela, aldaketa estrukturalak lortu ahal izango dituzte, eurak zapaltzen dituen garapen eredu horrek sortutako desberdintasunak gaindituz. Parte-hartze instrumental eta hierarkikoaren aurrean, beraz, bestelako parte-hartze hori prozesu askatzaile bat da. Horretan, erresistentzian dauden eta aldaketa nahi duten erakundeek eta kolektiboek ekintzarako ahalmena eta ezagutza eskuratzen dute.

Alabaina, kolektibo horiek parte hartzeko *behetiko* eraikuntza behar da, "honako hauetan oinarrituta: elkartasuna eta topaketa; desberdintasunak ezabatu ordez, horiek aintzat hartzea

10 Proiektu hori XXI. mende hasierako Latinoamerikako pentsamendu kritiko aktiboaren kolektibo nagusietako bati dagokio. Diziplina eta belaunaldi anitzeko intelektualen sare bat da. Horiek ikuspegi dekolonial bat erabiltzen dute eta 1492an Amerika konkistatzean ezartzen diren botere harremanetan ardazten dute eztabaida.

eta onartzea; [...] anitza den horren inguruan lan antolatua eta kulturartekoa sustatuz, aniztasuna naturaltasunez txertatzen dituzten espazioak bilatzea" Isabel Rauberen hitzetan (2014:24).

**Ezagutza ez androzentrikoa, ez etnozentrikoa, ez antropozentrikoa, gizartearentzat garrantzitsua eta gizartea aldatzeko eta emantzipaziorako erabilgarria**. Ezagutza horrek gizarteetan adierazgarritzat jotzen diren egoeretatik aukeratutako edukiak landuko ditu. Hala, eduki horiek fenomeno desberdinen arteko interdependentzia antzematen lagunduko dute eta gizarte bidegabekeria, eutsiezintasuna eta ekitate eza gainditzeko aukerak sustatuko dituzte.

**Gizarte justizia, aintzatespen, elkartasun, iraunkortasun eta ekitate printzipioekiko konpromisoa.** Peter McLarenen hitzetan: "Hezitzaile kritikoen arabera, praxia (informatutako ekintzak) fronesiak (benetan eta zuzentasunez ekiteko gogoa) gidatu behar du. Beraz, kritikoki hitz eginez, ekintzek eta ezagutzak mina, zapalkuntza eta desberdintasuna ezabatzea eta justizia eta askatasuna sustatzea izan behar dute helburu" (2005:285).

### 1.3.2. Hezkuntza dimentsioak

**Dimentsio politikoa**, gehienbat, herritarrek modu aktiboan parte hartzeko duten trebakuntzari dagokio. Horren helburua hau da: alde batetik, erabaki politikoetan eragina izatea eta, bestetik, errotik demokratikoak diren gizarteak eraikitzea. Hala, dimentsio politikoaz hitz egitea hezkuntza ekintzaren neutraltasun eza onartzea da, baita hezkuntzaren zentzua askapenaren eta emantzipazioaren aldean jartzea ere.

Hezkuntza Emantzipatzaileak sustatzen duen parte-hartzea eredu liberal ordezkatzaileari lotutako parte-hartze formalaz harago doa. Izan ere, parte-hartze aktibo eta konprometitu bat da. Horretan, emakumeek, gizonek eta herriek parte hartzea ahalbidetzeko baldintzak garatzen dituzte, euren hitza berreskuratzen dute eta beren proiektua zentzu politiko batean identifikatzeko ahalmena garatzen dute.

Parte-hartze horrek -generoko sistemaren parte den heinean- botere harreman desberdinak aldatzea sustatu behar du. Horretarako, tresna bat bilakatu behar da; emakumeak subjektu politikoa izateko; gizonei, beren pribilegioak zalantzan jartzera eta ekitatearen aldeko jarrera garatzera bultzatzeko; eta gizon-emakumeei botere boteretzaile berrietan oinarritutako esperientzia baterako baldintzak ezartzen laguntzeko.

**Dimentsio pedagogikoa** boteretzearen eta emantzipazioaren aldeko hezkuntza prozesuari dagokio eta helburu horrekin garatzen diren hezkuntza estrategiekin lotzen da. Interes emantzipatzaile horrek, bada, dimentsio pedagogikoaren inguruko ikuspegi kritikoa eskatzen du. Ikuspegi horrek zeharkako lerro hauei erantzun behar die: generoko ikuspegia; hego ikuspegia; bake kultura, indarkeria eza eta giza eskubideak; eta jasangarritasuna.

Hala, generoko ikuspegia funtsezkoa da Hezkuntza Emantzipatzailearen ekintzarako; izan ere, maskulinoa den hori eta unibertsala den hori berariaz nahasten duten diskurtsoak hautematen laguntzen du. Gainera, gure kulturaren eta pentsamendu androzentrikoaren eta eurozentrikoaren inguruan ikuspegi kritiko bat garatzen laguntzen duten dekonstrukzio prozesuak lantzen ditu. Era berean, hezkuntza proiektua osatzen duten curriculuma, arau sozialak eta harremanak aldatzeko estrategia politiko gisa, hezkidetza proposatzen du.

Beste alde batetik, hego ikuspegiak honako hau eskatzen du: hezkuntza prozesuak Iparralde eta Hegoalde estatiko biren arteko desberdintasunak polarizatzeko joera hedatua gainditzea

eta tokiko-global konexioan oinarritzen den sistema dinamikoago bat txertatzea. Sistema horrek mundu mailako arazoek tokiko testuinguruetan dituzten inpaktuak identifikatuko ditu. Hezkuntza Emantzipatzailearentzat funtsezkoa da imajinario kolektiboa nola eratzen den ezagutzea, hau da, "bestea"-ren diskurtsoaren eraikuntzaren oinarrian dauden estrategiak identifikatzea. Horretarako beharrezkoa da ikuspegi zabala txertatzea. Ikuspegi horrek, beste gizarte eta kultura batzuetako subjektuak aintzat hartzeaz gain, klase ertainen ikuspegi etnozentrikoa zalantzan jarri beharko du. Izan ere, diskurtso globala etnozentrismo horretan oinarritu ohi da.

Bakearen, indarkeria ezaren eta giza eskubideen ikuspegiak indarkeriaren fenomenoaren dimentsio guztiak ulertzea du helburu. Hala, gatazkak kudeatzen eta eraldatzen ikastea funtsezko elementua da dimentsio pedagogikoan. Hori oso lotuta dago giza eskubideen ikuspegiarekin. Bestalde, androzentrikoa ez den bake kultura baten aldeko lanak eta zaintzaren etika feministak hezkuntza praktika emantzipatzaile batera hurbiltzen laguntzen dute.

Jasangarritasunak ikuspegi zabal bat proposatzen du. Horretan, bada, ingurumen ikuspegiaz gain, gaur egungo ekoizpen eta kontsumo ereduek gure bizitzan duten efektuen inguruan kontzientzia kritikoa sortu beharra azpimarratzen da. Zentzu horretan, beraz, jasangarritasunak, bizitza irautea eskatzeaz gain -giza, gizarte eta ingurumen zentzuan-, herritarrentzat bizi baldintza duinak garatzea ere eskatzen du. Ekonomia feministak eta ekofeminismoak sustatzen duen bezala, jasangarritasunari dagokionez, zaintzako eta maitasuneko testuinguruak eta harremanak mantentzea ezinbesteko estrategiak dira.

**Kultura (arteko) dimentsioa** Hezkuntza Emantzipatzailearen beste funtsezko elementu bat da. Izan ere, hori globalizazio hegemonikoak sortzen dituen kultura homogeneizazio prozesuei aurre egiteko estrategia bat da. Ikuspegi horretatik, hezkuntza ekintzak modu kritikoan erantzun behar die diskurtso xenofoboei eta, hala, gure kulturen oinarri den etnozentrismoa argitaratu behar du. Era berean, boteretze estrategiak sortu behar ditu. Horien helburua, hain zuzen ere, elkarrizketaren bidez eta, besteak beste, kultura, genero, etnia eta klase aniztasuna aintzat hartuz egoera ahulean dauden kolektiboetako pertsonen autonomia indartzea izango da.

Feminismo postkolonialek eta "mugako" feminismoek egindako proposamenak kultura arteko dimentsio kritikoan kokatzen gaituzte. Horretan, bada, ikuspuntu desberdinetatik begiratzea ezinbestekoa da gure gizarte konplexu hau aztertzeko.

**Dimentsio etikoa.** Hezkuntza Emantzipatzaileak zenbati printzipio etikotan oinarritzen da eta horien arabera aztertzen eta epaitzen du errealitatea. Gizarte justiziaren, ekitatearen, elkartasunaren eta etika feministaren baloreek proposatzen dugun hezkuntza mota honen ikuskera legitimatzen dute eta menpeko egoeran dauden horien aldean kokatzen gaituzte.

### 1.3.3. Esku hartzeko estrategiak. Unibertsitatearen praktikak, gabeziak eta erronkak

Gema Celorioren (2013:256) arabera, Hezkuntzan esku hartzeko lau estrategia nagusi azpimarratzen ditugu:

1. **Sentsibilizazioak** munduko pertsona eta herri desberdinen ongizatea kaltetzen duten problematiken inguruan herritarrak informatzeko ekintza multzoa -orokorrean puntualak eta epe laburrekoak- biltzen du. Sentsibilizazioaren helburua kontzientzia kritikoko prozesuak abiatzeko lehenengo pauso bat egitea da.

Hala, sentsibilizazioa unibertsitate eremuan nolabaiteko babesa izan duen estrategietako bat da, nahiz eta modu sakabanatuan eta beti garapenerako lankidetzari lotuta izan. Izan ere, "azken hori da statusa, babesa eta onarpena duena. Unibertsitateen orientazio eta praktika orokorrean lankidetza bera ahula bada, GH lankidetzari laguntzeko elementutzat hartzen da" (Celorio et al., 2012:14).

2. **Hezkuntzak eta formakuntzak**, aldiz, epe ertain eta luzeko prozesuak biltzen dituzte. Horien helburua pertsonak ekintza kolektiboan eta eraldaketan parte hartzeko boteretuko dituen ezagutza kritikoa sortzea da. Prozesu horrek, arazoen kausak, fenomenoen arteko harremana, botere egituren funtzionamendua eta herritar kritiko eta informatuek gizarte justu eta askeak eraikitzeko izan dezaketen ahalmena ulertzea bilatzen du.

Estrategia hau unibertsitate eremuan garatuz, etorkizuneko profesionalek euren ogibidea printzipio etikoen arabera eta elkartasunarekin eta gizarte justiziarekin konprometituz garatzeko ahalmena izango lukete. Aitzitik, GHk graduko ikasketetan dituen egoera eta aukeren inguruan Fundazió Autónoma Solidária fundazioak egindako diagnostikoaren arabera, ez dago GH ikuspegia ikasketa planetan txertatzeko neurri instituzionalik. Izan ere, zentzu horretan lortutakoa, funtsean, irakasleen borondate eta konpromiso indibidualaren emaitza da.

3. **Ikerketak**, Hezkuntza Emantzipatzailearen ikuspegitik, paradigma kritiko berriak sortzea du helburu. Paradigma horiek ikerketa eraldatzailearen eredu zientifiko berritzat jo beharko genituzke. Hala, zentzu horretan ikerketa-ekintza prozesuak interesgarriak dira, hausnarketa kritikoan eta ekimenen etengabeko berrorientazioan oinarritzen baitira.

Ikerketa unibertsitateko eginkizunari zentzua ematen dioten funtzio nagusietako bat da eta Hezkuntza Emantzipatzailearen proposamenean bereziki garrantzitsua da. Nabaria da "Unibertsitateak gizartearentzat garrantzitsua den ikerketari egin diezaiokeen ekarpena, eta horrekin batera, sortutako ezagutzak partekatua eta irekia izan behar duela" (Celorio et al., 2012:25).

4. **Gizarte mobilizazio zabal eta global baten babesaz politikan eragitea** herritar demokratiko eta boteretuen ariketa erradikal bihurtzen da. Ekintza eraldatzaile hori elkarrizketa politiko sendoa sortzeko eta elkar indartzeko gai diren eragile desberdinek osatutako sareetan eta aliantzetan oinarritu behar da.

2011an Bilbon ospatutako Garapenerako Hezkuntza Unibertsitatean izeneko Jardunaldietan, sare horizontalak sortzeko ideia proposatu zen. Sare horiek eragiteko eta gizarte mobilizaziorako ekintza esanguratsuak sustatu beharko lituzkete, Unibertsitatean nagusi den ikuspegia gaindituz. Izan ere, Unibertsitateak "gizarte eragileekiko eta GGKEekiko lana batere eraldatzailea ez den erauzketa mentalitate batetik ikusten du (...) Azken finean, ezagutzaren ekoizpen-kidetzari, ekintza komun eta koordinatuari, eta Unibertsitatean zein kanpoko gizarte eragileekin (GGKEak, gizarte mugimenduak...) aliantzak eta sareak sortzeari buruzko ideiez ari gara; politikan modu eraginkorrean eragiteko helburua dutenak (Celorio et al., 2012:26/27).

## 1.4. Hezkuntza Emantzipatzailearen proposamena hezkuntzaren teoria kritikoen eremuan

Hezkuntza Emantzipatzailea honako hauetan oinarritzen da: alde batetik, globalizazio neoliberalak gizarteetan eragin duen ezinegon bizian eta, bestetik, gizarte horiek eraldatzeko eta munduko

pertsona eta komunitate gehienek pairatzen dituzten bidegabekeriei, desberdintasunei eta bazterkeriei aurre egiteko borondatean. Ezaugarri hori hezkuntzaren teoria kritikoen eremuan bakarrik aurkitzen dugu eta zapalkuntzatik emantzipatzea eta gizartea aldatzeko gogoa eta aukera lotzen ditu. Hezkuntzaren teoria kritikoen interes nagusia -paradigma positibistarekin bat ez datorrena- bidegabea eta baztertzailea den gure errealitatea eraldatzeko helburua da.

Peter Maclarenek (2005) apustu politikoak pedagogia kritikoan duen garrantzia azpimarratzen du: "Hain zuzen, pedagogia kritikoak oso argi zehaztu ditu hezkuntzaren dimentsio politikoak; izan ere, eskolek eliteen baloreak eta pribilegioak erreproduzitzeko lan egiten dutela adierazi du. Pedagogia kritikoa, beraz, menpeko eta marjinatutako taldeekiko elkartasunez egindako ikasketa eta ekintza moduekin konprometitzen da. Hala, hezkuntzaren oinarriak zalantzan jartzean gain, teoriko kritikoek subjektuari boterea emateko eta gizartea eraldatzeko helburu emantzipatzaileak dituzte". (2005:260).

Proposatzen dugun Hezkuntzak sortu nahi duen kontzientzia kritikoa lortzeko ezinbestekoa da ulermenezko oinarri bat sortzea; hain zuzen ere, pertsona eta komunitateengan eragina duten desberdintasun eta zapalkuntza desberdinak sortzen dituzten kausa estrukturalak ulertzen duen oinarria. Oinarri hori ezagutza berreraikiz lortzen da. Izan ere, hezkuntza kritikoaren teorikoentzat, ezagutza gizarte eraikuntza bat da: "gizarte harreman partikularrak (adibidez, klase, arraza, eta generoko harremanak) eta garaiko koiuntura partikularrak bizi dituzten norbanakoen arteko akordioaren edo adostasunaren emaitza da" (2005:267).

Pedagogia kritikoak aldarrikatzen duen ezagutza emantzipatzaileari esker, ezagutza aldatzea posiblea dela ikusten dugu eta, horrela, arazoa gainditzeko konpromiso aktiboan oinarritutako prozesu bat sor dezakegu. "Ezagutza emantzipatzaileari esker, botere harremanek eta pribilegioek gizarte harremanak nola lausotzen eta manipulatzen dituzten ulertzen dugu. Gainera, berariazko ekintza kolektiboaren bitartez, ezagutza emantzipatzaileak irrazionaltasuna, menperakuntza eta zapalkuntza eraldatzeko eta gainditzeko baldintzak sortzen laguntzen du. Berehala, gizarte justiziarako, berdintasunerako eta gaikuntzarako oinarriak ezarriko ditu". (2005:269).

Feminismoa ezagutza mota horretara hurbiltzen da. Hala, patriarkatuan emakumeek pairatzen duten esplotazioaren eta menderakuntzaren kontzientzia hartzearen ondorioz, kolektibo horren emantzipazioaren aldeko mobilizazioa sortzen da. Horrela, bada, proiektu politiko horrek eskatzen dituen aldaketa guztiak jartzen dira martxan.

Jarraian, aurreiritzietan oinarritutako ezagutza batetik arrazoiketan oinarritzen den eta politikoki eraldatzailea den ezagutza batera igarotzeko helburua duen esku-hartze pedagogikoaren faseak deskribatuko ditugu[11]:

**Arazoa hautematea** testuen eta irudien irakurketa burutsuari hurbildu bitartez; hausnarketan oinarritutako irakurketak egiaztatzea eta berraztertzea sustatzen duten baldintzak sortzen laguntzen du. Lehenbiziko momentu horri sentsibilizazioa ere esaten zaio. Horrekin kontzientzia kritikoa garatzeko prozesua abiatzen da. Hala, subjektuek beren ideia eta aurreiritzi ideologikoei aurre egin ahal izateko, ezinbestekoa da aldez aurretik zituzten ideietatik abiatzea. Beraz, edukiak eta subjektuen egunerokoa lotzea funtsezko elementua da hezkuntza prozesuan. Zentzu horretan, feminismoak, "arlo pertsonala politikoa dela" adieraziz, hau erakutsi digu: eraldatzeko benetako ahalmena duten hezkuntza praktikak eremu pribatuan eta egunerokoan gertatzen den hori hartu eta gai politiko bihurtzen duten horiek dira.

11 Fase desberdin horiek 1988an ACSUR-Las Segovias eta Los Libros de la Catarata argitaratutako lan honetatik hartu ditugu: *Guía de educación para el desarrollo. Y tú… ¿cómo lo ves?*

**Arazoa eta bere dimentsioa aztertzea** datuak alderatu bitartez. Hori da, hain zuzen, ezarritako ideiak zalantzan jartzeko eta bakoitzaren mundua interpretatzeko modua berariaz aldatzeko momentua, suposizio berriei aukera emanez. Feminismoak, gainera, hau erakutsi digu: ez dela posible aurreko ezagutzei generoko ikuspegi politiko bat gehitzea. Aitzitik, ikuspegi kritiko bat garatzeko aurretiko ideiak eta horiei zentzua ematen dien kultura desegin behar ditugu.

**Arazoa arrazionalizatzea.** Horretako, ideia eta diskurtso dibergenteak alderatu beharko ditugu; izan ere, horiek egintzetan sakontzea eskatzen dute, sortutako kontraesanei erantzun ahal izateko. Fase honetan subjektu protagonistei modu aktiboan entzun beharko diegu, hori benetan gertatzen ari den hori interpretatzeko bide interesgarri bat baita.

**Arazoa azaltzea**. Horretarako azterketa zehatz bat eta ikuspegi globalizatzaile bat erabiliko ditugu. Horiek errealitatea osatzen duten elementu desberdinen artean loturak egiten eta interdependentziak antzematen lagunduko digute. Ikuspegi horrek azalpen partzial eta sinplistak baztertzeko eta arazoa harreman konplexuen eremuan ulertzeko aukera eskaintzen digu.

**Arazoarekin eta ekintza politikoarekin konprometitzea**, instituzio ofizialetatik eta gizarte erakundeetatik sustatutako ekimen desberdinak baloratu ondoren. Eskua hartze pedagogikoko prozesuan pertsonek ekintzarako ahalmena eta ezagutza garatzen dute. Horrek, azkenean, gizartea eraldatzeko modu aktiboan inplikatzera eramaten ditu.

**Komunikazio prozesu kritiko eta eraldatzaileen bitartez ezagutza gizarteratzea**. Horrelako komunikazio eredu batek, berez, esperientzia alternatiboak sustatzen ditu agenda hegemonikoaren aurrean. Hala, imajinario kolektiboari aurre egiteko, eredu horrek gizarte justizia, elkartasun, jasangarritasun eta ekitate baloreetan oinarri hartu beharko du. Aldi berean, subjektu protagonisten parte-hartzea eskatzen du, sor daitezkeen botere harremanak kontuan hartuz.

Amaitzeko, Peter McLarenek bikain laburbiltzen du ezagutza kritikoa eraikitzeko definitu dugun prozesu hori: “Ezagutzak garrantzia hartzen du baldin eta ikasleek ekartzen dituzten esperientziekin hasten bada; kritikoa da baldin eta esperientziaren bat problematikoa dela erakusten badu (adibidez, arrazista edo sexista); eta eraldatzailea da badin eta ikasleek ezagutza erabiltzen badute besteei (horien barnean, inguruan duten komunitateko pertsonei) boterea emateko.” (2005:294/295).

## 1.5. Hezkuntza Emantzipatzaile baterako ezagutza... baita Unibertsitatean ere

Unibertsitatean sortutako ezagutza -globalizazio neoliberalaren markoan-, gero eta gehiago, enpresarekin duen harremanaren menpe dago. Hala, azken hamarkadetan, mugimendu berriak sortu dira eta horietako batzuek, pixkanaka pixkanaka, bestelako ezagutza bat sortzera eta aintzat hartzera bultzatzen dute. Ezagutza hori gizartea aldatzeko erabilgarria eta emantzipazio asmoei erantzuna emateko gai izan behar da. Hurbilketa hori emaitza hauek lortzen ari da: zientzia eta gizartearen artean elkarrizketa handiagoa, diziplinarteko eta diziplinaz gaindiko elkarrizketa handiagoa eta Unibertsitatearen eta gizarte eragileen artean elkarrizketa handiagoa.

Juanjo Celorioren (2007) eta Jaume Martínezen (2012) arabera, honako hau izango litzateke Hezkuntza Emantzipatzailearen ikuspegia gizarterako garrantzitsua den ezagutzaren eraikuntzan aplikatzearen emaitza:

- Konplexua den errealitatea irakurtzeko gai den ezagutza. Horrek, aldaketa prozesuen eta dinamiken atzean dauden botere globalen berri emango du eta, hortaz, analisi politiko sendoa sortuko du.

- Eguneroko esperientziaren eta kulturen testuinguruan jartzen den ezagutza. Helburua, Feireren praxiaren epistemologia garatzea izango da, horrek benetako efektua izango baitu bizitzan. Hala, ezagutzaren erronka, alde batetik, gizartearen gehiengoak pairatzen dituen desberdintasun ekonomikoko, politikoko, eta soziokulturaleko egoerei erantzutea da eta, bestetik, zapalkuntzarik gabeko etorkizuna lortzeko alternatibak irudikatzea eta pentsatzea da.

- Elite kapitalistek eta enpresa transnazionalek sustatzen duten ezagutza hegemonikoaren kontra borrokatzen den ezagutza.

- Balorazio neutraltasunari uko egiten dion ezagutza. Jakin behar dugu ezagutzarako edozein hurbilketa interpretazio eredu baten arabera egiten dela, hori agerikoa izan ala ez.

- Munduko pertsona eta herri baztertuekin konprometitutako ezagutza. Ez dago jakintza feministara hurbilketa eruditua egiteko aukerarik. Era berean, gizartea eraldatzeko feminismoak duen konpromisoa gorabehera, ez dago Hezkuntza Emantzipatzailearen ezagutzara hurbilketa aditua egiteko aukerarik. Izan ere, HEren proposamenaren helburua ez da bakarrik mundua aztertzea, deskribatzea eta nola funtzionatzen duen jakitea; aitzitik, hori guztia egiten badu, mundua eraldatzeko eta zapaldutako sektoreen emantzipazioa lortzeko helburuz egiten du.

- “Ikusten ez den hori bistaratzen” duen ezagutza, hau da, emakumeak munduan egoteko modua eta existentzia frogatzera bideratzen dena. Egiteko horretan oso erabilgarria da desestaltze prozesua. Horren helburua, bada, ezagutzaren ekoizpen patriarkala ezkutatzen duten estaldurak kentzea da, hau da, androzentrismoa, heterozentrismoa, etnozentrismoa, klasismoa, arrazismoa... Izan ere, horiek emakumeak eta historiako marjinetara baztertutako eta zapaldutako beste kolektiboak menperatzea justifikatzen dute (Moreno, 1986 eta Torres, 1991).

- Subjektu eta komunitateekin konprometitzen den eta horiekin elkarrizketa eta komunikazioa sortzen duen ezagutza. Hala, subjektu eta komunitate horiek, ezagutzaren objektu hutsak izan beharrean, beren errealitatea ezagutzen eta eraldatzen laguntzen duten subjektu aktibo bihurtzen dira. Horrek, haustura bat sortzen du jakintza espezializatuaren eta jakintza herrikoiaren artean, eta haustura horrek jakintza herrikoia boteretzea eskatzen du.

- Herritar indibidualizatuaren aldeko joeraren aurrean komunitate ezagutzak berreskuratzen dituen ezagutza. Modernitateak gizarte komunitateak desegituratu eta demokraziaz jantzitako estatu boterea ezarri zuen. Horrekin batera, botere horri lotutako ezagutza ere ezarri zuen. Hala, kapitalismoak sortu duen krisiari aurre egiteko gizarte komunitateek eta herri mugimenduak berregindako jakintza sozial emantzipatzailea behar dugu.

- Diziplina artekotasuna eta diziplinaz gaindikotasuna sustatzen duen ezagutza. Horren helburua, ezagutzaren antolaketaren problematika lantzeaz gain, diskurtso berri hori berreskuratzeko konpromisoa duten subjektuak elkarrekin topatzeko eta parte hartzeko espazioak erraztea da. Feminismo poskolonialak salatu duenez, beste errealitate batzuen inguruan egindako azterketak izaera homogeneizatzailea eta baztertzailea du. Hortaz, feminismo hori diziplina arteko/diziplinaz gaindiko begirada baten aldekoa da.

Horri esker, sexismoa, arrazismoa eta klase esplotazioa elkarri lotutako menperatze sistemak direla hautematen da.

- Subjektuen praktikak hartzen eta bideratzen dituzten subjektibitateetan eragina duen ezagutza. Ezagutza ez da kontzientziara eta eremu intelektualera mugatzen; aitzitik, jarrera kritikoa izateko eta errealitatea eraldatzeko beharrezkoak diren usteekin, baloreekin, konpromisoekin eta jarrerekin lotutako elementuak hartzen ditu. Beraz, subjektuak beren osotasunean tartean sartzen dituen ezagutza da.
- Gizarte-historia-kultura testuinguru desberdinetan sortutako marko epistemologiko desberdinak aintzat hartzen dituen ezagutza. Hori da, hain zuen, Boaventura de Sousa Santosek ezagutzen ekologiarekin proposatzen duena. Hau da: "Unibertsitateak sortzen duen jakintza zientifiko humanistikoaren eta jakintza ezjakinen, herritarren, tradizionalen, hiritarren, nekazarien eta mendebaldekoak ez diren (Afrikako, ekialdeko eta abarreko indigenak) jakintzen arteko elkarrizketa sustatzea" (Santos, 2006:68).

# II. Atala

## Azterketa instituzionala eta eragileen diskurtsoaren azterketa

# 1. Azterketa instituzionala

Atal honetan UPV/EHU ikertuko da. Horretarako bere unibertsitate politika, UPV/EHU osatzen duten egiturak eta erakundeak eta instituzioak garatu dituen plangintza dokumentuetan identifikatutako ardatz estrategikoak aztertuko ditugu.

## 1.1. Unibertsitate politikaren azterketa

Puntu honetan Euskal Herriko Unibertsitatearen marko instituzional eta normatiboa osatzen eta hezkuntza politika antolatzen duten dokumentu nagusiak aztertuko ditugu. Hain zuzen, elkartasun eta garapenerako lankidetza, berdintasun, jasangarritasun, inklusio eta ikasleen parte-hartze estrategiak garatzearen aldeko jarrera erakusten duten dokumentuak aztertuko ditugu. Testu horietako batzuk UPV/EHUkoak dira eta, beste batzuk, instituziokoak ez diren arren, gainetik dauden eta eragin zuzena duten beste departamentu eta batzordeetakoak dira. Testu gehienak lan honetan lantzen den denboraldi berekoak dira (2011-2015) baina, zenbait kasutan, lehenagoko testuak ere sartzea erabaki dugu. Jarraian, gure helbururako interes gehien duten pasarteak aurkezten ditugu, ia hitzez hitz. Gero, horiek erabiliz, unibertsitate politika baloratuko dugu, Hezkuntza Emantzipatzailearen ikuspuntutik.

### 1.1.1. Unibertsitateen jokabide kodea Garapenerako lankidetzaren arloan

Testu hori Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Batzarreko (CRUE) Nazioarteko Harremanetarako Espainiako Unibertsitateen Batzordeak (CEURI) onartu zuen 2006ko ekainaren 23an. Euskal Herriko Unibertsitateak 2007ko otsailaren 8an ospatutako Gobernu Kontseiluan onartu zuen atxikimendua.

Jarraian azaltzen den bezala, artikuluetako batek instituzioak duen rol garrantzitsu bat aipatzen du; hau da, ikasleak mundu mailan giza garapen jasangarria lortzea oztopatzen duten arazoak uler ditzaten trebatzea. Era berean, testuak, beste artikulu batean, pobrezia ezabatzera bideratutako ikerketa garatu beharra aipatzen du. Gainera, honako hau aipatzen du: arlo horretan egiten diren ekintza guztiak berezkoak diren beste ekintza guztiekin integratu behar direla, horren aintzatespen akademikoa lortzeko mekanismoak ezarriz.

**Atarikoa**. Azken urteetan Unibertsitateek garapenerako lankidetzan gero eta protagonismo handiagoa hartu dute eta unibertsitate-komunitateko sektoreen arteko solidaritatea areagotzeko hamaika jarduera abiarazi dituzte, hainbat herrialdetako unibertsitate, erakunde eta gizarte-kolektiboekin.

**1. artikulua.** Unibertsitateak nazioarteko garapenerako lankidetzan parte hartzeak ondoko gogoeta du oinarrian: garapenerako nazioarteko lankidetza borondate kolektibotik sortutako aurrerapen-prozesua da, berekin aldaketa soziala, ekonomikoa, politikoa, kulturala, teknologikoa eta abar dakartzana; eta halaber, antolaketa partehartzailea eta kolektibitateko kideen boterearen erabilera demokratikoa eskatzen duena.

**4. artikulua.** Hezkuntza eta, horren barruan, goi-mailako hezkuntza, pertsonen eta gizarteen aukerak eta askatasunak zabaltzeko prozesuaren oinarrizko osagaia da. Ondorioz, unibertsitate-sistemak indartzeak eta unibertsitate-ikasketetarako sarbidea sustatzeak Garapenerako Unibertsitate-lankidetzaren berezko helburua da. Garapenerako Unibertsitate-lankidetzaren helburua da halaber, pobrezia errotik kentzeko eta garapena bultzatzeko prozesuekin lotutako zailtasunak eta kontraesanak konpontzeko lankidetzan aritzea, helburu horiek lortzeko egokiak diren ikerketa esparruetako aurrerapausoak sustatu.

**9. artikulua.** Aurretik esandakoari jarraiki, Garapenerako Unibertsitate-lankidetza unibertsitateko komunitateak behar bereziak dituzten herrialdeen gizarte eraldaketara bideratutako jarduera multzoa da; jarduera horiek bakearen, berdintasunaren, giza garapenaren eta ingurumenaren jasangarritasunaren alde egin nahi dute, eta eraldaketa horretan erakundeen indartzea eta sendotze akademikoak berebiziko garrantzia dute.

**11. artikulua.** Garapenerako lankidetzaren esparruan unibertsitateak egiten duen lana, berezkoak zaizkion jarduera-esparrukoak dira, hots, irakaskuntza eta ikerketaren eremukoak. Bi horiek ezinbestekoak dira ikasleen prestakuntza integrala lortzeko eta mundu-mailako giza garapen jasangarria lortzea oztopatzen dituzten arazoak hobeto ulertzeko.

**12. artikulua.** Garapenerako lankidetza Unibertsitatearen gizarte-konpromisoaren oinarrizko zati bat da, eta beraz, ezin da ulertu akademiaz kanpoko jarduera edota banakako konpromisoa bailitzan, aldiz, unibertsitateari berezkoak zaizkion jarduera multzoaren barrukoa dela ulertu behar da. Hortaz, Unibertsitatea bera zeregin horrekin konprometitu behar da, giza zein finantza-baliabideak eta baliabide teknikoak eskainiz.

**17. artikulua.** Hori gauzatu ahal izateko, irakasleek eta ikertzaileek garapenerako lankidetzaren esparruko jarduerak akademikoki aintzatesteko beharrezkoak diren formulak aztertuko dituzte Unibertsitateek, esaterako: jarduera esparru horietara zuzendutako ikerketa-ildoak sustatzea; irakasgaiak eta curriculum-ildoak ezartzearen alde egitea; ahal den neurrian garapenerako lankidetza proiektuetan parte hartzeko atzerrira joateko aukera eskainiko duten prozedura egokiak ezartzea; langile horien artean jarduera horiek arruntak bilakatu daitezela sustatzea; eta Unibertsitateetako CV ereduan Unibertsitate esparruan gauzatutako Garapenerako lankidetza-jarduerak jasotzeko atal bat sortzeko aukera aztertzea.

**22. artikulua.** Beste Unibertsitate eta erakundeekin ezarriko diren lankidetza-hitzarmenek, parte-hartze demokratikoa eta gardentasuna izango dituzte oinarrizko irizpide; halaber, helburuak eta jarduera-jarraibideak ezartzerakoan tartean diren sektoreen ahalik eta parte-hartze zabalena lortzea bilatuko da.

**25. artikulua.** Unibertsitateek gainerako gizarteko lankidetza-eragileekin elkarrizketa etengabea eta esfortzuak koordinatzeko mekanismoak ezartzearen alde lan egin behar dute.

### 1.1.2. Eusko Jaurlaritzaren 2011-2014ko Unibertsitate Plana[12]

Dokumentu hau Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak egin du. Horretan, euskal unibertsitate sistema osoaren oinarri estrategikoak ezartzen ditu. “Unibertsitatea eta Gizartea” izeneko puntuan, unibertsitateek gizartean duten presentzia areagotzeaz gain, balore sozialekin duen konpromisoa aktibatzea proposatzen du. Zentzu horretan, izaera soziala duten erakundeekin lan egiteko aipamena nabarmendu nahi dugu.

Gainera, dokumentuaren arabera honako hau da programaren helburua: “unibertsitateak beren ingurunetik gertu dauden eragile bihurtzea, eta gizartean presentzia nabarmena izan dezaten eta gizarte-ekimen eta -dinamiketan parte hartu eta buru izateko gai izan daitezen lortzea”. Bestalde, 6. helburu espezifikoak honako hau proposatzen du: “Unibertsitateak gogoetarako eremu gisa duen funtzioa indartzea, eremu horretan jarrera kritikoa, aukera-berdintasuna, ekintzailetasuna eta iraunkortasuna sustatzeko eta ezagutza transmititzeko, bere adierazpide guztietan”. Horretarako honako jarduera hauek identifikatzen ditu:

- Unibertsitatearen Gizarte Erantzukizuna. Kolektibo zehatzen, iraunkortasunaren eta abarren alde, gizarte baloreak sustatzearekin bat datozen barne jarduerak deskribatzen ditu, unibertsitateek garatu beharrekoak. Eremu horretan bereziki garrantzitsuak dira generoko berdintasunari dagozkion jarduerak.

12 Gaur egun, *2015-2018ko Unibertsitate Plana* dago indarrean <http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/uni_planes_universitarios/eu_def/adjuntos/plan_uni_2015_2018_e.pdf>, guk aurrekoa aztertu dugu hori baita ikerketa honek aztertzen duen denboraldiari dagokiona.

- Gizarte erakundeekin lankidetza akordioak lortzea eta mantentzea. Horren barruan, unibertsitateek helburu sozialak dituzten erakundeekin lan egiteko estaldura ematen duten jarduerak ditugu.
- Gizartearekin komunikazio bideak sortzea eta martxan jartzea. Helburua, bada, unibertsitateek ingurunearekin dituzten komunikazio bideak sendotzea eta beren presentzia nabarmentzea da.

Bestalde, "Ikasleei Laguntzeko eta Ikasteko Sarbidea Errazteko" helburuak sarbidea, kultura artekotasuna, elkartasuna eta lankidetza sustatzeko jarduerak aurreikusten ditu.

### 1.1.3. UPV/EHUko estatutuak

UPV/EHUren estatutuen helburuen artean garapenerako unibertsitate lankidetza aurkitzen dugu. Irakaskuntzari dagokionez, zentzu integrala ematen zaio, bake kulturarekin, gizarteratzearekin, iraunkortasunarekin, giza eskubideekin eta berdintasunarekin zerikusia duten elementuak azpimarratuz.

**I. titulua. UPV/EHUren izaera eta helburuak.** Unibertsitateak nazioarteko trukea eta lankidetza indartuko du. Espresuki aipatzen du garapenerako lankidetza. Garapenerako unibertsitate lankidetza aberasgarria da giza zein akademia mailan parte hartzen duten pertsonentzat eta euren Unibertsitateentzat.

**4. artikulua.** Hauek dira UPV/EHUren helburuak:

a) Jakintza sortu, kritikatu eta zabaltzea eta jakintzaren aurrerabidea eta gizartearen garapena sustatzea, ikerketaren bitartez eta ikerketaren emaitzak gizarteratuz.

c) Kalitatezko goi mailako irakaskuntza eskaintzea, ikasleen heziketa osoa bultzatzea, eta lanean hasteko beharrezkoa den prestakuntza ziurtatzea.

e) Profesionalen etengabeko prestakuntza eta goi mailako irakaskuntza eskatzen duten gizarteko beste taldeen etengabeko prestakuntza edo bizitza osoko prestakuntza sustatzea.

f) Unibertsitate zabalkuntza eta hedakuntza bultzatzea, batez ere gizarte eta kultura mailen arteko aldeak gutxitzera zuzenduak, bai eta bizitza politiko, kultural eta sozialean hobeto parte hartzeko baldintzak sortzera zuzenduak ere.

g) Nazioarteko trukea eta lankidetza indartzea, bereziki Europako esparruan eta garapenerako lankidetzaren alorrean.

**III. Titulua. Unibertsitatearen jarduna.**

**II. kapitulua. Unibertsitateko irakaskuntza.**

**79.3. artikulua.** UPV/EHUko irakaskuntzak ikaslearen heziketa osoa izango du kontuan: izpiritu kritikoa bultzatuko du, bakean eta bizikidetzan oinarritutako balioak indartuko ditu eta gizarteratzea sustatuko du, guztia jasangarritasuna eta gizarte erantzukizuna oinarri hartuta eta, betiere, oinarrizko eskubideak errespetatuta eta gizonen eta emakumeen berdintasunaren errespetuari arreta berezia eskainiz.

**VII. kapitulua Unibertsitatearen gizarte hedakuntza eta erantzukizuna.**

**114.2. artikulua.** Gizarte erantzukizunez aritzeko, UPV/EHUk gizon eta emakumeen berdintasuna eta bakean bizitzeko balioetan eta giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza bultzatuko ditu, eta unibertsitateko kideen partaidetza, ingurumen balioak eta jasangarritasun irizpideak sustatuko.

### 1.1.4. IKD hezkuntza eredua

IKD eredua (Ikaslean oinarritutako Ikaskuntza Kooperatiboa eta Dinamikoa) UPV/EHUren hezkuntza eredua da, "eredu propio, kooperatibo, eleanitz eta inklusibo honek ikasleek beren ikaskuntzaren jabe izatea lehenesten du, eta prestakuntza integrala, malgua eta gizartearen beharretara egokitua izatea". UPV/EHUko Gobernu Batzarrak onartu zuen aho batez 2010eko apirilean, UPV/EHUko titulu ofizialen curriculuma garatzeko oinarrietan.

Dokumentu horren arabera, "XXI. mendeko unibertsitatearen curriculum orokorrak ere bilakaera bat izan behar du, etengabe aldatzen ari den eta ezaugarri nagusitzat ziurgabetasuna duen gizartearen eskarietara egokitu ahal izateko. Goi-mailako hezkuntzaren egitekoa, beraz, ingurunean gertatzen denaz jabetzen eta arduratzen diren pertsonak, etengabeko aldaketetara egokitzeko gai direnak eta arazo berriei sormenean eta etikan oinarrituta erantzuteko gai direnak prestatzea da". Hala, lau bide nagusi garatzen ditu bere helburua lortzeko. Horien artean, lurralde eta jendarte garapenak, bereziki adierazten du hezkuntzak komunitatearekin eta gizarte eremuarekin duen erantzukizuna, iraunkortasun, ekitate eta inklusio irizpideetan oinarrituta.

- Irakas-ekintzarekin zerikusia duten pertsonen etengabeko prestakuntza (irakasleak eta irakas-jardueran laguntzen duten langileak), lanbide-garapen egokia bultzatze aldera. Besteak beste, heziketa-programek (Eragin, Behatu eta UIPP Unibertsitateko Irakasleentzako Prestakuntza Programa), hezkuntza-berrikuntzari laguntzeko proiektuek (HBP) eta irakas-jarduna ebaluatzeko tresnek (Docentiaz) lantzen dituzte IKD osatzeko ekintzak.

- IKD eredua garatzeko, bestalde, ezinbestekoa da etengabeko prozesu bat. Horren bitartez, UPV/EHUk bere gizarte eta komunitate inguruneari begirako konpromisoa hartuko du. Bokazio publikoa eta ekonomiari zein gizarteari begirako iraunkortasun irizpideak izango ditu; eta ekitate zein inklusio balioak sustatuko ditu. Gizarte-inguruneari begirako erantzukizunezko curriculum-garapena hauen bitartez gauzatzen da: kanpo-praktikak, gizarte ekimenekin egindako lankidetza, gizarte sareak, enpresarekiko harremanak, eta nazioarteko eskarmentua eta gure ikasleen lankidetza sustatzen duten mugikortasun programak.

- Garapen instituzionala irakaskuntzarekin zerikusia duten eragileen arteko lankidetza sustatzea eskatzen du (Ehundu bezalako programak, esaterako).

- IKDk gonbita egiten die ikasleei, ikaskuntzaren beraren protagonista eta unibertsitatearen gobernurako elementu aktibo bihur daitezen. Horretarako, metodologia aktiboen bitartez (Eragin, UIPP Unibertsitateko Irakasleentzako Prestakuntza Programa) egindako ikaskuntza prozesua sustatzen du, etengabeko eta trebakuntzazko ebaluazioa bermatzen du, ikastegietan harrera programak sustatzen ditu, aurretiaz duen eskarmentua aitortzeko modua finkatzen du (akademikoa, profesionala, bizitzakoa, kulturala), eta mugikortasun programak (Erasmus, Seneka) eta lankidetza-programak sustatzen ditu.

### 1.1.5. UPV/EHUko Plan Estrategikoa 2012-2017

Plan estrategikoak IKD hezkuntza eredua modu operatiboan garatzen du, jarduera ardatzak zehaztuz. Misioan konpromiso etiko eta soziala aipatzen du eta Ikuskeran Unibertsitateak hausnarketarako eta pentsamendu kritikorako eremu librea eskainiko duela adierazten du.

Lidergo intelektualaren eta gizarte erantzukizunaren bokazioarekin garatuko ditu emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna lortzera eta desberdintasun sozial eta kulturalak murriztera bideratutako neurriak, giza eskubideentzako zuzentasun, jasangarritasun eta errespetu handiagoko klabean gizarteen aurrerapena ahalbidetuko dutenak:

**I. ardatza. Prestakuntza**. Unibertsitario eta profesionalen premietara zuzendutako etengabeko prestakuntza sustatuko du, enpresa-munduarekin eta gizarte-eragileekin lankidetzan.

**II. ardatza. Ikerketa**. Gizartearen interesen araberako ikerketa egingo du. Ikerketa horren transferentziak garapen sozial bidezkoagoa, jasangarriagoa eta zuzenagoa eta gizarte-ongizate handiagoa lortzen eta enpresa publiko eta pribatu berriak eta pertsonen eta ingurunearen zerbitzurako ekonomia sustatuko duten gizarte-erakundeak sortzen lagunduko du.

**V. ardatza. Konpromiso soziala**

- Elkarrizketa sozialeko eremu erkideak eta hausnarketarako eta eztabaidarako elkartzekoak sortuko ditu, bere inplikazio soziala areagotzeko aukera emango duten bide berriak sustatzeko helburuarekin.
- Ezagutza sortzean, konpromiso etikoarekin eta gizarte-erantzukizuneko konpromiso argiarekin jokatuko du, herritarren belaunaldi berrien prestakuntzako gako-agente gisa eta iritzia sortzeko erreferente gisa.
- Unibertsitatearen hedapena eta proiekzioa desberdintasun sozial eta kulturalak murriztera eta bizitza politiko, kultural eta sozialean parte-hartze hobea izateko aukera ematen duten baldintzak sortzera bideratuko ditu.
- Gizarte parte-hartzaileago eta demokratikoago baten berezko balioetan sakontzen lagunduko duten ekintzak garatuko ditu.

**Ekintzak**:

1. UPV/EHUk bere ingurunean duen presentzia areagotzea, elkarketa-foroak antolatuz eta gizartearen parte-hartzea areagotuz, gizarte-eragileekin elkarrizketak egiteko guneak sortzeaz gainera.

5. Unibertsitate-jarduera guztietan aniztasunarekiko arreta sustatzea, inklusioa erraztuz eta bereizketak ematen duen aberastasuna onartuz.

6. Jasangarritasunerako, berdintasunerako eta garapenerako hezkuntza sustatzea unibertsitate curriculumean txertatuz prestakuntza- eta ikerketa-alderdietan.

8.Lankidetza-, berdintasun-, boluntariotza- eta jasangarritasun-egiturak indartzea, koordinazio bitarteko berriak sortzea eta horiek unibertsitateko jarduera guztietan aitortzea sustatuz.

9. Genero-ikuspegi integratua sustatzea unibertsitateko jarduera guztietan eta haien proiekzio sozialean, Unibertsitatearen bikaintasunaren beste irizpide bat balitz bezala txertatuz.

10. Aldaketa eta eraldaketa sozialaren eragile diren nazioko eta nazioarteko erakunde eta instituzioekiko sareko lana indartzea, hiritartasun global, solidario, kritiko eta parte-hartzailearen prestakuntzarako agente estrategikoak izanda. Kasu orotan bermatuko da, haien eskumenen arloan, oinarrizko eskubide eta askatasunak, eta printzipio eta balio demokratikoen errespetua.

### 1.1.6. UPV/EHUko emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. Plana (2010-2013) eta UPV/EHUko emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. Plana (2014-2017)

Berdintasunerako Planak berdintasunaren arloan UPV/EHUren jardueraren ildoak biltzen dituzten dokumentu markoak dira. Zentzu horretan berdintasun printzipioa gauzatzeko eta

helburuen jarraipen eta ebaluazio sistemak ezartzeko beharrezkoak diren helburuak, estrategiak eta ekintzak zehazten dituzte.

UPV/EHUko emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. Planaren (2010-2013) aurkezpenean honako hau irakur daiteke: "Berdintasunerako plan hau martxan jartzeak ez dakar soilik indarreko araudia formalki betetzea, baizik eta, emakumeen eta gizonen berdintasuna, benetan horretan sinetsita, UPV/EHUko lehentasun eta printzipio gidari gisa onartzea. Esparru dokumentu orokorra da, eta berdintasun printzipioa lortzeko helburuak, estrategiak eta ekintzak finkatzen dira bertan, baita ezarritako helburuen jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistemak ere". Hala, bere helburu nagusia "genero ikuspegi integratua unibertsitate jarduera osoan txertatzea da, emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioa benetan gauzatzeko eta diskriminazio jarrerak saihesteko politika aktiboak garatuz".

Aurrekoa bezala, UPV/EHUko emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. Plana (2014-2017) UPV/EHUk bere zerbitzuaren hartzaile den gizartearekin duen konpromisoaren emaitza da. Horretarako emakumeen eta gizonen artean benetako berdintasuna lortzeko neurriak garatzen ditu, I. planean burutu ez ziren jarduerak berreskuratzen ditu eta erronka berriak ere mahaigaineratzen ditu. Horiek lortzeko "beharrezkoa da, batez ere, Planaren ardatz bakoitzeko unibertsitate egitura bakoitzean pertsona baten konpromisoa edukitzea, Planean aurreikusitako ekintzak gauzatzeari begira".

Planak hiru eremutan aurreikusten ditu jarduerak Unibertsitatean: irakaskuntzan, ikerketan era eremu instituzionalean. Lehenengoari dagokionez, planak beharrezkotzat jotzen du eremu horretan generoko ikuspegia sustatzea. Horretarako, ezagutzaren eraikuntzan emakumeen jakintza eta ekarpenak txertatzea proposatzen du. Beste alde batetik, ikerketari dagokionez, funtsezkotzat jotzen du emakume ikertzaileei sostengua ematea. Horrela, horiek euren ikuspegia eman ahal izango dute eta ezagutzako agenteak izango dira. Era berean, generoko ikuspegia duen ikerketa sustatzen du ezagutza eremu desberdinetan, baita ikerketa horien emaitzak ezagutzera ematea ere. Azkenik, ezagutza sortzen eta baloreak transmititzen dituen heinean, Unibertsitateak jendartean beharrezkoa den mentalitate aldaketa bultza dezan, ekintza desberdinak proposatzen ditu.

### 1.1.7. UPV/EHUko Ikasleen I. Partaidetza-Plana

Dokumentua UPV/EHUko Gobernu Batzordeak onartu zuen 2012ko uztailaren 19an. Hau dokumentuaren justifikazioa: "Unibertsitatea etengabe aldatzen den erakunde bat da, eta gaur egungo unibertsitateak bereziki eskatzen digu bere barneko talde guztien parte-hartzean sakontzea; ikasleenean, besteak beste". Hala, ezinbestekotzat jotzen du "ikasleek modu arduratsu eta aktiboan parte hartzea unibertsitatean; izan ere, bertan egingo dituzten ikasketek garapen pertsonala eta prestakuntza osoa sustatu behar dituzte, herritar arduratsuak izan daitezen, eta gizarte konplexu eta batik bat aldakor honetako arazo ekonomiko, politiko eta sozialei erantzun ahalko dien prestakuntza eskaini behar dute".

Bestalde, planaren helburu nagusia "UPV/EHUko ikasleen partaidetza sustatzea da" eta hori lortzeko jarduteko bost arlo identifikatzen ditu: Irakaskuntzaren era Ikerkuntzaren Arloa; Kudeaketaren eta Ordezkaritzaren Arloa; Gizartearen eta Kulturaren Arloa; Komunitatearen Arloa eta Ebaluazioaren Arloa. Komunitatearen Arloan, bada, espresuki aipatzen da garapenerako lankidetza.

- Partaidetza irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren arloan. Ikaskuntza prozesu eraikitzaile gisa hartzen du, ikerketarekin zuzenean lotutako prozesu gisa. Alde horretatik,

UPV/EHUren urteroko eskaintza zabalaren baitan graduondoko ikasketak egitea aukeratzen duten guztiek parte hartzen jarraitzen dute.

- Partaidetza kudeaketaren eta ordezkaritzaren arloan. Gobernu-organoetako ordezkaritza eta partaidetzari dagokio (Unibertsitateko Klaustroa, Ikasleen Kontseilua, Campuseko Batzarra, etab.).
- Partaidetza gizartearen eta kulturaren arloan. Arlo honetan sartzen dira kulturarekin eta kirolarekin zerikusia duten jarduera guztiak.
- Partaidetza komunitatearen arloan. Gizarterako hedakuntzaren arloaren baitan eskaintzen diren jarduerei dagokie, hau da, garapenerako lankidetzari, herritarren partaidetzari eta boluntariotzari lotutako jarduerei.
- Partaidetza goi mailako hezkuntzaren ebaluazioaren arloan. Gaur egun ikasleek goi mailako hezkuntzako ebaluazio-prozesuetan zeregin aktiboa izan dezaketela uste da, bai tituluen kalitatea ebaluatzeko sistemetan, baita ikastegien edo unibertsitateen kalitatea ebaluatzeko horietan ere.

### 1.1.8. UPV/EHUko II. Inklusio Plana

II. Inklusio Plana UPV/EHUko Gobernu batzordeak onartu zuen 2012ko ekainaren 22an. Testuaren arabera, “II. Inklusio Plana onartzea eta abian jartzea konpromiso baten ondorio logikoa izan da, unibertsitateko kide guztien konpromisoa, gizartearen eskaera eta beharrei erantzuteko gai izango den unibertsitate ireki bat eraikitzeko”.

Aukera berdintasun printzipioaren arabera, ezgaitasunak dituzten ikasleen beharrei erantzuna emateko helburuz, Planak esku hartzeko lau ardatz proposatzen ditu: Informazioa, Aholkularitza eta Orientazioa; Aukerak parekatzea; Prestakuntza eta Sentsibilizazioa; eta Irisgarritasun Unibertsala.

## 1.2. Egitura instituzionalaren azterketa

1980ko otsailaren 25ean, Bilboko Unibertsitatea Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitate bilakatzen da. Hala, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate sistema publikoa sortzen da.

UPV/EHUren egitura aztertzen hasi baino lehen, **UPV/EHUko Gizarte Kontseilua** aipatu nahi dugu. Izan ere, hori euskal jendarteak Unibertsitatean parte har dezan bermatzen duen gobernu organoa da. Gainera, bere kideen bitartez, Euskal Herriko eta unibertsitate komunitatearen gizarte interes desberdinak ordezkatzen ditu. Gizarte kontseilua honako hauek osatzen dute: UPV/EHUren ordezkariak; UPV/EHUko Gobernu batzordeak aukeratutako ordezkariak; Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak; Lurralde Historikoetako Batzar Nagusien ordezkariak; sindikatuen ordezkariak; eta Euskal Enpresarien Konfederakuntzaren ordezkariak.

Gaur egun, UPV/EHUren egitura Gobernu Batzordeak eta Gobernu Kontseiluak antolatzen dute. Horiek unibertsitate komunitatearen ordezkaritza organo gorena den Unibertsitateko Klaustroaren aurrean erantzuten dute. Gobernu Batzordea Errektoreordetzek osatzen dute eta Gobernu Kontseilua horren delegatuak diren hiru Komisiok osatzen dute (Batzorde iraunkorra, Ekonomia batzordea eta Estatutuak eta Arautegiak garatzeko batzordea). Horiez gain, garrantzitsutzat jotzen badituzte, beste komisio batzuk ere kide izatea erabaki daiteke.

Izan ere, Garapenerako Lankidetza Kontseilua eskumen horren bitartez onartu zen, 2009ko uztailaren 22an. Idazkaritza Nagusia da unibertsitate egitura desberdinak sortzeko, aldatzeko edo ezabatzeko arduraduna.

Gobernu Kontseilua Unibertsitatearen aurrekontuak, unibertsitate arauak, ikasketa planak, plan estrategikoak (esaterako, euskalduntze plana) edota Unibertsitateko pertsonala onartzeko arduraduna da

Jarraian, egiten ari garen azterketarekin lotura duten egiturak aipatuko ditugu.

### 1.2.1. Garapenerako Lankidetza Kontseilua

Garapenerako Lankidetza Kontseilua 2009an sortu zen[13] unibertsitate komunitatearen lanerako, aholkularitzarako eta parte-hartzerako organo gisa. Hala ere, 2010ko maiatzera arte ez zen martxan jarri, orduan aukeratu baitziren bere kideak eta osatu baitzen kontseilua[14].

Ebazpen ofizialean sei konpetentzia hauek egokitzen zaizkio Kontseiluari:

- Unibertsitateen Jokabide Kodea aplikatzen laguntzea garapenerako lankidetzaren arloan, kode hori gauzatzeko laguntza emanez, hobetzeko proposamenak landuz eta kodea oso-osorik aplikatzeko irizpideak proposatuz.
- Garapenerako lankidetzari buruzko plan, programa eta jarduerak egiteko proposamenak egitea, UPV/EHUk gauza ditzan.
- Unibertsitateen Jokabide Kodea garapenerako lankidetzaren arloan aplikatu ondoren, honako arlo hauen jarraipena eta ebaluazioa egitea: aurrez finkatutako helburuak, eta aurrera eramandako ekintzak eta unibertsitate politikak.
- Nazioarteko elkartasunaren esparruan eztabaida kritikoa bultzatzea.
- Beste erakunde eta gizarte eragile batzuekin batera garapenerako lankidetzari lotutako ekintzak egin daitezen bultzatzea.
- Unibertsitateko kideek garapenerako lankidetzarekin lotuta egindako jarduerak ezagutzera ematea.
- UPV/EHUko gobernu, ordezkaritza eta aholkularitza organoek garapenerako unibertsitate lankidetzaren arloan emandako beste edozein eskumen.

Garapenerako Lankidetza Kontseiluak, Administrazio eta Zerbitzuetako zenbait Langilek (AZL), irakaslek eta ikaslek osatzen dute eta ondoko egitura hau du:

- Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordea;
- Gizarte Erantzukizuneko Zuzendaria;

13 Ebazpena, 2009ko abuztuaren 4koa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiarena. Horren bidez, UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Kontseiluaren sorrera eta bere funtzionamendu arautegia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzen da. EHAA, 176 zkia. 2009ko irailak 14.

14 <http://www.ehu.eus/es/web/garapenerako-lankidetza-kontseilua>.

- Garapenarekin lotura duten UPV/EHUko institutu, unibertsitate katedra edo beste egitura batzuetako ordezkari bat;
- Garapenerako lankidetzarekin lotura duten unibertsitate elkarteetako lau ordezkari. Ikasleak izango dira haietako bi, gutxienez;
- Diru sarreren %0,7 garapenerako unibertsitate lankidetzaren alde ematen duten UPV/EHUko ikastegi, sail, institutu edo beste egitura batzuetako ordezkari bat;
- Garapenerako unibertsitate lankidetzaren alde baliabideak ematen dituzten 0,7 Fondoetako ordezkari bat;
- Garapenerako lankidetzan esperientzia duten hiru pertsona;
- UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Bulegoko pertsona bat (idazkaria).

### 1.2.2. Ikasle Kontseilua

Ikasle Kontseilua ikasle guztiak ordezkatzen dituen organoa da, unibertsitate organoen eta instituzio eta erakunde publiko zein pribatuen aurrean. Unibertsitatearen web orrialdearen arabera, "Ikasleen Kontseiluaren zereginak, ikasleek unibertsitate-bizitzan parte hartzeko duten interesa du oinarririk funtsezkoena".

Hauek dira zeregin horietako batzuk:

- UPV/EHUren ikasleak ordezkatzea beren interesekoak izan daitezkeen gai orokor guztietan, eta, horren harira, talde horrek onartutako solaskide gisa jardutea.
- UPV/EHUko ikasleen eskubideak betetzen direla zaindu eta eskatzea.
- Urteroko jardute-plana burutu eta programatzea.
- Euskararen erabilera bultzatzea ikasleen ordezkaritza-organoetan.
- Bere aurrekontua administratu eta gestionatzea.
- UPV/EHUn emandako ikasketen eta irakaskuntzen kalitatea zaintzea, bai eta ikasleen prestakuntza intelektuala, kritikoa, soziala, profesionala, zientifikoa eta kulturala ere, tituluen ezaugarriak kontuan hartuta.
- Ikasleen ordezkariei lana egiteko laguntza, babesa eta koordinazioa eskaintzea, unibertsitatearen edozein instantziatan.
- Ikasleen parte-hartzea bultzatzea. Batik bat, ikasleen taldeko antolakuntza bultzatuko du eta horren alde lan egingo du, eta bere ordezkarien jarduerak sustatu eta koordinatuko ditu, gobernu-, ordezkaritza- eta partaidetza-organoetan, dagokien jarduera eremuan.

### 1.2.3. Berdintasunerako Batzordea

2009ko ekainaren 22an UPV/EHUko Berdintasunerako Batzordearen eta bere funtzionamendu arautegiaren eraketa argitaratzen da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Hala, Berdintasunerako Batzordea unibertsitate komunitatearen lanerako, aholkularitzarako eta parte-

hartzerako organoa da berdintasunaren arloan eta Berdintasunerako Zuzendaritzari laguntzeko eta aholkua emateko ardura du, baita UPV/EHUko beste edozein gobernu, ordezkaritza eta aholkularitza organori ere.

Batzordeak honako eskumen hauek ditu:

- Unibertsitateak berdintasunaren inguruan garatzen dituen planak, programak eta jarduerak prestatzeko proposamenak egitea.
- Ipinitako helburuak eta burututako jarduerak betetzeko jarraipena egitea, baita eginiko aurreikuspenekiko erabili diren bitarteko eta baliabideena ere.
- UPV/EHUko Berdintasun Planaren prestaketan parte hartzea. Planean, unibertsitate honetako berdintasunerako jarduerek bideratu behar dituzten ildoak azalduko dira. Plana prestatu eta Gobernu Kontseiluari aurkeztuko zaio, onar dezan.
- Berdintasun Planaren aplikazioa sustatzea eta ebaluatzea, abian jartzen lagunduz, hobekuntza proposamenak eginez eta erabat garatzeko irizpideak proposatuz.
- UPV/EHUko gobernu, ordezkaritza edo aholkularitza organoek ematen dioten beste edozein eskumen.

### 1.2.4. Lankidetzako instituzioak eta erakundeak

UPV/EHUk, aurrerago aztertuko dugun Garapenerako Lankidetza Bulegoaz gain, hurrengo erakundeak izendatzen ditu Unibertsitateko lankidetza egitura gisa.

#### 1.2.4.1. Hegoa, Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua

Hegoa Euskal Herriko Unibertsitateko Institutu mistoa da[15]. Institutua Unibertsitateak eta Hegoa elkarteak sortu zuten. Hegoa elkartea 1987an sortu zen. Unibertsitate institutua eta elkarte zibila izanik, bere lanak honako helburu hauek izan ditu: pentsamendu kritikoa sortzea, eta garapenaren eta lankidetzaren inguruan hausnarketa eta ikerketa sustatzea, arlo horretan kalitatezko heziketa eskaintzea eta gizartea eraldatzeko proposamenak ematea. Hala, bere zeregin guztia ikerketa, heziketa, dokumentazio aditu, aholkularitza eta hezkuntza estrategien bitartez garatu da. Estrategia horiek bat datoz Garapenerako hezkuntzaren estrategia tradizionalekin. Hala ere, instituzioan ez dute beti jakin izan arlo horretan ekarpenak egiten ari zirenik (Celorio, 2011).

Ikerketa lanaren oinarri nagusia giza garapenaren kontzeptuaren dimentsioak aztertzea eta alternatibak sortzeko helburua duten esku-hartze estrategiak ikertzea da. Ikerketa lan horren buru dira Hegoako irakasle eta ikertzaileak. Langile horiek, gainera, beste unibertsitate eta gizarte erakunde batzuetako ikerketa sareetan parte hartzen dute.

Dokumentazio Zentroak Garapenaren eta Nazioarteko Lankidetzaren arloko liburutegi espezializatu handia eskaintzen die irakasleei, ikertzaileei, gizarte eragileei eta jendarte orokorrari. Horretan monografiak, erreferentziako lanak eta beste dokumentazio zerbitzu batzuk eskaintzen ditu.

15 1997. urtean, Hegoa Atxikitutako Institutu bilakatzen da eta, 2014an, unibertsitate institutu misto.

Unibertsitate heziketa programek, alde batetik, gaur egungo errealitatea giza garapenaren arabera ulertzeko eta aztertzeko prestakuntza espezifikoa eman nahi dute eta, bestetik, gizartea aldatzeko erabilgarria den ezagutza berria sortu nahi dute. Gaur egun, Garapenari buruzko Ikasketen doktorego programa eta hiru master garatzen dira: Globalizazio eta Garapenari buruzko Unibertsitate Master Ofiziala; Garapen eta Nazioarteko Lankidetzari buruzko Unibertsitate Master Ofiziala; eta Nazioarteko Lankidetza eta Hezkuntza Emantzipatzaileari buruzko on-line Masterra

Beste alde batetik, aholkularitzako jarduerak laguntza teknikoko zerbitzuak, formakuntza eta ikasketak eskaintzen dizkie administrazio publikoei eta kooperazio erakundeei, gehienbat lankidetza deszentralizatuaren arloan. Era berean, tokiko giza garapenean oinarritzen diren lankidetza esperientziak garatzen ditu zenbait herritan, proiektu, programa eta hitzarmenen desberdinen bitartez.

Horrez gain, hasiera-hasieratik, Hegoak Garapenerako Hezkuntzaren inguruko lan talde espezifikoa izan du. Gaur egun, talde horrek Hezkuntza Emantzipatzaile hitzak erabiltzen ditu, gizartea aldatzeko asmoz, helburu eta proposamen estrategikoetan dimentsio politikoa txertatzen duen prozesu hori izendatzeko. Iparralde-Hegoalde, lankidetza-hezkuntza, GGKE-gizarte mugimenduak eta abarreko ikuspegi dikotomikoen aurrean, aipatutako hezkuntza prozesuak subjektu desberdinak indartzea eta antolatzea proposatzen du. Horretarako, ikuspegi feminista eta internazionalista erabiliko ditu. Hala, helburua hezkuntzan eta nazioarteko lankidetzan nagusi izan diren joera estu edo sektorialak gainditzea da.

Ikuspegi horretatik, gure ustez, Hegoa Garapenerako Hezkuntza/Hezkuntza Emantzipatzailearen ikuspegitik lan egin duen eta lan egiten duen instituzioa da, Unibertsitate barruan -UPV/EHUn duen papera finkatu nahian- eta Unibertsitatetik kanpo, gainontzeko hezkuntza eta gizarte eragileekin.

2011-2012 urteetan, hezkuntza taldeak unibertsitate eremuan garapenerako hezkuntzaren proposamena eztabaidatzeko eta inplementatzeko lan plana diseinatu zuen (*Mundubildu III. Red para la convergencia de Universidades y centros escolares en el fortalecimiento de la ED en la educación formal)*. Gaur egun, ildo beretik jarraitzen du ondoko proiektuarekin*: "Unibertsitatean hezkuntza kritiko eta emantzipatzailea pixkanaka gehitzeko estrategia, tresnak eta prestakuntza. Topaketa gizarteko eta hezkuntzako eragileekin* (2016-2017)". Ikerketa hau, proiektu horren ekimenetako bat da, hain zuzen ere.

### 1.2.4.2. UPV/EHUko %0,7 Elkartasun Fondoa Elkartea

1996an sortu zen eta UPV/EHUko zenbait langilek osatzen dute. Bere helburua hilero soldataren %0,7 ematea da, "UPV/EHUko kideen elkartarsuna [sic] sustatzeko pobrezia eta marjinazioarekiko". Bere web orrialdearen arabera, elkarteak 450 pertsonak osatzen dute, UPV/EHUko langileen %10, alegia.

Fondoak aurreko urtean bildutako dirua alfabetatze edo/eta lehen hezkuntza arloko "garapenerako proiektuak" finantzatzeko erabiltzen du. Bi proiektu mota laguntzen ditu: 1) Garapenerako lankidetza proiektuak garapen bidean dauden herrialdeetan; eta 2) Proiektuak laugarren munduan.

### 1.2.4.3. Ingeniería Sin Fronteras-Mugarik Gabeko Ingeniaritza (GGKE)

Unibertsitatearen web orrialdeak honako erakunde hauek osatutako zerrenda erakusten du: Mugarik gabeko Arkitektoak; Bionatur; Ingeniería sin Fronteras-Mugarik Gabeko Ingeniaritza;

Sarriko Solidario eta Geólogos del Mundo-Munduko Geologoak. Horien guztien artean, Mugarik Gabeko Ingeniaritza nabarmendu nahi dugu, hezkuntza eraldatzailearen sustapen lana egin ohi baitu Unibertsitatean.

Ingeniería sin Fronteras-Mugarik Gabeko Ingeniaritza (ISF-MGI) 1994. urtean sortu zen. Profesionalez, irakaslez eta ikaslez osatutako Unibertsitate Elkartea eta Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundea da. Oinarrizko zerbitzuetara sarbide unibertsala bermatzeko lan egiten du, Hegoaldeko herrien gizarteak aldatzen eta indartzen lagunduz eta betiere beren ezaugarri kultural eta teknikoak errespetatuz.

Erakunde horren jarduera nagusia Unibertsitatean ematen da "gizarte-eragile aktibotzat hartzen baitu unibertsitatea; ISF-MGIrentzat, lan- eta hezkuntza-espazio horretantxe sortu behar du eztabaidak, espiritu eraldatzaileak, eta eragile guztien parte-hartzeak, gizarte zibil barneratzailea eraiki nahi badugu".

ISF-MGIk, bada, estrategikotzat jotzen du, teknologiaren ondorioz, gizartean eta ingurumenean sortzen diren inpaktuen inguruan eragite eta sentsibilizazio lana egitea. Horrexegatik, Giza Garapenerako Teknologien arloan erakundeak egiten duen lanaren zati handi batek sentsibilizazioa eta GH du helburu. Gainera, gizarte erakunde eta mugimenduekin elkarlanean aritzen da, Unibertsitatea bere rol orientatzailera birbideratzeko helburuz. Horretarako hausnarketarako espazioak sortzen ditu gai honen inguruan: zeintzuk dira herritarrek izan behar dituzten jokabideak, iraunkortasuna eta bizitza duin unibertsala lortzeko.

### 1.2.5. Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetza

Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzak, ofizialki azaltzen duenaren arabera, "Boloniako Prozesuak kalitate, bikaintasun eta lehiakortasun bermeen inguruan ezartzen dituen eskakizunetan oinarrituz, bere jarduera markatzen duen Gizarte erantzukizun eredu bat diseinatzeko konpromisoa hartzen du".

Unibertsitatearen kasuan, gizarte erantzukizunak honako helburu hauek ditu:

- Unibertsitate bizitzako benetako inguruak sortzea, horietan unibertsitate komunitateko pertsona guztiek parte har dezaten.
- Barne eta kanpo komunikazioa hobetzea, unibertsitate komunitatearen parte-hartzea sustatuz, baita ingurune hurbileko gizarte, ekonomia, politika eta kultura eragileen parte-hartzea ere.
- Informazio eta kudeaketa sistemen gardentasuna hobetzea.
- Baliabideak modu efizientean eta ingurumenaren zaintzarekin koherentea den modu batean erabil daitezen sustatzea.
- Inguru akademikoa, zientifikoa, ekintzailea eta berritzailea sortzea, kalitatea, bikaintasuna eta lehiakortasuna handitzen duena.

UPV/EHUren Gizarte Erantzukizun proiektua gauzatzeak honako hau eskatzen du: "unibertsitatearen jardueran berdintasunerako, ingurumenarekiko konpromisorako, garapen

iraunkorrerako, gizarte ekintzarako eta giza eskubideak errespetatzeko politikak txertatzeko konpromisoa".

Errektoreordetza horrek esku-hartzerako bost esparru hauek biltzen ditu: ikasleen kolektiboa; psikologia aplikatuko zerbitzua; enplegu saila; berdintasuna; eta gizarte erantzukizuna. Esparru bakoitzak Zuzendaritza bati dagokio, enplegu saila izan ezik; horrek Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Campusetako Kanpo Harremanetarako Zuzendaritzekin lan egiten baitu.

### 1.2.5.1. Berdintasunerako Zuzendaritza

Unibertsitatean emakumeen eta gizonen eskubideen eta betebeharren berdintasuna bermatzeko, UPV/EHUren Gobernu Kontseiluak Berdintasunerako Zuzendaritza sortu zuen 2006ko ekainaren 15ean.

Bere betekizun nagusietako bat egoeraren diagnostikoak egitea da. Horiek oinarritzat hartzen dira Berdintasunerako Planak diseinatzeko (Unibertsitate politika aztertzen duen atalean azaldu ditugu). Era berean, zuzendaritza horretatik deialdi eta jarduera desberdinak sustatzen dira. Horiek Gizarte konpromisoko ardatzaren azterketan azaltzen ditugu.

### 1.2.5.2. Ikasleen Zuzendaritza

Ikasleen Zuzendaritzaren nahia da "ikasleen garapen pertsonalerako eta prestakuntza osorako laguntza ematea, ikasleen premia eta eskariak kontuan hartuta. Prestakuntza prozesu honetan ezinbestekoa da ikasleei unibertsitateko bizitzarekin zerikusia daukaten arloetan parte hartzeko aukera ematea".

Zuzendaritza horren lana hurrengo zerbitzuen bitartez garatzen da: Ikasleentzako Argibide Zerbitzua; Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua; eta Presondegietan diren Pertsonen Arretarako Zerbitzua.

### 1.2.5.3. Gizarte Erantzukizuneko Zuzendaritza

2014-2015eko Gizarte Erantzukizuneko Zuzendaritzaren jardueren memoriaren arabera, "UPV/EHUk bat egiten du UNESCOk 1988an XXI. Mendeko Goi mailako Hezkuntzari buruzko Mundu Adierazpenean jasotako kezkarekin: Ikuspegia eta Ekintza 1, goi mailako hezkuntzaren misio eta balio funtsezkoak oraindik eta gehiago indartzeko eta sustatzeko; bereziki, garapen iraunkorraren eta gizarte osoa hobetzearen aldeko misioa. Izan ere, hezkuntza da garapen iraunkorra lortzeko aldaketak eragin ahal dituzten tresnarik sendoenetako bat".

Dokumentu berean azaltzen denez, "Unibertsitateko Gizarte Erantzukizunak berekin dakar ingurumen iraunkorrarekin konprometitutako kudeaketa politika ezartzea, eragina izango duena hala prestakuntzan nola ikerkuntzan, ezagutzaren transferentzian eta unibertsitateko eguneroko jardunean. Halaber, gizarteari ildo horretan lortutakoen berri ematea esan nahi du".

Bi dira helburu horiek gauzatu behar dituzten bulegoak: Garapenerako Lankidetza Bulegoa eta Iraunkortasun Bulegoa. Horiez gain, UPV/EHUko Lankidetza Kontseiluak ere laguntzen du.

#### *Garapenerako Lankidetza Bulegoa*

Garapenerako Lankidetza Bulegoa "UPV/EHUk sortu zuen zerbitzua da Garapenerako Unibertsitate Lankidetza (GUL) bultzatzeko, hau da, unibertsitate erkidegoak lankidetzaren

helburu diren gizarteen gaitasunak -unibertsitate eta hezkuntza sektoreen gaitasunak batez ere- indartzeko egiten duen ahalegina bultzatzeko. Egin-eginean ere, bulegoaren helburua unibertsitate erkidegoko kolektibo eta sektore ezberdinek garapenerako lankidetzan gauzatzen dituzten ahaleginak koordinatzea, bultzatzea eta bideratzea da".

Bulego hori egitura txiki bat da Unibertsitatearen barruan. Horrek, bada, Bulegoaren eragiteko ahalmena mugatzen du. Hala, lau pertsonak osatzen dute: Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordea; Gizarte Erantzukizuneko Zuzendaria; Teknikari bat eta Administrari Laguntzaile bat.

Hauek dira zerbitzu horren helburu orokorrak:

- Garapenerako Lankidetza unibertsitate-erakundearen eginkizun sozialaren parte gisa hartzea.
- Elkartasunezko balio unibertsalisten araberako prestakuntza, gizarteen arazoei buruzko eztabaidetan balio horiek txertatzeko eta, hala, ekitate, iraunkortasun eta giza eskubideekiko errespetu gehiago lortu ahal izateko.
- Munduko leku batetik bestera, gizakien garapena zer nolako arazoek baldintzatzen duten ezagutzea, ikertzea eta hedatzea eta, hala, unibertsitateko komunitatea arazo horietaz jabetu dadin ahalbidetzea.
- Garapenerako lankidetzara giza baliabide espezializatuak bideratzea, beste eragile instituzional eta sozial batzuekin batera lan eginda, lankidetzako proiektuak eta programak martxan jartzeko.
- Unibertsitateko komunitatearen baitan elkartasun aktiboa eta lan boluntarioa sustatzea, batez ere ikasleen artean. Hain zuzen ere, ikasleek esparru espezifiko baten barruan boluntario gisa lan egitea ahalbidetu behar da, programa propioak garatuta, edo beste erakunde batzuetara bideratuta.

Helburu horiek lortzeko bulegoak hainbat jarduera jartzen ditu martxan; horietako bat lankidetza proiektuak finantzatzea da. Horretarako, urtero diru-laguntzak eskatzeko deialdi bat egiten du. Diru-laguntzak Irakasle eta Ikertzaileek eta Unibertsitatean izena eman duten elkarteek eska ditzakete. Bulegoaren jarduera nagusietako beste bat ikasleei formakuntza espezializatua ematea da -garapenerako lankidetzari buruzko kurtso monografikoen bitartez-. Horretarako, Unibertsitateko Irakasleen Irakas-Prestakuntza (UIPRE) Programa erabiliko da. Era berean, sentsibilizazio eta hedatze ekimenak ere bultzatzen ditu. Horiek Gizarte konpromisoko ardatza aztertzerakoan aipatuko ditugu.

Lehen aipatu dugun bezala, UPV/EHUk ez du Garapenerako Lankidetza eta Hezkuntza Planik. Hori interesgarria izan daiteke Unibertsitatearen eta, bereziki, Garapenerako Lankidetza Bulegoaren jarduera planifikatze aldera.

Planifikazio eta ebaluazio lanetan laguntzeko oso erabilgarria da txosten diagnostikoak edukitzea. Horietatik, bada, hurrengo urteetarako erronkak eta, hortaz, ekintza planak atera daitezke. Helburu horrekin, hain zuzen ere, 2011an, *Garapenerako Lankidetza UPV/EHUn. 0. diagnostikoa* dokumentua egin zen. Hala ere, 5 urte igaro diren arren, ez da egin denaren berri ematen duen edo aldaketak eta erronka berriak identifikatzen dituen berrikuspenik egin.

*Iraunkortasun Bulegoa*

Iraunkortasun bulegoa sei pertsonak osatzen dute: Enpleguaren, Ikasleen eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordea; Gizarte Erantzukizuneko Zuzendaria; hiru teknikari; eta administrari bat. Zerbitzu horretan Garapenerako Lankidetza bulegoan baino langile gehiago dago.

Bulegoak Garapen iraunkorra, Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza eta horrelako kontzeptuak erabiltzen ditu. Hala, NBEko Bruntland Komisioaren Txostena aipatzen du eta horren arabera Garapen Iraunkorra honela definitzen du: "Garapen mota bat da, egungo belaunaldiaren beharrak asetzen dituena, etorkizuneko belaunaldiek beren beharrak asetzeko izango duten ahalmena konpromisoan jarri gabe".

Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza lantzeko irakaskuntza eta ikasketa prozesuan gai hauek txertatzea proposatzen du: klima aldaketa, hondamendiak gertatzeko arriskua murriztea, bioaniztasuna, pobrezia murriztea eta kontsumo jasangarria. Horrek eskatzen du "pentsamendu kritikorako, etorkizunera begira hipotesiak egiteko eta erabakiak kolektiboan hartzeko gaitasunak garatzea".

Bere helburuen artean unibertsitateko curriculumean iraunkortasuna txertatzeko asmoa nabarmendu nahi dugu. Horretarako, aldez aurretik, irakasleekin lan egin beharko du honen inguruan hausnartzeko: nola eta zer nolako tresnen bitartez lor daiteke tituluen eduki akademikoan eragin zuzena izatea. Buelgoak Ikasketa Zerbitzua erabili nahi du unibertsitate curriculuma iraunkor egiteko tresna gisa. Ikasleekin egindako lana honako hauetan oinarritu da: unibertsitateetan ingurumenaren kudeaketa hobetzeko gaiei buruzko prestakuntza, Praktika programetan parte hartzea eta Ingeniaritza ikasketetan Garapenerako Lankidetzari buruzko gradu amaierako lanak, dagoeneko desagertu direnak.

Azkenik, bulego horrek Garapenerako Hezkuntzaren arloko Goi mailako Hezkuntza sareetan parte hartu du, esaterako, *UE4SD University Educators for Sustainable Development* proiektua sustatu duen "Copernicus Alliance" Sarean. Proiektu horren helburua, Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza gida bat egitea da, praktika akademikorako eta unibertsitate curriculumerako.

### 1.2.6. Hedakuntzaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetza

Hedakuntzaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzaren eskumenen artean honako hauek aurkitzen dira:

- Unibertsitatearen irudi korporatiboaren kanporako proiekzioa.
- Eztabaida-foroak eta gizartearekin elkarretaratzeko guneak.
- Nazioarteko Bikaintasun-campusaren proiektua.
- ehuTALDEA artikulatzeko politika.
- Publiko eta pribatuaren arteko lankidetza, erakunde-katedrak, unitate mistoak eta unibertsitate eta gizarte-ikasgelak sortzea eta, hala behar denean, unibertsitatearen enpresa-ekimenak sortzea.

Jarraian diagnostiko honi zuzenean dagozkion eskumenen inguruko informazioa biltzen dugu: EhuGUNE eztabaida foroak eta erakunde arteko katedrak. Aurrerago ikusiko dugun bezala, horiek jarduera puntualak garatzen dituzte eta izaera marjinala dute unibertsitatearen egituran.

### 1.2.6.1. EhuGune

EEhuGune UPV/EHUren eta jendartearen arteko topagune bat da. Horren helburua estrategikoak edo lehentasunezkoak diren gizarte, kultura, ekonomia eta politika gaiak lantzea da; elkarrekin arazo horiek aztertzea, diagnosiak eta proposamenak denon artean elkarbanatzeko asmoz. Bere helburuen artean hau da nagusi: "unibertsitatearen eztabaida berreskuratzea irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren eremu formal eta arautuetatik haratago eta honatago".

Bere jarduera hiru bloke tematiko hauen inguruan antolatzen da: Biolentzia Euskadin eta UPV/EHUn (barrurabegira); Krisiak (diagnosia); EuskalHerria 2050 (aurrerabegira). Hala ere, egiten duten lana ezagutzea ez da erraza, web orrialdean dagoen informazioa ez baitago eguneratuta. Dakigunez, bloke horietako batzuk desagertu dira eta, aitzitik, beste batzuek, esaterako EmaGune-k (emakumeak, gatazka, bakea) -askoz ere aktiboagoa-, ez dute bere jarduerari buruzko informazioa web orrialdean.

### 1.2.6.2. Erakunde arteko katedrak

LErakunde arteko Katedrak nortasun juridikorik gabeko unibertsitate-egiturak dira, Euskal erriko Unibertsitateak eratuak; haien arauak bai egitura bakoitza sortzeko akordioan ezarritakoak eta bai "Nortasun juridikorik gabeko egitura eta erakundeen funtzionamendurako oinarrizko araudian" ezarritakoak dira. Katedra hauek bi helburu dituzte: gizartean ikertzea eta jakintza dibulgatzea. Ez daude Errektoreordetzaren menpe. Hortaz, katedrak horietako hiruk garatzen dituzten garapenerako lankidetza proiektuak -kasu gehienetan- Unibertsitateaz kanpoko zenbait erakundek finantzatzen dituzte.

Unibertsitateak UPV/EHUko katedra eta UPV/EHUko UNESCO katedrak bereizten ditu. Atal honetan ikerketa honen lan eremuarekin lotura duten horiek aztertzen ditugu.

| **UPV/EHUko Nazioarteko Ikasketen Katedra** | **Garapen Iraunkorrari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCO Katedra** |
|---|---|
| Nazioarteko Ikasketen Katedra 2004. urtean sortu zen, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko hitzarmena sinatzearen ondorioz. Bere helburua ideiak sortzea, ikuspegi kritikoa garatzea, informazioa eskaintzea eta nazioarteko gaien inguruan iritzi publikoa sentsibilizatzea da, mundu globalizatu batean euskal gizartearen ekintzak hobetzeko asmoz.<br><br>Zehaztasun zientifikoan, diziplina artekotasun eta gizartearen kezkekiko loturan oinarrituz, Nazioarteko Ikasketen Katedrak konpromiso tinkoa du "zenbait balioekiko, hala nola: bakea, justizia, elkartasuna eta aniztasuna".<br><br>(Formakuntza jarduerei buruzko informazioa 1. eranskinean aurkitzen da). | Garapen Iraunkorrari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCO Katedra honen helburu nagusia da ikerkuntza, prestakuntza, informazio eta dokumentazio jarduerez osatutako sistema integratu bat bultzatzea, garapen iraunkorraren eta ingurumen hezkuntzaren alorrean, goi mailako eta nazioarteko ikertzaileen eta Unibertsitateko irakasleen arteko lankidetza sustatuz.<br><br>Katedra horrek, 2015-2016 urte akademikorako, Ingurumenari eta Jasangarritasunari buruzko graduondoko berezko titulazioa eskaintzen du UPV/EHUko Landareen Biologia eta Ekologia Saila batera. Era berean, 2014an eta 2015ean bi proiektu gauzatu ditu UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Bulegoaren laguntzaz.<br><br>(Proiektuei buruzko informazioa 2. eranskinean) |

| Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra | Komunikazioaren eta Hezkuntza Balioen UNESCO Katedra |
|---|---|
| UPV/EHUren Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedrak ikerketa, formazioa, informazioa eta dokumentazio-lanak garatzeko helburua du, Munduko Hizkuntza Ondarea eta haren egoera ezagutzera emateko. Gainera, hizkuntza minorizatuak dituzten eta aholkularitza eskatzen duten komunitateei arreta ematen diete, gehienbat, irakasle indigenak trebatuz.<br><br>Katedra honek proiektu desberdinak garatu ditu; lankidetzako proiektu batzuk Kolonbia eta Guatemalarekin hezkuntza elebidunaren inguruan eta beste bat garapenerako lankidetzako proiektuetan hizkuntza aniztasunaren irizpidea txertatzeko proposamenari lotuta.<br><br>(Proiektuen inguruko informazioa 3. eranskinean). | Komunikazioaren eta Hezkuntza Balioen UNESCO Katedrak, bere heziketa jardueren bitartez, "gogoetarako eta ezagutzen trukerako espazioa izan nahi du komunikazioaren eremuan, begirune unibertsala eta giza eskubide nahiz oinarrizko askatasun guztiak sustatzeko eta indartzeko asmoz, eskubide zibilak, politikoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak barne". Beste alde batetik, bere ikerketa jarduerari dagokionez, herritartasunaren, bake-hezkuntzaren, demokrazia-balioen eta giza eskubideen kontzeptuekin bat datozen ikerketa eta analisiak egingo ditu, hezkuntza-sistemak, ikasketa-planak eta ikasmaterialak hobetzeko asmoz |

## 1.2.7. Ikerketa arloko Errektoreordetza

Errektoreordetza hori bat dator UPV/EHUren misioarekin garapen sozioekonomikoari dagokionez. Bere web orrialdearen arabera: "Unibertsitateko ikerketa-taldeek lehen-mailako ikerketa-lana egiten dute, egitasmo publiko zein pribatuetako deialdietan parte hartuz. Gainera, gure Unibertsitateak lankidetza-hitzarmenak egin ditu ikerketa-zentroekin eta kontratuak sinatu ditu hainbat enpresa eta erakunderekin, ikerketa-emaitzak eskualdatzeko, zientzia- eta teknologia-arloetan lankidetza bultzatzeko eta I+G gaietan aliantza estrategikoak finkatzeko". Errektoreordetza horren helburu estrategikoen artean, azpimarratzekoak ditugu bikaintasunean oinarritutako ikerketa garatzea eta ezagutzak sortzeko eta ezagutza horiek enpresei zein erakundeei eskualdatzeko laguntza eskaintzea.

Hala, bere jardueraren zati nagusi bat enpresa munduari lotutako ondasun eta zerbitzuak ekoiztera bideratzen du. Nazio mailako eta nazioarteko kapitalismoaren eremuan arituko diren profesionalak lehiakortasunaren eta bikaintasunaren idealen arabera trebatzen ditu. Era berean, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen jarduera koordinatzen du eta bost zuzendaritza hauen bitartez egituratzen da: Ikerketaren Gestioko Zuzendaritza; Ikerketako Zerbitzu Orokorren Zuzendaritza (SGIker); Enpresarekiko Harremanetarako Zuzendaritza; Nazioarteko I+G Bulegoa (EHUrOPE); eta Ikerketa eta Irakaskuntzako Etikaren Zuzendaritza.

Ikerketaren Gestioko Zuzendaritza Unibertsitate osoko ikerketa jarduera koordinatzeaz arduratzen da eta Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeari eta UPV/EHUko Etika Batzordeari sostengua ematen die. Prestakuntza eta Ikerkuntzarako Unitateak zuzendaritza honen parte dira eta, aldi berean, beste egitura batzuez osatuta daude -3 gutxienez-. Egitura horiek Unibertsitate Institutuak edo Eusko Jaurlaritzako Finkatutako Ikerketa taldeentzako deialdiko Ikerketa taldeak izan daitezke.

Ikerketako Zerbitzu Orokorren Zuzendaritza, Enpresarekiko Harremanetarako Zuzendaritzarekin batera, enpresen esanetara dago. Hala, hainbat zerbitzu eskaintzen die, hala nola, laguntza I+G arloan, aholkularitza, Unibertsitate-enpresa gelak -enpresek berek beren I+G+b jarduerak sustatzeko sortuak eta babestuak-.

Enpresarekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren bitartez, Ikerketaren Emaitzak Eskualdatzeko Bulegoa (IEEB) sortzen da eta horren bidez "inibertsitateko [sic] ikerketetan sortutako jakintza enpresen eta erakundeen esku jartzen da". IEEBk enpresa horiekin lankidetza kontratuak tramitatzen ditu. Unibertsitateak, bere web orrialdean, hau adierazten du du: "Ikerketako hainbat kontratu eta proiektu nazional eta nazioartekotan sortutako jakintzari esker, EHU gizarte-premien abangoardian kokatzen da".

Nazioarteko I+G Bulegoa (EHUrOPE) ere Ikerketaren arloko Errektoretza horretatik sortu zen "ikertzaileen komunitateak nazioarteko programetan parte hartzea sustatzeko", bereziki, Europar Batasuneko Zazpigarren Programa Markoan.

### 1.2.7.1.Unibertsitate institutuak

Unibertsitateak 18 institutu onartzen ditu. Horien artean, hiruk Garapenerako Hezkuntzaren eta Hezkuntza Emantzipatzailearen arloetan egiten dute lan. Honako hauek dira: Delinkuentziari, Marjinalitateari eta Gizarte Harremanei buruzko Ikerketaren Nazioarteko Zentroa; GEZKI Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua; eta Hegoa, Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutua.

| |
|---|
| **Delinkuentziari, Marjinalitateari eta Gizarte Harremanei buruzko Ikerketaren Nazioarteko Zentroa**<br><br>1993an sortu zen eta bere helburuen artean hau azpimarratu nahi dugu: nazioarteko harremanak areagotzea delinkuentziaren, marjinalitatearen eta gizarte harremanen eremuan egindako ikerketa zientifiko guztiak hedatzeko, horien dimentsio soziologikoa azpimarratuz. Horrez aparte, helburu nagusietako bat gizabanakoen eta herrien garapen ekonomiko, sozial eta kultural justuago eta baketsuago bat lortzeko balio duen diziplina anitzeko ikerketa da. |
| **GEZKI Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua**<br><br>GEZKI Institutua 1999an sortu zen Gizarte Ekonomia, bere arlo eta zentzu guztietan, ikerketari, irakaskuntzari eta sustapenari lotutako unibertsitate jardueran barneratzeko asmoz. Bere helburua Euskal Herriko Gizarte Ekonomia osatzen duten erakundeen ekonomia, enpresa, zuzenbide, soziologia eta antolaketaren azterketa zientifikoa egitea da. Institutu horren baitan eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz, GEEB Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokia sortu zen. Horren helburu nagusia Euskal Gizarte Ekonomiaren inguruan informazio zehatza eta jarraitua eskaintzea da, sektore hori bistaratuz eta horretan dauden eragile desberdinen adostasuna sustatuz. |
| **Hegoa, Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutua**<br><br>Institutu horren helburuak eta lanaren edukiak Unibertsitateko lankidetza instituzio eta erakundeen inguruko 1.2.4.1. atalean azaldu ditugu. |

### 1.2.7.2. Eusko Jaurlaritzako Ikerketa Talde finkatuak

Guztira 209 ikerketa talde finkatu dago. Horien artean, lau hauek bakarrik lantzen dituzte Hezkuntza Emantzipatzailearekin erlazionatutako edukiak eta gaiak: 1. Giza Segurtasuna, Tokiko Giza Garapena eta Nazioarteko Lankidetza; 2. Garapenerako Lankidetzarako Politiken Analisia; 3. Parte Hartuz; eta 4. Donostia Research group on Education and Multilingualism. Lehenengo biak Hegoa institutukoak dira.

| 2. taula. Eusko Jaurlaritzako Ikerketa Talde finkatuak | | | |
|---|---|---|---|
| Kodea | Titulua | Saila | Arduraduna |
| GIC10/128 | Garapenaren eta nazioarteko lankidetzaren eremuan gero eta garrantzia handiagoa duten bi kontzepturen analisia: Tokiko Giza Garapena eta Giza Segurtasuna (Hegoa) | Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia | Karlos Pérez Alonso de Armiño |
| GIC10/162 | Garapenerako lankidetzako programen eta politiken analisia eta ebaluazioa (Hegoa) | Ekonomia Aplikatua I | Koldo Unceta Satrustegui |
| GIC10/23 | Parte Hartuz, herritarren parte-hartzeari buruzko ikerketa eta prestakuntza talde finkatua | Politika eta Administrazio Zientzia | Ignacio Barcena Hinojal |
| GIC10/37 | Donostia Research on Education and Multilingualism taldeak hezkuntza testuinguruan hizkuntz aniztasunaren eta kultura aniztasunaren inguruan ikertzen du | Hezkuntzaren Teoria eta Historia | Durk Gorter |

Iturria: Egileak, UPV/EHUko web orrialdeko datuak erabiliz.

### *Giza Segurtasuna, Tokiko Giza Garapena eta Nazioarteko Lankidetza (Hegoa)*

Ikerketa talde hori Hegoa Institutuak sustatzen du. Garapenari buruzko eta Bakeari eta gatazkei buruzko Ikasketen artean kokatzen da. Hain zuzen, garapenaren eta nazioarteko lankidetzaren eremuan gero eta garrantzia handiagoa duten kontzeptu bi lantzen ditu, hain zuzen, Tokiko Giza Garapena (TGG) eta Giza Segurtasuna (GS). TGG globalizazioa beste gako batzuen arabera eraikitzeko estrategia berritzailea da. Garapenean eta tokiko komunitateak boteretzean oinarritzen da. Bestalde, GS segurtasun paradigma berri bat da, pertsonetan eta giza garapenean oinarritze dena.

Lan horrek bi alderdi hauek ditu: teoriko eta enpirikoa eta bost lan ildo zabaltzen ditu: a) Alderdi teorikoa. Kontzeptu bi horien esanahia, beren ikuspegi teorikoak, ekintza politikarako eta garapenerako lankidetzarako duten ahalmena eta izan daitezkeen interrelazioak aztertzea (1. ildoa). b) Alderdi teoriko eta enpirikoa. Zenbait herrialde ahuletan egindako kasu azterketen arabera (Kolonbia, Guatemala, Bolivia, Mozambike, etab.), TGG eta GS hartzen dira honako hauek aztertzeko analisi kategoria gisa: ekonomia sozial eta solidarioaren ahalmenak (2. ildoa); merkataritza eta inbertsioko nazioarteko akordioek sustatutako liberalizazio ekonomikoak giza garapenean duen inpaktua (3. ildoa); bakegintza prozesuak eta trantsiziozko justizia (4. ildoa); eta emakumeen parte-hartzea gatazketan eta bakegintzan (5. ildoa).

### *Garapenerako Lankidetzarako Politiken Analisia (Hegoa)*

Ikerketa talde hau ere -aurrekoa bezala- Hegoa institutuak sustatzen du. Garapenerako lankidetzaren eta horri lotutako politiken azterketa teorikoa eta praktikoa lantzen du, arreta gehiena estatuz azpiko instituzioei emanez. Talde horrek, azken urteotan zehar, ikerketa proiektuak, aholkularitza txostenak, doktore tesiak, instituzio publikoei politikak diseinatzeko eta martxan jartzeko aholkularitza, argitalpenak eta beste zenbait lan egin ditu. Honako hauek izan dira gai nagusiak:

- Garapenaren eta inguruko eztabaida kontzeptualak eta horiek lankidetza politiketan izan duten eragina.
- Nazioarteko Garapen Agendan emandako aldaketak eta Milurtekoko Garapen Helburuetatik Garapen Iraunkorreko Helburuei igarotzearen ondorioak.
- Nazioarteko Garapenerako Laguntza Ofizialaren sistemaren krisia eta horren erreformari buruzko eztabaida.
- Garapen politiken koherentziaren eta horrek garapen politikekin duen harremanaren inguruko eztabaidak.
- Estatuz azpiko lankidetzaren papera eta hori garapenerako lankidetzan eta agendan egindako aldaketei moldatzeko modua.
- Zenbait eragileren paper berria: Gizarte Zibileko Erakundeak, Unibertsitatea, tokiko erakundeak, etab.
- Lankidetza politiken kudeaketa eta ebaluazio sistemak.

*Parte Hartuz*

Parte Hartuz Politika Zientzia Sailera adskribatutako diziplina arteko ikerketa talde anitz bat da. Talde horren interes nagusia, 2003an sortu zenetik, demokrazia prozesu desberdinak ikuspegi bikoitz batetik aztertzea da: alde batetik, politikaren paradigmaren krisia eta tokiko gobernantza modu berriak gauzatzea; eta bestetik, herritarren boteretze prozesuak, gizarte mugimenduak eta politika publikoetan dituen eragina.

Talde horrek, bada, lau ikerketa ildo ezarri ditu eta ikerketa azpitalde desberdinek horiek jorratzen dituzte: lehenengoa politika publikoei lotuta dago; bigarrena demokraziari eta arauketa eskala desberdinei; hirugarrena parte-hartze prozesuen mikro ikuspegian ardazten da; eta azkenik, aurrekoetatik elikatzen den ildo bat, demokrazia eredu desberdinen inguruan hausnarketa sustatzen duena. Gizarte eta ingurumen gatazken inguruko kezkaz gain, generoko dimentsioa funtsezkoa da; izan ere, horren zeharkakotasuna erabatekoa da ikerketa ildo guztietan eta parte-hartze espazio eta prozesu guztietan.

Ikerketa jardueraz gain, Parte Hartuz taldeak prestakuntza lan handia egiten du. Izan ere, bi Master Ofizial eskaintzen ditu; horien artean, diagnostiko honekin duen lotura dela eta, Partaidetza eta Komunitate Garapen Unibertsitate Masterra nabarmendu nahi dugu.

*Donostia Research group on Education And Multilingualism (DREAM)*

Donostia Research group on Education And Multilingualism (DREAM) ikerketa taldeak hezkuntza testuinguruan eleaniztasunaren alde desberdinak aztertzen ditu. Hala, eskola curriculumean eta familiartean erabilitako hizkuntzen gaitasun linguistikoa eta komunikatiboa aztertzen du. Diziplina arteko izaera argia du; izan ere, taldea osatzen duten pertsonen gai hauetan dira adituak: hizkuntza minoritarioak eta hezkuntza multikulturala, kultura aniztasuna eta ikasle immigranteen hizkuntzak, estatistika eta ebaluazioa, familia aholkularitza eta eskola, hezkuntza eta eskola antolamendua. Hauek dira talde horren hiru ikerketa ildo nagusiak: hezkuntzan gaitasun eleaniztuna aztertzea; hizkuntzak ikastea eta eskola arrakasta ikasle immigranteen artean; eta hizkuntza paisaia eta eleaniztasuna eskola testuinguruan.

### 1.2.7.3. Beste ikerketa talde batzuk

Eusko Jaurlaritzako ikerketa talde finkatuez gain UPV/EHUn beste hainbat talde dago. Horien artean, zenbaitek, kalifikazio hori lortu ez duten arren, ikerketa jarduera sendoa garatzen dute. Honako hauek dira ikerketa honen ikuspegiarekin lotura handiena dutenak:

*Urban Elika-Elikagaiak denontzat*

Urban Elika-Elikagaiak denontzat Gizarteari eta Elikadurari buruzko Ikasketak ikertzen dituen talde bat da. Bere helburua, jendarte hiritarretan, pertsonek elikagai osasungarriak eta nahikoak lortzea oztopatzen duten elementu instituzional, juridiko, sozioekonomikoak eta teknikoak ezabatzea da. Bere jarduera honako ikerketa ildo hauetan ardazten da:

- Elikadura laguntzetan erlijio, gizarte eta kultura aniztasuna kontuan hartzea
- Elikatzeko giza eskubidea
- Soberan dauden elikagaiak birmoldatzeko estrategiak.
- Ekonomia zirkularra.
- Hiri eremuan elikagaiak eskuratzeko aukerak hobetzeko estrategiak.
- Elikagaiak zarrasteltzea murriztea: erronkak eta estrategiak.
- Elikadura burujabetza.

*Latinoamerika eta Kariberi buruzko Ikerketa Taldea (GEALC)*

Latinoamerika eta Kariberi buruzko Ikerketa Taldea (GEALC) Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremana eta Zuzenbidearen Historia Saileko doktoregai eta irakasle desberdinen ekimen bat da. Taldeko kideek, ikuspegi eta ikuspuntu desberdinetatik bada ere, eskualde horren iragana, oraina eta geroa dute interes komuna.

*Civersity Ikerketa Taldea*

Civersityk hiria hartzen du laborategi pribilegiatu gisa eta, hala, gizarteetan ematen ari diren eraldaketa instituzionaletako batzuk aztertzen ditu, hiru dimentsio handi hauetan oinarrituz:

1. Dimentsio material bat: enpleguari eta hezkuntzari lotutako gizarteratze egitura eta prozesuen krisia.
2. Dimentsio soziokultural bat: besteak beste inmigrazio fenomenoagatik gero eta anitzagoak diren gizarteetan gizarte kohesioaren erronka.
3. Dimentsio espazial bat: hiriek gizarteratze eta kohesio gaitasunak eta estrategiak garatzeko politika berri baten aukerak.

*Oinarrizko Eskubideak eta Europar Batasuna*

Hauek dira talde honen ikerketa ildoak:

- Oinarrizko Eskubideak eta Europako Integrazioa.
- Oinarrizko Eskubideak eta Europako Konstituzionalismoa.

- Europako Espazio Judizial Penala.
- Europako Komunitateen Justizia Auzitegia eta Giza Eskubideen Europako Auzitegia.
- Oinarrizko Eskubideak eta Komunitate mailako Legegilea.
- Europako Integrazioa eta Inmigrazioa.
- Garapenerako lankidetza, Giza Eskubideak eta Europako Integrazioa.

### *Gobernantza Demokratikoa*

Gobernantza Demokratikoko ikerketa taldeak sostengua ematen dio Globernance Institutuari. Institutu hori hausnarketa, ikerketa eta ezagutza hedatzeko zentroa da eta ikerketa jarduera desberdinak egiten ditu; besteak beste, gobernantzaren ideiaren inguruan kurtsoak, *workshop*-ak eta konferentziak, mundu, Europa, nazio eta tokiko mailan. Gobernantza, zentzu zabalean, gizarte ekintzaren eta gaur egungo gizarteak gobernatzeko moduen aldaketa sakona da. Horiek, bada, estatuak, merkatuak eta gizarteak konfiguratutako eremu batean birkokatu behar dira, baita globalizazioaren, europeizazioaren eta interdependentziaren eraginpean dagoen testuinguru batean ere.

### *Hezkuntzako Azterketa Historiko eta Konparatuen Taldea (Garaian)*

Hezkuntzako Azterketa Historiko eta Konparatuen Taldea (Garaian) 2000an eratu zen, bi ikerketa-ildo hauen inguruan: Euskal Herriko Hezkuntzaren Historia (ibilbide luzekoa) eta Haurren Eskubideei buruzko Ikerketa Konparatuak. Taldeak xede zehatz batekin egin ditu ikerketa, eskualdatze eta zabalkunde lanak, hain zuzen ere, hainbat eremutatik abiatuta (testuen analisia, historia-ondarea, azterketa konparatuak, etab.), Euskal Herriko hezkuntzaren historiari buruzko jakintza-eremu bat eraikitzeko. Era horretan, Euskal Herriko hezkuntzak duen garrantzia gero eta agerikoagoa izatea lortu nahi du.

### *IkasGura, hezkuntza aldaketa unibertsitatean*

IkasGura: hezkuntza aldaketa unibertsitatean UPV/EHUko ikerketa talde finkatua da (GIU 14/17), eta urteetan zehar proiektu eta jarduera desberdinen inguruan aritutako ikerlariak biltzen ditu, ikerlari berriagoekin batera. Taldeak eskarmentu handia du etengabeko prestakuntzaren arloan, bereziki Goi-Mailetan eta hezitzaileen etengabeko prestakuntzan. Une honetan gure interes nagusia unibertsitate arloan zehaztu dugu hiru eremu nagusitan: 1) Unibertsitateko irakasleen identitatea eta lanbide garapena; 2) Garapen instituzionala; eta 3) Curriculumaren berrikuntza.

### *Gizarte eta Hezkuntza Inklusioko Ikerketa Taldea*

Gizarte eta Hezkuntza Inklusioko Ikerketa Taldea 2010ean sortu zen aurretik sortzen ari ziren bi taldeko kideak batuz. Hauek dira, besteak beste, bere helburuak:

- Ikerketa aplikatuaren, prestakuntzaren eta informazioaren dibulgazioaren, trukearen eta eztabaidaren bitartez, Hezkuntza inklusiboaren kalitatea hobetzen laguntzea.
- Unibertsitate ikerketaren eta gizarte eta hezkuntza profesionalen praktiken artean ezagutza parteka dezaten sustatzea. Horren bitartez egoera ahulean dauden pertsonen eta kolektiboen gizarte eta hezkuntza inklusioa laguntzeko politikak, praktikak eta prestakuntza hobetu nahi dute.

- Gai beraren inguruan ikertzen duten beste ikerketa talde eta sareekiko harremana sustatzea.

Hiru ikerketa ildo garatzen dituzte:

- Hezkuntza inklusiboa
- Egoera ahulean dauden kolektiboen esklusio-inklusio prozesuak.
- Gizarte eta hezkuntza inklusioaren eremuko profesionalak prestatzea.

*Hezkuntza prozesuen planifikazioa, garapena eta ebaluazioari buruzko ikerketa taldea, CUDEA*

CUDEA EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko ikerketa-talde gisa sortu zen, bere jakintza arloan kultura eragile aktibo izateko bokazioarekin; hedatzeko borondatearekin eta gizarte eta hezkuntza eztabaidetan parte hartzeko konpromisoarekin; eta Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren Jarduerarekin konprometitua. Hauek dira bere ikerketa ildoak:

- Prestakuntza eta curriculuma
- Gizarte eta hezkuntza gaitasunak
- Hezkuntza inklusioa
- Berrikuntza gizarte eta hezkuntza prozesuetan
- Teknologia berriak gizarte eta hezkuntza prozesuetan

*Elkarrikertuz*

Teknologia berriak erabiltzen dituzten hezkuntza berrikuntza eta hobekuntza aztertzen duen ikerketa taldea da. Horretarako pedagogikoki gidatutako hausnarketa prozesuak erabiltzen ditu. Hauek dira bere ikerketa ildo nagusiak:

- Irakaskuntza-Ikaskuntza Prozesuak Teknologia Digitalen Bitartez
- Hezkuntza Berrikuntza Testuinguru Formaletan eta Informaletan
- Irakasle Prestakuntza eta Nortasuna

*Tratu onen, berdintasunaren eta herritartasunaren aldeko hezkuntza*

Hauek dira ikerketa talde honen ikerketa ildoak:

- Autonomiari, tratu onari eta herritarren gaitasunei buruzko ikerkuntza, genero ikuspegitik egina, aldi batetik prebentziorako eta, bestetik, tratu txarrei eta eraso eta jazarpen mota desberdinei (eraso zuzena, harremanetako erasoa, ziber-jazarpena) aurre egiteko. Batetik, ikasle, irakasle eta familiek prebenitu eta aurre egiteko estrategiak ebaluatzeko lana egiten du. Bestetik, taldeak gaitasun sozial eta pertsonalak hobetu eta aurre egiteko estrategiak lantzeko sortutako hezkuntza esku hartzeko programen eraginei buruzko ikerkuntza ildo bat ere badu.
- Eskolako curriculumean eta, batez ere, eskola-liburuetan agertzen diren gaitasun sozial eta pertsonalei eta herritarrentzako hezkuntzari buruzko ikerkuntza.

- Gaitasun sozial eta pertsonalei eta herritartasunerako gaitasunei buruzko ikerkuntza, trebatzaileen trebakuntzaren alorrean.
- Gizarte babes gabeziako egoera larrian dauden adin txikiko pertsonei eta euren familiei zuzendutako hezkuntza esku-hartzeari buruzko ikerkuntza.
- Familia eta eskolaren arteko harremanei buruzko ikerkuntza, taldean gurasoak trebatzeko programen metodologiari buruzkoa, eta talde horietako monitorizazio eta dinamizazio esperientzia batzuei buruzkoa.

### *Ekonomia Ekologiko eta Ekologia Politikorako Ikerketa Taldea, EKOPOL*

EKOPOLen misioa "gizartearentzat baliagarria izatea da, ikerketa zehatz eta independentea eginez; ebidentzia zientifikoan oinarritutako erabakiak hartzen lagunduz; jendartearen beharrei eta eskakizunei erantzuten dieten kalitatezko zerbitzuak eskainiz; *think-tank* bat izanez; eta giza garapen iraunkor baten alde modu aktiboan lan eginez".

Etorkizunari begira, hau da taldearen helburua: bikaintasuneko ikerketa komunitate transdiziplinarra izatea; nazioartean aintzat hartzen dena bere lanen kalitatea eta independentziagatik eta gizarte eta ekonomia jardueraren eta naturaren arteko harremanen ikerketa eta ezagutza garatzeagatik; gizarte eta ingurumen arazoen aurrean, irtenbide berritzaileak ematen dituena diskurtso berri bat erabiliz; eta mundu osoaren iraunkortasunari laguntzen diona.

### *Ilusionista Sozialen Mintegia*

Ilusionista Sozialen Mintegia Ikerketa eta Formazio Talde bat da. Ikerlanak eta ikaslanak egiten ari diren pertsonen arteko laguntza errazteko modu bat da, ezagutza eta jakintzak kolektiboki eraikitzeko. Eguneroko espaziortan eta denboretan topaketak gerta daitezen lan egiten dute, eztabaidarako espazioak zabaltzeko eta askotariko moduetan biltzeko, irakaskuntzaren eta ikerketaren ikuspegi dialektikoan lan eginez. Ilusionismo sozial izenez ezagutzen dugun hori egiteko modu bat da (ez metodologia bat) dimentsio dialektikoan oinarritzen dena, abiapuntutzat partaidetza metodologiak dituena (Partaidetzazko Ikerketa-Ekintza, bereziki) eta lana kultura herrikoei begira garatzen duena.

Ikerketa eta formazio taldearen inguruko zenbait orientazio:

- Partaidetza eta boteregabetzea zeharkako ardatz gisa duten lan egiteko modu aplikagarriak ikastea, parte hartzen duten pertsonen lan eta bizi eremuetan baliagarriak izango direnak.
- Partaidetza eta boteregabetze moduak eraikitzea, irakaskuntzarako, ikerketarako eta kolektibo eta mugimendu sozialetarako baliagarriak izango direnak.
- Ilusionismo sozialaren eta boteregabetzearen kontzeptuak hedatzea eta kontzeptu hauen garapen eta aplikazio berriak kolektiboki eraikitzea.
- Eztabaida konplexuak probokatzea parte hartzeko, hezteko, boteregabetzeko, zientzia eraikitzeko eta gizartean partaidetzaren bidez esku hartzeko modu desberdinen inguruan.
- Pentsatze, sentitze eta egiteen inguruan egindako ekarpenak, aurrerapenak, kontzeptualizazioak eta transferentziak askotariko formatuetan (ahozkoak eta idatzizkoak) komunikatzea.

- Gradu Amaierako Lanetan, Master Amaierako Lanetan eta antzerakoetan laguntzea, orientazioa emanez, eta bizikidetza sustatzen duten lan komunitarioen garapena bultzatzea, hedatzea eta partekatzea.

## 1.2.8. Graduondoko Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko Errektoreordetza

Errektoretza honek gradu ikasketekin eta hezkuntza berrikuntza politikekin harreman duen guztiaz arduratzen da. Hori, Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuaren (SAE/HELAZ) eta beste zenbait egituraren bitartez egiten du.

Hauek dira Errektoreordetza horren eginkizunak eta eskumenak:

- Graduko ikasketak egiaztatu, baimendu eta akreditatzeko administrazio prozesuak zuzentzea, koordinatzea eta kontrolatzea.
- Unibertsitaterako sarrera, onarpena, matrikula, espediente akademikoak eta ikasleen bekak kudeatzea.
- Unibertsitateko ikasketa ofizialeko unibertsitate tituluak kudeatzea.
- Arautegi akademikoak onestea.
- Irakaskuntzaren kalitatea zaintzea, berrikuntzarako programak ezarriz eta laguntzarako erremintak eskainiz.
- Irakas-jardueraren ebaluazio prozesua egitea.
- Graduko batzordeko burua izatea.

### 1.2.8.1. Graduko Ikasketen Zerbitzua

UPV/EHUk 96 graduko titulu eskaintzen ditu. Horiek Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan kokatutako 36 ikastegien artean banatzen dira. Ikasketa eta Gradu desberdinei buruzko informazioa eta azterketa Prestakuntza eta unibertsitate irakaskuntzari buruzko 1.3.1. atalean aurkeztuko dugu.

### 1.2.8.2. Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzua (SAE/HELAZ)

Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuaren zeregin nagusia unibertsitateko irakasleei irakaskuntzaren eremuan hasierako prestakuntza eta prestakuntza etengabea ematea da, IKD hezkuntza ereduaren parametroak erabiliz. Horretarako zenbait programa ditu UPV/EHUko irakasleentzat, hala nola, Eragin eta UIPRE (irakasle berriak prestatzeko jarduerak). Irakasleen garapen profesionalaren ildo horretatik beretik egiten du Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuen deialdia (HBP). Gainera, ikastegientzat aholkularitza-lanak ere egiten ditu, orientazioa eta laguntza ardaztua eskainiz koordinazioa sustatzeko, ikastegietako prestakuntza ikastaroak edota planak diseinatzeko eta curriculuma aldatzea eta berritzea xede duten erakunde-proiektuak garatzeko. Ekintza horien erreferentziazko puntu nagusia ehundu programa da.

2011-2012 ikasturtean, IKD ereduaren baitan IKD GAZtE proiektua sortu zen. Bere helburu nagusia “ikaslea bere ikaskuntza prozesuaren protagonista bilakatzeko baliabideak eskaintzea” da. Aldi berean, “unibertsitatea-gizartea arteko zubiak eraikitzeko xedea ere badugu, jendarte hurbilarekin sentsibilizatuta eta harremanetan dagoen unibertsitate inplikatua sortuz”. Gaur egun, Gipuzkoako Campuseko gradu desberdinetako ikasleek autogestionatzen, koordinatzen eta dinamizatzen dute proiektu hori.

| 3. taula. IKD eredua sustatzeko prestakuntza eta hezkuntza berrikuntza programak |
|---|
| Eragin (Irakasleak irakaskuntza-metodologia aktiboetan trebatzeko programa) |
| Eragin programak metodologia aktiboetan oinarritutako irakaskuntza diseinatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko aholkularitza zerbitzua ematen du. Izan ere, irakaskuntza mota horrek "ezagutza zientifikoaren adar batean aditua izatea baino zerbait gehiago eskatzen du; ikasleak bere ikaskuntzan parte har dezan lortzera bideratutako irakaskuntza-gaitasun bereziak garatzea eskatzen du".<br>(Eragin V. deialdia 2014-2015). |
| UIPRE (Unibertsitateko irakasleen irakas-prestakuntza) |
| Programa horren helburua da "irakaskuntza-berrikuntzako oinarrizko gaitasunak garatzea, iraupen laburreko ikastaro espezifikoen bidez". Ikastaroak UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileei zuzenduta daude. Irakasleen garapen profesionalari modu zuzenean lotzen da baina, horrez gain, Hezkuntza aktiboa ere sustatzen du. |
| Ehundu (Graduen curriculuma garatzeko laguntza programa) |
| Bere helburu nagusia ikastegiei laguntza ematea da, kanpoko agentzien aurrean gradu bakoitzaren planifikazioaren ezarpenerako hartutako konpromisoak betetzeko, baita ikastegiek Unibertsitatearekin hartutako IKD konpromisoak betetzeko ere.<br>Hala, Graduko ikastegiek, titulu berrien curriculumaren garapena zuzendaritza eta akreditazioaren arduradun nagusiak diren heinean, irakaskuntza-ikasketa ereduaren araberako curriculum orokorra sustatzea behar du. Hala ere, bakoitzak bere berezitasunaren arabera interpretatu eta bideratuko du, modu dinamikoan denboran zehar. Ehundu programak zeharkako gaitasunak gauzatzen laguntzen du. |
| HBP (Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuak) |
| UPV/EHUko Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko Errektoreordetzak urtero laguntzak eskatzeko deialdi bat zabaltzen du. Horien helburua irakasleek egin nahi dituzten proiektuak bultzatzea da, gehienbat, IKD ereduaren arabera hezkuntza berrikuntzarako ekimenak sustatzera bideratutako horiek. Hauek dira deialdi horrek bultzatzen dituen gaiak:<br>• Ikasleekin ikasketarako metodologia aktiboak (Kasuetan, Arazoetan eta Proiektuetan oinarritutako Ikasketa) esperimentatu nahi dituzten proiektuak.<br>• Zeharkako gaitasunak (komunikazioa, generoa, etika, adimen emozionala, talde lana, ekintzailetza, iraunkortasuna...) garatzeko alderdiak sustatzen dituzten proiektuak.<br>• Graduko ikasketetan, ikasleen ikaskuntza autonomoa sustatzen duten proiektuak.<br>• Graduetan zehar curriculumaren garapena modu berritzailean sustatzen duten proiektuak.<br>Helburua gero eta irakasle gehiago sartzea da, baldin eta esperientzia gehiena duten berrikuntza taldeek jarraitzea bermatzen bada. Horretarako, 2014-2016ko deialdian bi partaidetza modu ezarri ziren:<br>• HBT modalitatea: "Hezkuntza berrikuntzarako taldeek" proposatutako proiektuak, hau da, talde hasiberriak edota hezkuntza berrikuntzari buruzko gaietan talde moduan ibilbide laburra daukaten taldeak.<br>• HBT Aditua modalitatea: "Hezkuntza berrikuntzarako talde adituek" proposatutako proiektuak, hau da, ibilbide luzea, esperientzia, prestakuntza eta behar besteko sendotasuna daukan etorkizuneko proiektua dituzten taldeak. |

Iturria: Egileak, UPV/EHUren web orrialdeko datuak erabiliz.

### 1.2.9. Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordetza

Honako hauek dira Errektoreordetza honi dagozkion eginkizun eta eskumenak:

- Master, doktorego eta berezko tituluetako ikasketak egiaztatu, baimendu eta akreditatzeko administrazio prozesuak zuzendu, koordinatu eta kontrolatzea.

- Ikasketa horietako sarrera, onarpena, matrikula, espediente akademikoak eta ikasleen bekak gestionatzea.
- Masterreko, doktoregoko eta berezko ikasketetako tituluak eta Tituluaren Gehigarri Europarra (TGE) emateko izapideen gestioa.
- Arautegi akademikoak onestea.
- Irakaskuntzaren kalitatea zaintzea, berrikuntzarako programak ezarriz eta laguntzarako erremintak eskainiz.
- Graduondoko batzordeko burua izatea.
- Atzerriko eta, bereziki, Akitania eta Latinoamerikako unibertsitateekin edo erakundeekin lankidetzan aritzea.
- Ikasleak, irakasle eta ikertzaileak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak atzerriko beste erakunde batzuetakoekin trukatzeko jarduerak gestionatzea eta sustatzea.
- Irakaskuntza, ikerkuntza, antolakuntza edo finantzen arloan nazioartean dauden programen berri ematea errektoreordetzei, programa horiek UPV/EHUrako interesgarriak direnean; baita, egoki izanez gero, programa horien jarraipena egitea ere.
- Mugikortasun programak gestionatzea.
- Erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzan aritzea euskarako ikastaroen eta atzerritarrentzako gaztelania ikastaroen arloan, baita unibertsitatean ofizialak ez diren beste hizkuntza batzuen arloan ere; hori guztia beste errektoreordetza batzuei berez dagozkien eskumenei kalterik egin gabe.
- Atzerritik datozen ikasleei harrera egitea.
- Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen presentzia nazioarteko foroetan eta horren ikuspena eta nazioarteko proiekzioa sustatzearren beharko liratekeen ekintzen eremuan legokeen edozein.

Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetza zuzendaritza eta zerbitzu hauen arabera egituratzen da: 1. Nazioarteko Harremanen Zuzendaritza; 2. Atzerritarrentzako Hizkuntza Ikastaroen Koordinazioa; 3. Latinoamerikako Graduondokoen Zuzendaritza; 4. Akademia Antolakuntzako Zuzendaritza; 5. Graduondoko Ikasketen Zerbitzua; eta 6. Akademia Gestioko Zerbitzua.

### 1.2.9.1. Nazioarteko Harremanen Zuzendaritza

Zuzendaritza horrek mugikortasun programak kudeatzen ditu: SICUE (Espainiako Unibertsitateekin), ERASMUS (Europako Unibertsitateekin), UPV/EHU-América Latina (Latinoamerikako Unibertsitateekin) eta beste norakoak (AEBko Errusiako, Kanadako, Koreako, Filipinetako, Puerto Ricoko, Zeelanda Berriko eta Asiako Unibertsitateekin). Horrez gain, Nazioarteko Harremanen arloko irakasle eta AZL langileen mugikortasunerako *staff week*-ak antolatzeko diru-laguntza deialdi bat ere sustatzen du.

Era berean, hitzarmenak tramitatzen ditu eta unibertsitate arteko lankidetza proiektuak eskatzeko laguntza eta aholkularitza zerbitzuak eskaintzen ditu.

#### 1.2.9.2. Graduondoko Ikasketen Zerbitzua

UPV/EHUk, Graduondoko ikasketen arloan, misio hau du: "Eskaintzen duen graduondoko prestakuntzak honako ezaugarri hauek izatea: osoa, malgua eta euskal gizartearen premiei egokitua izan dadila, sormena, ekimena, enplegagarritasuna eta konpromiso etikoa eta soziala bultza ditzala, kalitatezko ikerketa bultza dezala, eta nazioarte mailan erakargarria izan dadila".

Misio hori garatzeko, zerbitzuak graduondoko eskaintza guztia kudeatzen du: Berezko eta Unibertsitate Espezializazio Masterrak, Unibertsitate Masterrak eta Doktoregoa. Web orrialdearen arabera: "Horietako askok Hezkuntza Ministerioak emandako Bikaintasuneranzko Aipamena daukate".

## 1.3. Ardatz estrategikoen azterketa

Unibertsitatearen jarduera aztertzeko UPV/EHUko Plan Estrategikoa 2012-1017 osatzen duten 5 ardatzak aztertuko ditugu: prestakuntza; ikerketa; nazioarteratzea; gobernantza eta kudeaketa; eta gizarte konpromisoa. Nazioarteratzearen eta gobernantza eta kudeaketaren ardatzek ez dute gure ikerketaren objektuarekin harremana duen jarduerarik aurkezten. Beraz, prestakuntza, ikerketa eta konpromiso soziala aztertuko ditugu bakarrik.

### 1.3.1. Prestakuntza eta unibertsitate irakaskuntza

Prestakuntza eta unibertsitate irakaskuntzaren ardatz estrategikoak informazio gehiago eskaintzen digu lantzen ari garen hezkuntza ikuspegiak duen presentzia eta eraginaren inguruan. Hortaz, UPV/EHUko gradu eskaintza osatzen duten ikasketa planak arakatuko ditugu, baita graduondoko, praktika programa eta etengabeko prestakuntza eskaintza ere.

#### 1.3.1.1. Graduak, Ikasketa planak eta Irakasgaiak

Lehenbizi, bi kontu azpimarratu nahi ditugu: alde batetik, erregistro ugaritasuna dela-eta, 2015-2016 kurtso akademikoko informazioa besterik ez dugula aztertu eta, bestetik, ez ditugula UPV/EHUk emandako gradu guztiak aztertu; aitzitik, Garapenerako Hezkuntzarekin eta Hezkuntza Emantzipatzailearekin eralzio zuzenagoa duten horiek bakarrik aztertu ditugula.

Orokorrean, graduko ikasketen programa, kurtso bakoitzeko, beren artean oso zatikatuta dauden irakasgaien zerrenda batean oinarritzen dela esan daiteke. Gainera, irakasgai horiek ez daude oso kokatuta ematen diren testuinguru sozial, kultural eta ekonomikoan. Bestalde, UPV/EHUk ematen dituen graduetan, penagarria da GH eta HErekin zerikusia duten irakasgaien egoera, ikuspegi horien esanahiaren inguruan irizpide malgu eta zabala erabili dugun arren. Ikuspegi horiek erabiltzen dituzten prestakuntzen eskaintza, ezohikoa eta puntuala da eta zenbait gradutara mugatzen da.

Bi irakasgai bakarrik aurkitu ditugu ikuspegi horiek lantzen dituztenak; Gizarte Antropologiako eta Gizarte Hezkuntzako graduetan derrigorrezkoak diren Kultura Arteko Hezkuntza eta Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza, hurrenez hurren. Aipatuko ditugun gainontzeko irakasgai guztiak loturaren bat dute GH eta HEren ikuspegiekin. Hala, zenbaitek Giza Eskubideak, Gizarte eta Hezkuntza politikak; Inklusio eta Esklusio prozesuak; Bake Kultura; Genero berdintasuna; eta Nazioarteko Ekonomia lantzen dituzte. Derrigorrezkoak eta hautazkoak dira.

Dena den, irakasgai horiek ezagutza arlo zehatzetara mugatzen dira. Izan ere, beren ikasketa planetan GH eta HEren ikuspegia sartzen duten irakasgaiak Gizarte eta Lege Zientzien arloko graduetara mugatzen dira (Gizarte Antropologiako Gradua; Haur Hezkuntzako Gradua; Gizarte Hezkuntzako Gradua; Pedagogiako Gradua eta Gizarte Langintzako Gradua). Ingeniaritza, Arkitektura eta Zientzietako ezagutza eremuetan ez dira hezkuntza kritikoaren printzipioak eta postulatuak aurkitzen.

Hezkuntza kritikoarekin lotura duten irakasgaiak eskaintzen dituzten graduko ikasketak oso urriak dira, baina are urriagoak dira ikuspegi horrekin lotutako aipamenak edo minorrak dituzten graduak. Hala, 4. taulan jasotako graduetatik, lauk ez dute horri buruzko informaziorik beren web orrialdean eta Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako tituluek bakarrik eskaintzen dute Kultura arteko Hezkuntzan espezializatutako prestakuntza. Gizarte Hezkuntzan, Soziologian eta Gizarte Langintzan ere, curriculum espezifikotasun hauek aurkitzen ditugu: Gizarte Dinamizazioa eta Lan Komunitarioa; Gizarteratzea; Gizarte Arazoen Analisia eta Kudeaketa; Gizarte Ongizatea; Gizarte Erakundeak, Sareak eta Prozesuak; Gatazketan Esku-Hartzea eta Gatazken Eraldaketa; eta Komunitate Sustapena. Datu horietan ikusten denez, UPV/EHUk hezkuntza ikuspegi hori ezagutza eremu desberdinetan bultzatzeko interes mugatua du. Izan ere, unibertsitate bakoitzak graduetako edukien %25-50 artean erabakitzeko ahalmena du.

4. taula. Garapenerako Hezkuntzaren eta Hezkuntza Emantzipatzailearen ikuspegiarekin harremana duten irakasgaiak (2015-2016ko ikasturtea)

| Graduak | Irakasgaia | Mota | Aipamenak |
|---|---|---|---|
| Ezagutza Arloa: Artea eta Giza Zientziak | | | |
| Filosofiako Gradua | Gaur Egungo Etikari buruzko Eztabaidak | H | (Web orrialdean informaziorik ez) |
| | Justizia eta Eskubideak XXI. Mendean | H | |
| Ezagutza Arloa: Gizarte eta Lege Zientziak | | | |
| Gizarte Antropologiako Gradua | Kritika Feminista Gizarte Antropologian | N | (Web orrialdean informaziorik ez) |
| | Kultura arteko Hezkuntza | N | |
| | Genero Sistemak: Kultura arteko Ikuspegia | N | |
| Haur Hezkuntzako Gradua | Kultura Arteko Hezkuntzaren Oinarri Teorikoak | H | - Kultura arteko Hezkuntza |
| | Kultura Artekotasunaren Komunitate Dimentsioa | H | |
| Lehen Hezkuntzako Gradua | Kultura Arteko Hezkuntzaren Oinarri Teorikoak | H | - Kultura arteko Hezkuntza |
| | Kultura Artekotasunaren Komunitate Dimentsioa | OP | |
| Gizarte Hezkuntzako Gradua | Giza Eskubideak eta Gizarte eta Hezkuntza Politikak | N | - Gizarte Dinamizazio eta Lan Komunitarioa<br>- Gizarteratzea |
| | Hezkuntza, Hizkuntza, Kultura eta Aniztasuna | AO | |
| | Gizarteratze eta Baztertze Prozesuak | BABO | |
| | Komunitate Garapena | N | |
| | Garapen Jasangarrirako Hezkuntza | N | |
| | Herritartasunerako Hezkuntza Gizarte Zientzietan | H | |
| | Gizarteko Elkartasun Dinamikak eta Gaur Egungo Gizartea | H | |
| | Gaur Egungo Gizarte Mugimenduak | H | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Pedagogiako Gradua | Giza Eskubideak eta Gizarte eta Hezkuntza Politikak | N | (Web orrialdean informaziorik ez) |
| | Hezkuntza, Hizkuntza, Kultura eta Aniztasuna | AO | |
| | Gizarteratze eta Baztertze Prozesuak | BABO | |
| Soziologiako Gradua | Aniztasuna, Desberdintasuna eta Gizarte Bazterketa | H | - Gizarte Arazoen Analisia eta Kudeaketa<br>- Gizarte Ongizatea<br>- Gizarte Erakundeak, Sareak eta Prozesuak |
| | Hezkuntzaren Soziologia | N | |
| | Migrazioen Soziologia | H | |
| | Generoaren Soziologia | N | |
| Gizarte Langintzako Gradua | Antropologia eta Gizarte Langintza | AO | - Gatazketan Esku-hartzea eta Gatazken Eraldaketa<br>- Komunitate Sustapena |
| | Bake Kultura | H | |
| | Genero Berdintasuna | H | |
| | Baztertze eta Gizarteratze Mekanismo eta Prozesuak | H | |
| | Gizarte Partaidetza eta Komunitate Garapena | H | |
| Ekonomiako Gradua | Garapenaren Ekonomia | N | (Web orrialdean informaziorik ez) |
| | Nazioarteko Ekonomia | N | |
| | Nazioarteko Antolakuntza Ekonomikoa | H | |
| H: Hautazkoa / N: Nahitaezkoa / AO: Adarraren Oinarrizkoa / BABO: Beste adar batzuen oinarrizkoa | | | |

Iturria: Egileak, UPV/EHUren web orrialdeko datuak erabiliz.

| 5. taula. Garapenerako Hezkuntzaren eta Hezkuntza Emantzipatzailearen ikuspegiarekin harremana duten graduen zeharkako gaitasunak (2015-16 ikasturtea) |
|---|
| Zeharkako gaitasunak |
| Filosofiako Gradua |
| - Historiaren nahiz gaien ikuspuntutik, teoria eta ideia filosofikoen oinarriak modu aktiboan ulertzea eta modu kritikoan interpretatzea, eta gaur egungo egoerak aztertzeko aplikatzea.<br>- Informazioaren teknologiak erabiltzea datuak biltzeko eta trukatzeko: testu prozesatzaileak, posta elektronikoa, Internet, datu-base bibliografikoak. |
| Gizarte Antropologiako Gradua |
| - Oro har Gizarte Zientzien berariazko teoriak ezagutzea eta ulertzea, eta bereziki Antropologia, gizarte-bizitzako hainbat esparrutako gizarte-aniztasunaren ekoizpenari buruz<br>- Kultura-konfigurazio zabalenetan giza erakundeak aztertzeko eta azaltzeko gai izatea, eta ikergaiaren arazoari ikuspegi holistikoa aplikatzea.<br>- Ikasleak gai izatea hainbat testuingurutan kultura-aniztasuna aztertzeko eta horren berri emateko, oro har Gizarte Zientzien esparruko eta bereziki Antropologiako oinarrizko testuak eta materialak irakurriz, aztertuz eta ulertuz.<br>- Eskuratutako jakintzak (teorikoak edo aplikatuak) komunikatzen eta praktikan jartzen jakitea; gizarte-arazoak ebazteko esku hartzea; eta, oro har, kultura aniztasuneko hainbat testuingurutako pertsonen bizi-kalitatea hobetzeaz arduratzea.<br>- Etengabeko ikaskuntzarako gaitasunak eta ardura garatzea, espazio-denbora testuinguruari egokitzearekin konprometitutakoa eta Antropologiaren diziplinari berezkoak zaizkion ezagupena eta egiten jakitea etengabe hobetuz. |

| Haur Hezkuntzako Gradua |
|---|
| - Haur hezkuntzako helburuak, curriculum-edukiak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzea, haur hezkuntzaren berezitasun epistemologikoa eta didaktikaren espezifikotasuna ulertuta; baita horien arteko diziplina arteko harremana ere, haurren lana prestatzeko, antolatzeko eta ebaluatzeko.<br>- Lehen haurtzaroan lengoaiak duen bilakaera ezagutzea, izan daitezkeen disfuntzioak identifikatzen jakitea eta haiek behar bezala garatzeaz arduratzea. Eraginkortasunez aurre egitea hizkuntzen ikaskuntzari kultura nahiz hizkuntza anitzeko testuinguruetan. Ahoz nahiz idatziz adierazten jakitea, eta zenbait adierazpen-teknika menderatzea. Euskara eta gaztelania menderatzea, baita atzerriko beste hizkuntza bat ere, gutxienez. Hizkuntza horietan ekoizpen eta ulermen zuzena eta egokia frogatzea (C1 eta B1 mailak, hurrenez hurren), hezkuntza-testuinguru eleaniztunean lan egin ahal izateko. Hizkuntzen nahiz kulturen aniztasunari begirako jarrera abegitsuak garatzea.<br>- Informazioaren eta komunikazioaren teknologien hezkuntza-ondorioak ezagutzea eta, bereziki, telebistarenak lehen haurtzaroan. Informazioaren eta komunikazioaren bitartekoak (IKTak, liburutegiak, fonotekak...) modu kritikoan erabiltzea, ezagutza-iturrietara heltzeko eta komunikazioko, ikasketako, ikerketako eta lan kooperatiboko zereginak faboratzeko.<br>- Komunikazio-gaitasunak (ahozkoak, idatzizkoak, bisualak, gorputzarenak, afektiboak eta musikalak) aberastera bideratutako estrategia didaktikoak diseinatzea, garapen integralaren esparruan.<br>- Maila bereko irakasle guztiekin batera jarduerak planifikatzea. Taldean ikasgelako praktikei buruzko gogoeta egitea, irakasle-lana eta jarduera profesionala berritzeko eta hobetzeko. Ikaskuntza autonomo nahiz kooperatiborako gaitasunak eskuratzea eta ikasleen artean sustatzea.<br>- Lehen haurtzaroan ikaskuntza autonomoen eraikuntza sustatzea eta erraztea, dimentsio kognitiboen, emozionalen, psikomotorren eta borondatezkoen ikuspuntu globalizatzaile eta integratzaile batetik. |
| **Lehen Hezkuntzako Gradua** |
| - Eraginkortasunez aurre egitea hizkuntzen ikaskuntzari kultura nahiz hizkuntza anitzeko testuinguruetan. Eskola-curriculumeko zientziaren eta kulturaren arloko testuak irakurtzea eta horien iruzkin kritikoa egitea sustatzea.<br>- Hezkuntza-komunitateko eta gizarte-inguruneko hainbat sektorerekin lankidetzan aritzea. Irakaslanaren hezkuntza-dimentsioa nork bere gain hartzea eta hezkuntza demokratikoa sustatzea herritar aktiboak izateko.<br>- Lehen hezkuntzako curriculum-arloak, horien arteko diziplina arteko harremana, ebaluazio-irizpideak eta ezagutza didaktikoen multzoa ezagutzea dagokien irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozedurei buruz.<br>- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ezagutzea eta ikasgeletan erabiltzea. Hautatze bidez bereiztea ikaskuntzei, gizalegezko prestakuntzari eta kultur aberastasunari laguntzen dion ikus-entzunezko informazioa.<br>- Irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak diseinatzea, planifikatzea eta ebaluatzea, banaka nahiz ikastetxeko beste irakasle eta profesional batzuekin lankidetzan.<br>- Euskara eta gaztelania menderatzea, baita atzerriko beste hizkuntza bat ere, gutxienez. Hizkuntza horietan ekoizpen eta ulermen zuzena eta egokia frogatzea, hezkuntza-testuinguru eleaniztunean lan egin ahal izateko. Hizkuntzen nahiz kulturen aniztasunari begirako jarrera abegitsuak garatzea.<br>- Ikasgelako praktikei buruzko gogoeta egitea, irakasle-lana berritzeko eta hobetzeko. Ikaskuntza autonomo nahiz kooperatiborako gaitasunak eskuratzea eta ikasleen artean sustatzea. |
| **Gizarte Hezkuntzako Gradua** |
| - Ikasleek hainbat testuingurutan eta hainbat publikori egokitutako dokumentu profesionalak idazteko gaitasuna erakustea.<br>- Ikasleek gizarte-hezkuntzako esku-hartzea garatzea, lanbidearen deontologiaren gako etikoetatik eta errespetutik.<br>- Ikasleek trebakuntza jarraituari buruzko jarrera positiboa izatea, gizarte-hezkuntzako esku-hartzea eta garapen profesionala hobetzen laguntzeko.<br>- Ikasleek jakitea gizarte-hezkuntzako gaiei buruz ideiak, argumentuak, arazoak eta konponbideak hainbat publikori ahoz azaltzen. |

| Pedagogiako gradua |
|---|
| - Pertsonen artean harreman eta komunikazio horizontal eta enpatikoa sustatzeko baldintzak sortzea, testuinguru eleanitzetan eta kultura anitzetan gizarteratzea sustatzeko (entzutea, negoziazioa, adostasuna eta desadostasuna, etika...).<br>- Ikaskuntza-trebetasunak, trebetasun pertsonalak, gizarte-trebetasunak eta lanbide-trebetasunak garatzea, pedagogoa hainbat lanbide-arlotan txertatzeko, baita autoenpleguan ere.<br>- Publiko espezializatuentzat eta ez-espezializatuentzat irizpide zientifiko eta sistematikoen araberako proposamenak lantzea eta argudiatzea, idatziz nahiz ahoz, erabakiak hartzeko prozesuak errazteko. |
| Soziologiako Gradua |
| - Arazoei eta, behar sozialei buruzko informazioa era sintetikoan analizatzea, genero, klase eta etnia desberdintasunei arreta berezi jarriz.<br>- Datuen eta praktika sozialen gaineko jarrera kritikoa garatzea.<br>- Etorkizun profesionalari begira, argudiatzeko eta analisi soziologikoak egiteko garaian zorroztasun intelektual eta etikoa erabiltzea. |
| Gizarte Langintzako Gradua |
| - Dauden eta sortzen ari diren fenomeno, errealitate eta arazo sozialak ezagutu eta ulertzea, eta haiei buruzko gogoeta kritikoa egitea, pertsona, talde, erakunde eta komunitateekin lan egiteko gaitasunak garatzeko.<br>- Lanbide-jardunerako beharrezkoak diren abileziak garatzea, eta, ildo horretan, kritika eta gogoetarako, azterketarako, komunikaziorako, harremanetarako, talde-lanerako eta sareko lanerako gaitasuna azpimarratzea eta generoaren, kultura artekotasunaren, landa-eremuaren eta abarren ikuspegiak txertatzea.<br>- Erakundeen gizarte-erantzukizuna eta etika profesionala sustatzea, eta kalitate-irizpideak eta lanbide-ikuskapeneko protokoloak aplikatzea. |
| Ekonomiako Gradua |
| (Gradu honetako gaitasun guztiak generikoak dira, bat ere ez da zeharkako gisa aurkezten. |

Iturria: Egileak, UPV/EHUren web orrialdeko datuak erabiliz.

### 1.3.1.2. Doktorego programak, Masterrak eta Berezko Tituluak

Graduondoko ikasketen atal honetan ere GH/HEren esanahiaren ikuspegi zabal bat erabili dugu. Hala, ondoko tauletan arlo hauetako doktorego programak, masterrak eta berezko tituluak biltzen ditugu: hezkuntza arlo espezifikoa; nazioarteko ikasketak, garapena, nazioarteko lankidetza eta garapenerako hezkuntza; hezkuntza ikuspegi horren zeharkako dimentsioak eta ikuspegiak (generoa, partaidetza, ingurumena, etab.) lantzen dituzten beste arlo batzuk.

Horiek horrela, 2015-2016 ikasturteko 209 eskaintzetatik, 22 bakarrik kokatzen dira GH/HEren eremuan; hau da, %10 baino zertxobait gehiago. Gainontzekoak, ezagutzaren gizarteari, enpresen eskaerei eta abangoardiako teknologiari erantzuten diete, eredu produktibista kapitalistaren funtzionamendurako profesionalak prestatzeko helburuarekin.

GH/HEren ikuspegia, batez ere, lanbide prestakuntzara bideratutako kurtsoetan, esate baterako, Masterretan eta Berezko Tituluetan, ageri da; doktore-tesiak egitera bideratutako programek hezkuntza eta sozializazio kritikoaren printzipioak landu behar izango ez balituzte bezala. Hala, bide horretatik doan ikerketa ildo bakar bat topatu dugu (17ren artean), Hezkuntza, garapena eta giza gaitasunak, alegia, Garapenari buruzko Ikasketen Doktorego programakoa. Hori, izan ere, hezkuntza mailan ikuspegi horren duen inplementazio eskasaren erakusgarria da.

Garapenerako Hezkuntza terminoak bi master hauetako programetan bakarrik aurkitzen da: Garapena eta Nazioarteko Lankidetza Masterra eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako irakasleen prestakuntza Masterra. Horietako lehenengoan Garapenerako Hezkuntza hautazko irakasgaia da eta bigarrenean Giza eta Gizarte Zientzietako Master Amaierako Lanerako lan ildo bat da.

Beste alde batetik, Hezkuntza Emantzipatzailearen proposamena Hegoa Institutuak bultzatutako Master batean gauzatzen da, hots, Nazioarteko Lankidetza eta Hezkuntza Askatzailea tituluan. Graduondoko titulu horrek garapenari eta postgarapenari buruzko eztabaidak aztertzeaz gain, gizarte aldaketarekin konprometitutako hezkuntza karakterizatzen duen proposamena -eduki politikoagoa eta askatzaileagoa duena- hartzen du.

Atal honekin amaitzeko, prestakuntza horiek erreferentziazko espazio gutxi batzuetan biltzen direla azpimarratu nahi dugu. Lehenengo postuan Hegoa Institutua dugu, lau formazio eskaintzarekin; horren atzetik Baloreen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saila dugu hirurekin. Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea, bada, horrelako formakuntzekin konprometitutako ikastegi bat da; izan ere, lehen aipatutako sailak sustatzen dituen jarduerez gain, badaude bere ardura fakultate horretan kokatzen duten beste bi. Antza denez, gainontzeko sailen eta unibertsitate institutuen ustez, Hezkuntza Emantzipatzailearen ikuspegiak ez du formakuntzan integratzea merezi.

6. taula. Garapenerako Hezkuntzaren eta Hezkuntza Emantzipatzailearen zeharkako alderdiak lantzen dituzten doktorego programak (2015-2016 ikasturtea)

| Izena | Helburua eta interes arloa | Sail edo Institutu arduraduna |
|---|---|---|
| Hezkuntza: Eskola, Hizkuntza eta Gizartea Doktorego Programa | Arreta hezkuntzaren errealitatea hobeto ezagutzean, eskuhartzeen praktiketan eta lanerako prestakuntzan jartzea. Hizkuntza aniztasuna, kultura artekotasuna, hezkuntza inklusiboa, migranteak… | Hezkuntzaren Teoria eta Historia |
| Ikasketa Feministak eta Generokoak Doktorego Programa | Xedetzat du gizarte eta lege zientzietan doktorego tesiak egitea.<br>Ikerketa Lerroak:<br>- Teoria eta Kritika Feminista<br>- Gizarte desberdintasunak. Bazterkeriaren eraikuntza.<br>- Kultur aniztasunaren analisi konparatiboa<br>- Identitatearen eraikuntza<br>- Aldaketa-prozesuak tokiko gizarteetan eta gizarte globaletan<br>- Politika publikoak eta partaidetza soziala eta politikoa | Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia |

| | | |
|---|---|---|
| Globalizazioa Aztergai: Erronkak eta Diziplinarteko Erantzunak Doktorego Programa | Ikerketa lerroak:<br>- Funtsezko eskubideen aplikazioa eta interpretazioa<br>- Aldaketa, Konplexutasuna eta Berrikuntza Soziala<br>- Zientzia, teknologia, iraunkortasuna eta ezagutza<br>- Eremu urriko hizkuntzetan Corpusak eta Hizkuntz Tresnak sortzea<br>- Kriminologia eta delinkuentzia-modu berriak<br>- Kultura, kulturartekotasuna eta identitateak mundu global eta digitalean<br>- Sektore publikoaren eta gizarte-babesaren ekonomia<br>- Eremu urriko hizkuntzen estandarizazioa eta modernizazioa<br>- Pentsaera juridiko-politikoaren filosofia, historia eta soziologia<br>- Globalizazio-prozesuaren ideia historiko-filosofiko-sozial eragileak<br>- Berdintasuna eta bazterkeria eza<br>- Ingurumen-eskubideak giza garapen iraunkorraren eta merkatuko balioen artean.<br>- Beste globalizazio bat: alderdi kritiko-etikoak, demokratikoak eta ekitatekoak<br>- Politika makroekonomikoak, industrialak eta eskualdeko politikak. Gobernantza Europar Batasunean<br>- Lengoaia naturalaren prozesamendua: hizkuntz baliabideak eta hizkuntz tresnen integrazioa<br>- Lengoaiaren irudikapena eta prozesamendua adimen elebidunean<br>- Gizarte neoliberala gizarte demokratikoaren aurrean<br>- Soziolinguistika: Elebitasuna/ Eleaniztasuna. Lengoaiaren Jabekuntza, Hizkuntzen Irakaskuntza. Hizkuntz Aldakuntza eta Hizkuntz Ukipena.<br>- Hiri Soziologia, migrazioak eta lan-merkatua | Administrazio Zuzenbidea, Konstituzio Zuzenbidea eta Zuzenbidearen Filosofia |
| Garapenari buruzko Ikasketak Doktorego Programa | Interdiziplinarra den programa honek ikerketa lerrotan egituratutako gaien inguruan ikerlariak prestatzea du helburu. Bertatik, Globalizazioaren, Garapen prozesuen eta Nazioarteko Lankidetzaren analisi kritiko eta zehatzetan sakontzera zuzentzen diren Doktoretza Tesien gauzatzea sustatzen da.<br>Ikerketa lerroak:<br>- Garapena, globalizazioa eta nazioarteko fluxu ekonomikoak<br>- Garapenaren finantzaketa eta mikrokredituak<br>- Garapenerako lankidetza eta ekintza humanitarioa<br>- Gatazkak, segurtasuna eta garapena<br>- Generoa eta garapena<br>- Giza garapenerako eta iraunkortasunerako teknologia egokiak<br>- Hezkuntza, garapena eta giza gaitasunak<br>- Landa garapena eta elikaduraren segurtasuna<br>- Migrazioak eta baterako garapena<br>- Ongizatearen eta garapenaren adierazleak eta neurketa<br>- Parte-hartzea, demokrazia eta giza eskubideak<br>- Toki- eta lurralde-garapena | Hegoa. Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua |

Iturria: Egileak, UPV/EHUren web orrialdeko datuak erabiliz.

| 7. taula. Garapenerako Hezkuntzaren eta Hezkuntza Emantzipatzailearen zeharkako alderdiak lantzen dituzten Unibertsitate Master Ofizialak (2015-2016 ikasturtea) | | |
|---|---|---|
| **Izena** | **Helburua eta interes arloak** | **Sail edo Institutu arduraduna** |
| Gizarte Antropologia Unibertsitate Masterra | Hiru ikerketa eremu handi hauek lantzen ditu:<br>- Euskal kultura<br>- Ikuspegi feminista antropologian<br>- Etnografia garaikideak eta antropologia aplikatua. | Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia |
| Garapena eta Nazioarteko Lankidetza Unibertsitate Masterra | Ikasleen lanbide prestakuntzara bideratuta dago nagusiki, garapenerako nazioarteko lankidetzaren arloan. Hala, erreferentzia nagusitzat hartzen ditu berdintasuna eta pobreziaren aurkako borroka, giza garapena eta iraunkortasuna.<br>Hautazko irakasgaia: Garapenerako Hezkuntza (3 kreditu) | Hegoa. Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua |
| Gizarte Ekonomia eta Solidarioa Unibertsitate Masterra | Merkatua eta errentagarritasun pribatuaren inguruan dantza egiten duen eredua gaindituz, bestelako ekonomia eredu bat bultzatzen duten ekimen produktiboen inguruan trebatzera bideratuta dago, gure garaiko eredu klasikoa gainditus. | Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua, GEZKI |
| Ikasketa Feministak eta Generokoak Unibertsitate Masterra | Gizarte eta lege zientzietako ikerkuntzara bideratuta dago. Bere helburu orokorra diziplina arteko formakuntza espezializatua eskaintzea da. Teoria eta Kritika Feministatik egin den ekarpen teoriko-metodologikoa eta enpirikoa ekidinezina da gaur egun gure gizartean. Ekarpen honek ez du soilik ezagutzaren gehikuntza eta kalitatean eragiten, baizik eta oihartzun handiko gizarte arazoetan ere, hain justu gizarte zapalkuntza eta ezberdintasunekin zerikusia duten egoeretan. | Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia |
| Nazioarteko Ikasketak Unibertsitate Masterra | Master ikasketa hauek heziketa espezializatua eta ikertzaileen prestakuntza bultzatu nahi dituzte, kasu honetan, Nazioarteko Ikasketen eremuan. Hauek dira beren helburuak:<br>- Ikasleak ikertzaileek lantzen dituzten oinarri zientifikoetan ohitzea eta trebatzea.<br>- Diziplina artekotasunaren ikuspegitik nazioarteko ikasketen arloan prestakuntza integral aurreratua eskaintzea.<br>- Nazioarteko errealitatea ikertu eta interpretatzeko bide ematen duten instrumentu kontzeptual eta teorikoei buruzko ezagutza transmititzea.<br>- Ikasleei espezializazio egokia eta beharrezko prestakuntza ematea, nazioarteko gaien inguruan lan profesionala egiteko.<br>- Nazioarteko Harremanen arloko espezialisten eta ikertzaileen taldea sustatzea, eta talde hori Estatuko eta nazioarteko sareetan sartzea. | Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia |

| | | |
|---|---|---|
| Mundu Globalerako Filosofia Unibertsitate Masterra | Master honek aldaketa/eraldaketa horiek aztertu nahi ditu, alderdi historiko eta baloratiboetan sustraituko den perspektiba filosofiko-humanistiko batetik. Perspektiba hori ikuspegi analitiko eta kritikoak erabiltzen ditu, erantzukizunaren eta zuhurtziaren printzipioa aintzat hartuta. Gure hezkuntza sistema osoak eta gaur egun inguratzen gaituen munduak ekitera, merkatura, eraginkortasunera eta eragingarritasunera bultzatzen gaituzte. Hortaz, beharrezkoa da filosofiak gai hauen inguruan gogoeta egitea: hezkuntza sistemaren beraren baldintzak, gure egiteko modua, "ezagutzaren komunitateak" duen zentzua eta komunitate horrek bere burua eta gizarte osoa aldatzeko duen gaitasuna. Ezin ditugu hezkuntza eta balio zibikoak merkatu globalizatzailearen joko hutsaren menpe utzi, merkatu horretan nagusi den lehiakortasunak ez digulako berez ongizaterik eta bikaintasunik ekarriko. | Filosofia |
| Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako irakasleen prestakuntza Unibertsitate Masterra | Master Amaierako Lanaren ildoak Giza eta Gizarte Zientzietarako:<br>- Ekonomiaren irakaste-ikaste prozesua Bigarren Hezkuntzan<br>- Giza Garapen Sostengarrirako Lanbide Heziketa<br>- Gizarte Zientzien, Geografiaren eta Historiaren Didaktika<br>- Garapenera Hezkuntza-Herritartasunerako Hezkuntza | Filosofia eta Hezkuntza Zientziak |
| Globalizazioa: Gizarte Prozesuak eta Ekonomia Politika Unibertsitate Masterra | Latinoamerikako ikasleentzako prestakuntza interes bikoitza duen programa bat da: alde batetik, gizarte zientzietako (batik bat Ekonomia eta Soziologia) jakintzak eratzen dituzten jakintzen nukleo zentralaren gaineko gogoeta egiteko beharrari erantzuten dio; bestetik, oinarrizko diziplinen gorputz teorikoa eratzen duen jakintza multzo hori aplikazio praktikora bideratzen da, erreferentziako herrialdearen errealitate sozioekonomikoak dituen bereizgarritasunen arabera. | Ekonomia eta Enpresa Fakultatea |
| Globalizazioa eta Garapena Unibertsitate Masterra | Globalizazio eta Garapeneko master hau Hegoa Institutuak eta Ekonomia Aplikatua I eta Ekonomia Aplikatua IV Sailek bultzatzen dute. Masterraren xede nagusia ikertzaileak trebatzea da. Globalizazioaren fenomenoaren eta Garapen prozesuen arteko harremanak aztertzen ditu, Giza Garapenaren eta Iraunkortasunaren ikuspegitik.<br>Izaera metodologikoko edota teknika kuantitatiboei buruzko irakasgaiez gain, master honek oinarrizko hiru alderdi jorratzen ditu: globalizazioa, hau da, esparru ekonomiko, sozial, politiko zein kulturalean harremanek eta prozesuek bizi duten mundializazioa; garapena, kasu honetan giza garapenaren eta iraunkortasunaren paradigmen bitartez aztertua; eta nazioarteko lankidetza, bizikidetza baketsua eta mundu osoaren garapena sustatzeko nazioarteko gizarteak eskura duen tresna gisa. | Hegoa. Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua |
| Gobernantza eta Politika Ikasketak Unibertsitate Masterra | Askotariko interesak bil ditzaketen ikerketa ildo ugariak eta eguneratuak (jokabide eta analisi politikoa, administrazioa eta politika publikoak, parte-hartze politikoa eta gobernantza, gobernu elektronikoa, ekologismoa eta ingurumen politikak, administrazioaren modernizazioa, ekintza kolektiboa eta gizarte mugimenduak, etab.). | Politika eta Administrazio Zientzia |

| | | |
|---|---|---|
| Ikerketa eremu sozio-hezitzaileetan Masterra | Master proposamen honen interes akademikoa honako hau da: hezkuntza-ikerkuntzako arlo zehatz bat, hain zuzen ere, eremu sozio-hezitzailea aztertzea. Egungo bizimoduaren beharrak, gero eta nabarmenagoak dira esku-hartze sozio-hezitzaileen eremu ezberdinetan (kultura artekoa, hezkuntza inklusioa, familia, haurtzaroa, etorkinak, etab.). Horrek eskatzen du, eragile, eremu, erakunde eta profesionalak kontutan hartuz gogoeta prozesu bat egitea. Hezkuntza ikerkuntzak prozesu hori susper dezake. Beraz, masterraren diseinuan hezkuntza ikerketan oinarritzen diren gaiez aparte, kontutan hartu dira baita, era zabalean eremu sozio-hezitzailea osatzen dituzten hainbat eduki ere, bai kualitatiboki eta kuantitatiboki. | Hezkuntzaren Teoria eta Historia |
| Eleaniztasuna eta Hezkuntza Unibertsitate Masterra | Azken urteetan eleaniztasunaren ikasketak asko aurreratu du. Gaur egun hobeto ezagutzen ditugu hezkuntza testuinguruetan garatzen diren hizkuntzak ikaste eta erabiltze prozesuen arteko erlazioak. Zenbait ikuspegi teorikok, esaterako, *dynamic systems* ikuspegiak edo gaitasun aniztasuneko ikuspegi holistikoak ikerketa berriak sustatu dituzte, baita ikerketa metodo berritzaileen erabilera ere. | Hezkuntzako Ikerkuntza eta Diagnosi Metodoak |
| Partaidetza eta Komunitate-Garapen Unibertsitate Masterra | Master honen azken helburua gure gizartean partaidetzako demokrazia bultzatzea da; horretarako hiritarrek politika publikoen definizio demokratikoan eragina izan dezaten bultzatzeko gai diren profesionalak prestatu nahi ditu. Hala, profesional horiek politika hauek garatzeko, erabakitzeko eta ebaluatzeko gai diren partaidetza-prozesu erabatekoak dinamizatu behar dituzte. Era berean, profesional horiek administrazio publikoen funtzionamendua eta, honekin batera, efizientzia eta eraginkortasuna demokratizatzen lagunduko dute; eta, orokorrean, gizarte eta elkarte ehuna indartzea eta pertsonek beren izatean eta komunitatearen bilakaeran duten protagonismoa sustatuko dute. | Politika eta Administrazio Zientzia |
| Gizarte Demokratikoa, Estatua eta Zuzenbidea Unibertsitate Masterra | Masterraren helburua fenomeno horri buruzko gogoeta eta ikerketa bultzatzea da, gizarte demokratikoagoak eraikitzeko balioko duten ideia berriak plazaratzeko. Horretarako Europako eredu demokratiko zaharraren eta Latinoamerikako eredu berrien artean elkarrizketa bultzatu eta, diziplina arteko ikuspegi batetik, ekonomiaren, antropologiaren, filosofiaren, soziologiaren eta zientzia politikoaren arloetatik ekarpenak egin nahi ditu, ikuspegi juridiko nagusia albo batera utzi gabe, jakina. "Gizarte Demokratikoa, Estatua eta Zuzenbidea" Unibertsitate Masterraren xedea, beraz, prestakuntza hori osatzea da. Hala, beste ikuspegi batetik abiatzen diren gogoeta eta ezagutzen bitartez, legelari kritikoagoak sortu nahi ditu, beren egitekoaz eta gizartearen errealitateaz jabetuko direnak, abokatu auzilari "profesionalen" ikuspegitik harago. | Administrazio Zuzenbidea, Konstituzio Zuzenbidea eta Zuzenbidearen Filosofia |

Iturria: Egileak, UPV/EHUren web orrialdeko datuak erabiliz.

| 8. taula. Garapenerako Hezkuntzaren eta Hezkuntza Emantzipatzailearen zeharkako alderdiak lantzen dituzten berezko tituluak (2015-2016 ikasturtea) | | |
|---|---|---|
| Izena | Helburua eta interes arloak | Sail edo Institutu arduraduna |
| Agroekologia: trantsiziorako gure bideak lantzen (Graduondokoa: Unibertsitateko Espezialista)_ | Ikasketa plana: Ikuspegi ekonomikoa; Ikuspegi globala; Ikuspegi juridiko-politikoa; Ingurumen ikuspegia; Ikuspegi soziala; eta Lurralde ikuspegia. | Ekonomia Aplikatua I |

| | | |
|---|---|---|
| Nazioarteko Lankidetza Ez Zentralizatua: Bakea eta Garapena Agenda Globalaren Azterketa eta Kudeaketa, Nazio Batuen Sistemaren Esparruan (Graduondokoa: Berezko Masterra) | Master hau 1997an sortu zen gatazken garapen, analisi eta konponbiderako nazioarteko lankidetzaren espezializazio arloan gazteen prestakuntza eta laneratzea bultzatzeko. Haren helburua da garapenerako nazioarteko lankidetza publiko eta pribatuaren esparruan dagoen profesionalen eskaerari erantzutea.<br>Giza garapenaren dimentsio politikoen garrantzia aintzat hartu beharra du oinarri. Horretarako, demokrazia eta herritartasun soziala indartu eta bakearen eta garapenaren arteko harreman estua landu beharra dago. Izan ere, hori da, hain zuzen ere, politika neokontserbadoreen eta neoliberalen eskema zorrotz eta gizatasunik gabekoen aurrean Estatuaren eta instituzioen legitimitate berri bat lortzeko bidea. | Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia |
| Nazioarteko Lankidetza eta Hezkuntza Askatzailea (Graduondokoa: Berezko Masterra) | (1. edizioa: 2015-2016). Master honen helburua hauen prestakuntza profesionala hobetzea da: lankidetzan eta/edo hezkuntzan aritzen diren pertsonak eta gizarte ekintza eremu desberdinetan aritzen diren pertsonak. Horretarako beharrezkoa da tokiko eta mundu mailako errealitatea modu kritikoan ikus dezaten sustatzea; lankidetzari eta hezkuntzari lotutako eduki espezifikoak etengabe eguneratzea; irizpide etikoen araberakoa den eta gizartea hobetzeko asmoa duen garapen profesionala lortzeko baloreak eta gaitasunak garatzea. | Hegoa. Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua |
| Ingurumena eta iraunkortasuna (Graduondokoa: Unibertsitateko Espezialista) | Diziplinarteko ikuspegi batetik, kurtso horrek ezagutzetan oinarritutako prestakuntzaz gain, motibazioetan, jarreretan eta baloreetan ere oinarritzen du prestakuntza hori, gure gizartean ditugun iraunkortasun arazoei konponbide bal bilatzeko asmoz. Garatutako ezagutzak enpresetan, instituzioetan edo beste erakunde batzuetan egingo diren praktiken bitartez aplikatuko dituzte ikasleek. Programa hiru modulu presentzialen bitartez garatzen da: 1. Iraunkortasuna, begirada global bat; 2. Garapen iraunkorra eta ingurumen zerbitzuak eta 3. Iraunkortasuna eta bizi kalitatea. | Landareen Biologia eta Ekologia Saila eta Garapen Iraunkorrari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCO Katedra |

Iturria: Egileak, UPV/EHUren web orrialdeko datuak erabiliz.

9. taula. Graduondoko eskaintzaren laburpena

| | Guztira | GH/EH ikuspegia |
|---|---|---|
| Doktoregoak | 65 | 4 |
| Unibertsitate Masterrak | 111 | 14 |
| Berezko tituluak | 33 | 4 |
| **Guztira** | **209** | **22** |

Iturria: Egileak, UPV/EHUren web orrialdeko datuak erabiliz.

#### 1.3.1.3. Praktika programak, Gradu Amaierako Lanak eta Ikastaro monografikoak

*Garapenerako Lankidetzaren inguruko unibertsitate-praktikak edo Gradu amaierako lanak*

Garapenerako Lankidetzaren inguruko unibertsitate-praktikak edo Gradu amaierako lanak programa Garapenerako Lankidetza Bulegoak bultzatu zuen 2003-2004 ikasturtean. Bere misioa "munduko desberdintasunen jakitun diren eta gizarteen garapenaren arazoei buruzko eztabaidetan parte hartzeko gai izango diren profesionalak trebatzea" da. Hala, "ikasleei aukera ematen die nahitaezko praktikak eta gradu amaierako lana garapen bidean dauden herrialdeetan lankidetza programak gauzatzen dituzten erakundeekin egiteko eta esperientzia hori prestakuntzaren parte bilakatzeko.

Programa hori UPV/EHUren eta Euskal Fondoa-Asociación de Entidades Locales Vascas Cooperantes (Euskal Tokiko Erakundeen Lankidetzarako Elkartea) elkartearen arteko lankidetza hitzarmen baten bitartez garatzen da. Horrez gain, UPV/EHUko ikasleen %0,7 Fondoaren babesa du eta hitzarmenak ditu Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait GGKErekin eta atzerriko zenbait erakunderekin. Gainera, Unibertsitate praktikak eta Gradu Amaierako Lanak egiteko diru-laguntza deialdi bat ere badago, Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzak bultzatua.

Programak bi modalitate desberdin hauek ditu:

A) Garapenerako Lankidetzaren alorreko unibertsitate-praktikak garatzeko bidean dauden herrialdeetan 2016/2017 ikasturtean. Praktika hauen helburuak dira ikasleek euren prestakuntza akademikoan jasotako elementu teoriko eta praktikoak bateratzea eta errealitate soziala ebaluatu eta gizartea aldatzeko estrategiak planifikatzeko duten gaitasuna indartzea, era berean euren prestakuntzak ematen dizkien funtzio profesionaletatik gizarte arazoen prebentzioa, murrizketa edo konponbideari helduz.

B) Gradu Amaierako Lanak garapenaren eta/edo lankidetzaren alorrean egitea 2016/2017 ikasturtean. Proiektu hauen helburua da UPV/EHUko unibertsitate-eskola eta Fakultateko ikasleek Graduan jasotako ezagutzak GGKEek eta lankidetza erakundeek planteatutako “arazo teknikoak” konpontzeko erabiltzea, era honetako gradu amaierako lanak eginez: teknologia egokien prototipoak, Giza Garapenerako teknologiei buruzko azterketa eta garapenerako lankidetza edo laguntza humanitarioaren alorreko programa eta proiektuetan integratutako proiektuak.

UPV/EHUko ikasleek programa honen inguruan duten interesa mantendu izan da; 2012-2013. urtean bakarrik egon zen beherakada bat. Aitzitik, 2011-2012 ikasturtean 78 pertsonak hartu zuten parte; lau urte geroago partaide kopurua 77 da. Era berean, Latinoamerikan, Afrikan eta Asian praktika hauek jasotzen dituzten herrialde kopurua ere mantentzen da. Ikasleen artean emakumeen parte-hartzea oso handia da; izan ere, aztertutako urte guztietan ikasleen %78 baino gehiago izan dira.

10. taulan ikusten denez, Garapenerako Lankidetzaren inguruko unibertsitate-praktikak edo Gradu amaierako lanak programan, tituluen araberako parte-hartzea oso adierazgarria da. Magisteritza da gehien errepikatzen dena %42rekin. Horri Filosofia eta Hezkuntza Zientziak gehitzen badiogu %55 daukagu. Kontzentrazio altu horrek erakusten duenen, hezkuntzako ikasleak dira praktikak eta lanak garapenerako lankidetzaren arloan egitea nahiago dutenak. Alderantziz, Komunikazio Zientzien eta Zientzia eta Teknologia fakultateko irakasle batek ere ez du programan parte hartu aztertutako denboraldian. Gure ustez, arrazoiak hauek izan daitezke: ezagutza falta edo ikastegi horien eta GGKEen arteko lankidetza tradizio falta.

10. taula. Garapenerako Lankidetzaren inguruko unibertsitate-praktikak edo Gradu amaierako lanak programa

| Jatorrizko ikastegia | 2011-2012 | 2012-2013 | 2013-2014 | 2014-2015 | **Guztira** | Ehunekoa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Magisteritza | 32 | 14 | 40 | 35 | 121 | 41,58 |
| Psikologia | 17 | 23 | 12 | 14 | 66 | 22,68 |
| Filosofia eta Hezkuntza Zientziak | 14 | 7 | 7 | 11 | 39 | 13,40 |
| Gizarte Langintza | 6 | | 7 | 10 | 23 | 7,9 |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Medikuntza eta Odontologia | 1 | 16 | | | 17 | 5,84 |
| Ingeniaritzak | 1 | 2 | 4 | | 7 | 2,40 |
| Erizaintza | 2 | 1 | 1 | 2 | 6 | 2,06 |
| Arkitektura | 1 | | 1 | 4 | 6 | 2,06 |
| Farmazia | 3 | | | 1 | 4 | 1,37 |
| Arte Ederrak | 1 | | | | 1 | 0,34 |
| Ekonomia eta Enpresa Zientziak | | 1 | | | 1 | 0,34 |
| **Guztira** | **78**<br>♀ 62 ♂ 16 | **64**<br>♀ 46 ♂ 18 | **72**<br>♀ 63 ♂ 9 | **77**<br>♀ 58 ♂ 19 | **291**<br>♀ 229 ♂ 62 | 100 |

Iturria: Egileak, Garapenerako Lankidetza Bulegoaren Jarduera Memorietako datuak erabiliz.

11. taula. Garapenerako Lankidetzaren inguruko unibertsitate-praktikak edo Gradu amaierako lanak programa garatze aldera GGKEekin egindako hitzarmen

| Ikasturtea | Ikasleak (kopurua) | GGKE | Herrialdeak (kopurua) |
|---|---|---|---|
| 2011-2012 | 78<br>♀ 62 ♂ 16 | Medicus Mundi<br>Mugarik gabeko Dentistak<br>Haurralde Fundazioa<br>Nazioarteko Elkartasuna - Solidaridad Internacional<br>OSALDE<br>NUYUN | 13 |
| 2012-2013 | 64<br>♀ 46 ♂ 18 | Medicus Mundi<br>Mugarik gabeko Dentistak<br>Haurralde Fundazioa<br>Nazioarteko Elkartasuna - Solidaridad Internacional<br>OSALDE<br>NUYUN | 14 |
| 2013-2014 | 72<br>♀ 63 ♂ 9 | Mugarik gabeko Ingeniaritza Euskadi<br>SERSO San Viator Euskalherria<br>Nazioarteko Elkartasuna - Solidaridad Internacional<br>Haurralde Fundazioa<br>Manuel IradierElkarte afrikanista<br>Etiopia Utopia Fundazioa<br>Desarrollo Compatible Elkartea<br>IC-LI Gasteiz<br>Medicus Mundi Gipuzkoa<br>Activos/as por un Mundo Solidario<br>Bidez Bide Gizarte Sustapenerako Kultur Arteko Elkartea<br>Pies por la Tierra | 14 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 2014-2015 | 77 | | SERSO San Viator Euskalherria<br>Etiopia Utopia Fundazioa Tikal<br>Haurralde Fundazioa<br>Mugarik gabeko Arkitektoak<br>Mugarik gabeko Ingeniaritza Euskadi<br>Medicus Mundi Gipuzkoa<br>Bidez Bide Gizarte Sustapenerako Kultur Arteko Elkartea | 13 |
| | ♀ 58 | ♂ 19 | | |

Iturria: Egileak, Garapenerako Lankidetza Bulegoaren Jarduera Memorietako datuak erabiliz.

Praktikak Lankidetza proiektuetan 2000-2001 ikasturtean hasi ziren Gasteizeko Magisteritza Eskolan, Eki Haizea GGKErekin batera Ekuadorreko Amazoniako zenbait eskolara bideratuta. 2002az geroztik, Garapenerako Lankidetza Bulegoak interesa du martxan jarritako prozesu horretan eta, esperientziaren bilakaerari eta ekimenei laguntzeko, horren oinarrizko ildoak hartzen ditu eta beste ikastegi batzuetara zabaltzeko markoa sortzen du. Hala, zenbait ikasle eta elkarte solidarioren ekimena izandakoa UPV/EHU osoko programa paregabe bilakatzen da.

Azken urteotan, Arabako Aldundiaren diru-laguntza duen UPV/EHUko berezko programa horrek jardun-ildo desberdinak garatzen ditu irakaskuntzan, ikerketan eta aholkularitza tekniko-pedagogikoan. UPV/EHUko Magisteritza Unibertsitate Eskola desberdinetako eta Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko hainbat irakaslek inplikazio zuzena dute eta ikastegi horietako hainbat ikasleri praktikak egitea errazten diete. 2014-1015 ikasturtean, Ekuadorreko instituzioen interesaren eta sostenguaren eraginez, Ekuadorreko Hezkuntza Ministerioak eta UPV/EHUk instituzio arteko lankidetza hitzarmen bat tramitatzen hasi ziren.

### *Ikastaro monografikoak*

Garapenerako Lankidetza proiektuetan praktikak egin nahi dituzte ikasleek Garapenerako Lankidetza Bulegoak egiten dituen ikastaroetan parte hartu behar dute, derrigorrez. Horiek UPV/EHUko ikastegi desberdinekin, Hegoa Institutuarekin eta Euskal Herriko zenbait GGKErekin koordinatzen dira.

Bulegoaren esanetan, ikastaro horiek egokiak dira; izan ere, “unibertsitatearen helburu nagusia prestakuntza izanik, bere eginkizunetako bat da etorkizuneko belaunaldiei prestakuntza ematea gizarteko arazoak eztabaidatzeko guneetan parte hartu dezaten berdintasuna, jasangarritasuna eta giza eskubideak oinarri hartuta”.

12. taula. Ikastaro monografikoak

| Ikasturtea | Ikasleak (kopurua) | | Ikastaroak (kopurua) | GH/HE lantzen duen ikastaroaren izena |
|---|---|---|---|---|
| 2011-2012 | 149 | | 8 | - Garapenerako lankidetza solidarioa (Gipuzkoako eta Arabako Campusak)<br>- Lankidetzara sarrera eta giza garapenerako teknologia (Gipuzkoako eta Arabako Campusak)<br>- Garapenerako Lankidetza eta Hezkuntza (Bizkaiko eta Gipuzkoako Campusak, euskaraz ere)<br>- Garapen Lankidetza eta Komunikazioa (Bizkaiko Campusa)<br>- Garapenaren eta Lankidetzaren Egungo Erronkak Ekonomia Globalean (Bizkaiko Campusa) |
| | ♀ 114 | ♂ 30 | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 2012-2013 | 272<br>♀ 212 ♂ 60 | 9 | - Lankidetzara sarrera eta giza garapenerako teknologia (Bizkaiko eta Gipuzkoako Campusak)<br>- Garapenerako Lankidetza eta Heziketa (Bizkaiko eta Gipuzkoako Campusak, euskaraz ere)<br>- Lankidetza eta Osasuna (Bizkaiko Campusa)<br>- Garapenerako lankidetzaren hastapenak (Gipuzkoako Campusa)<br>- Garapenerako Lankidetza Solidarioa (Gipuzkoako Campusa)<br>- Garapena eta Lankidetza Solidarioa (Arabako Campusa)<br>- Garapenerako Lankidetza Solidarioa (Arabako Campusa) |
| 2013-2014 | 244<br>♀ 232 ♂ 77 | 12 | - Introducción a la Cooperación y Tecnología para el Desarrollo Humano (Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Campusak)<br>- Hezkuntza eta lankidetza garapenean (Bizkaiko eta Gipuzkoako Campusak, euskaraz ere)<br>- Retos actuales del Desarrollo y la Cooperación en la Economía Global (Bizkaiko Campusa)<br>- Introducción a la cooperación para el Desarrollo (Gipuzkoako Campusa)<br>- Cooperación solidaria para el Desarrollo (Gipuzkoako eta Arabako Campusak)<br>- Construyendo una Economía Justa (Gipuzkoako Campusa)<br>- Desarrollo y cooperación solidaria (Arabako Campusa)<br>- Introducción a la cooperación sanitaria y nutricional (Arabako Campusa) |
| 2014-2015 | 244<br>♀ 188 ♂ 56 | 11 | - Introducción a la Cooperación y Tecnología para el Desarrollo Humano (Bizkaiko, Gipuzkoak eta Arabako Campusak)<br>- Hezkuntza eta lankidetza garapenean (Bizkaiko eta Gipuzkoako Campusak, euskaraz ere)<br>- Retos actuales del Desarrollo y la Cooperación en la Economía Global (Bizkaiko Campusa)<br>- Introducción a la cooperación para el Desarrollo (Gipuzkoako Campusa)<br>- Cooperación solidaria para el Desarrollo (Gipuzkoako eta Arabako Campusak)<br>- Desarrollo y cooperación solidaria (Arabako Campusa)<br>- Introducción a la cooperación sanitaria y nutricional (Arabako Campusa) |

Iturria: Egileak, Garapenerako Lankidetza Bulegoaren Jarduera Memoriako datuak erabiliz.

Ikastaroetako edukiak ematen diren ikastegien tituluetara moldatzen dira (Farmazia Fakultatea, Magisteritza Unibertsitate Eskola, Unibertsitate Eskola Politeknikoa, Ingeniaritza Unibertsitate Eskola, Gizarte Langintza Unibertsitate Eskola, Komunikazio Zientzien Fakultatea, Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea, Psikologia Fakultatea eta Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea) eta ikastaro bakoitzak 50 ordu irauten ditu eta, hortaz, graduko ikasketetan hautazko 2 kreditu balio du. Urtero, 10 ikastaro inguru egiten dira Garapenari eta Lankidetzari buruz.

Gainera aurreko koadroan bildutako ikastaro horiez gain, Iraunkortasun Bulegoak 2013ko azaroan antolatutako beste ikastaro monografiko hau nabarmendu nahi dugu: "La sostenibilidad desde la Universidad: una reflexión interdisciplinar" (Iraunkotasuna Unibertsitatetik: diziplina arteko hausnarketa). Ikastaro horren helburua graduko ikasleen formakuntza osatzea zen. Horren programan azaltzen den bezala "UPV/EHUren ustez, goi mailako hezkuntza instituzioen heziketa funtzioak profesional gaituak trebatzeaz harago joan behar du. Unibertsitate horrek

Iraunkortasunaren arloan egin dezakeen ekarpen nagusia hau da: giza garapenari lagunduz, eguneroko eraikuntza lanean parte hartzen duten pertsona eta profesional konprometitu eta arduratsuak, herritar libre, tolerante, trebatu eta kritikoak prestatzea. Hau da, giza garapen iraunkorrarekin konprometitutako herritartasun eredua".

### 1.3.1.4. Irakasleen eta laguntzaileen etengabeko prestakuntza

#### *Unibertsitateko irakasleen irakas-prestakuntza (UIPRE)*

13. taula. Unibertsitateko irakasleen irakas-prestakuntza (UIPRE) programaren ikastaroak

| Ikasturtea | Izena | Zenbat bider eman da |
|---|---|---|
| 2011 | Web orrialdean informaziorik ez | |
| 2012 | Web orrialdean informaziorik ez | |
| 2013 | Sentir, Pensar y Hacer: Emociones, inteligencia y creatividad aplicada a la enseñanza. | 2 |
| 2014 | Sentitu Pentsatu eta egin: emozioak adimena eta sormena irakaskuntzari aplikatuta | 2 |
| | La Cooperación Universitaria al Desarrollo, incorporación al currículum. | 3 |
| | Hombres, igualdad y masculinidad. | 1 |
| | Comunicar en igualdad: cómo evitar los usos sexistas del lenguaje. | 3 |
| | Introducción de la perspectiva de género en los ámbitos científico y tecnológico. | 1 |
| 2015 | Estrategias Grupales y Cooperativas en el proceso de enseñanza-aprendizaje universitario. | 1 |
| | Orientaciones para la realización de Prácticas y Trabajos Fin de Grado en Proyectos de Cooperación Universitaria al Desarrollo. (ofertado por la Oficina de Cooperación). | 1 |
| | Diskurtsoa eta generoa: euskararen erabilera ez sexistatik diskurtso barne-hartzailera | 2 |
| | Introducción de la perspectiva de género en el ámbito jurídico-económico. | 1 |
| | Sentir, Pensar y Hacer: redescubriendo la pasión por aprender. | 1 |
| | Pautas para el análisis feminista en el ámbito jurídico-económico. | 1 |
| | Berdindu eskolak: Sexu aniztasuna hezkuntza arloan. | 1 |

Iturria: Egileak, UPV/EHUren web orrialdeko datuak erabiliz.

#### *Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuak (HBP)*

Ez dugu 2013. urtea baino lehenagoko informaziorik lortu proiektu horien inguruan.

14. taula. Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektua

| 2013-2015ko deialdian onartutako proiektuak |
|---|
| Aprendizaje Basado en Problemas Ambientales: disciplinas |
| Desarrollo de las competencias transversales en el Grado de Administración y Dirección de Empresas: la percepción de los y las tituladas. |

| |
|---|
| Creación de Entornos Personales de Aprendizaje (PLE), desde la cooperación y colaboración en Comunidades de Prácticas (CoP) formadas por alumnado y profesorado del Grado de Educación Primaria. |
| Diseño e implementación de nuevas técnicas de aprendizaje autónomo, cooperativo y colaborativo mediante resolución de problemas en laboratorios de Ingeniería Eléctrica |
| Dinamización de equipos docentes para el desarrollo gradual de las competencias transversales |
| ABParteHartuz: Aprendizaje basado en la investigación participativa (*Inquiry based learning*). |
| 2014-2016ko deialdian onartutako proiektua |
| HBT Aditua modalitatea |
| Metodologías activas basadas en el trabajo colaborativo: ¿en qué medida pueden mejorar el rendimiento y el *engagement* del alumnado. |
| HBT modalitatea |
| La Cooperación al Desarrollo como marco para la adquisición de competencias transversales en el Grado en Fundamentos en Arquitectura. |
| CTs en TFGs de Inclusión Alimentaria. Las competencias transversales de Compromiso Ético y Social en TFG de Responsabilidad Social contra la pobreza alimentaria en la CAPV: diseño, implementación y evaluación en un equipo multidisciplinar. |
| Diseño e implementación de un programa interdisciplinar para la aplicación de metodologías activas y la evaluación de competencias transversales. |
| 2015-2017ko deialdian onartutako proiektuak |
| HBT Aditua modalitatea |
| Desarrollo de la competencia transversal "sostenibilidad y responsabilidad social" en la titulación Nutrición Humana y Dietética mediante metodologías activas y cooperativa. |
| HBT modalitatea |
| Motivando transversalmente: Aprendizaje multidisciplinar Basado en Proyectos. |
| S.O.S.tenibilidad: formando a los/as Ingenieros/as del futuro. |
| Dinamika kooperatiboen ezarpena (hezkuntza aktibo, kooperatibo eta autonomoa) lehen urteko ingeniaritzako adierazpen grafiko jakintza arloan. |
| El aprendizaje-servicio (APS) con fin social: una experiencia ABP interuniversitaria de docencia de Ciencia de Materiales en diferentes grados ingeniería. |
| Aprendizaje-Servicio y Comunidades de Aprendizaje: espacios de aprendizaje, participación y diálogo igualitario. |

Iturria: Egileak, UPV/EHUren web orrialdeko datuak erabiliz.

### 1.3.2. Ikerketa

Ezagutza eguneratzeari, gizartearekin eta bere interesekin konektatzeari eta problematiken aurrean alternatibak aurkitzeari dagokionez, ikerketa ere Unibertsitatearen estrategia nagusietako bat da. Atal honetan, orientazio hori duten ikerketa proiektuei begirada bat emango diegu.

#### 1.3.2.1. Parte Hartuz taldearen Ikerketa Proiektuak

Hurrengo taulan, Parte Hartuz taldeko kideek garatutako ikerketa proiektuak biltzen ditugu. Web orrialdean, bi ikasturte hauetako informazioa besterik ez dugu aurkitu.

| 15. taula. Parte Hartuz taldearen ikerketak |
|---|
| 2011-2012 |
| Achieving real change with innovative transport measures demonstrating energy savings. |
| Inmigración y Salud Transcultural en Euskadi. |
| Proyecto para el desarrollo de Vitoria-Gasteiz como ciudad educadora (Fase III). |
| Sensibilización y vinculación de experiencias del norte y del sur en la búsqueda de estrategias frente a la deuda ecológica y el modelo energético. |
| Ordizia hezi-gunea: Hiri Hezitzaile Proiektua. |
| Sensibilización y vinculación de experiencias del Norte y del Sur en la búsqueda de estrategias frente a la deuda ecológica. |
| Convenio de colaboración entre la UPV y el Gobierno Vasco para el desarrollo de acciones de participación ciudadana en políticas de Vivienda y asuntos sociales. |
| Cambio político y democracia participativa en Paraguay. |
| Convenio de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco con la UPV para el desarrollo de acciones de participación ciudadana en políticas de vivienda y asuntos sociales. |
| Ingurumen politiken komunikazioa INPOKO. |
| Convenio de colaboración entre el Departamento de Sociología de la UPV/EHU y el Ayuntamiento de Bilbao, Área de Igualdad, Cooperación y Ciudadanía. |
| Ventanas a América Latina: nociones de geopolítica y claves para entender un continente. |
| Explorando nuevas políticas urbanas. |
| Nueva Pobreza y exclusión social en los jóvenes en España. |
| Cooperación transfronteriza y sostenibilidad: estudio comparado vertientes pirenaicas/altiplano andino Perú/Bolivia. |
| El Marco Jurídico y la Acción Transnacional del Sindicalismo Vasco en la Globalización. |
| Proyecto europeo Arquímides sobre transporte y sostenibilidad: Evaluación anual de impacto del proyecto en el Campus de Gipuzkoa de la UPV/EHU. |
| BIORES- Responsabilidad de la economía vasca en la pérdida de biodiversidad global. |
| Bases para la elaboración de un programa de participación ciudadana Propuesta para el Programa de participación: Buen gobierno y planificación urbana de Bilbao. |
| Influencia de la subcontratación en la generación de riesgos psicosociales entre las personas empleadas en los sectores de limpieza, hostelería y seguridad en UPV/EHU. |
| Conflicte, Pau i Democràcia en l'àmbit local. Una proposta d'anàlisi comparativa. |
| El gobierno local vasco ante la desafección política: innovación democrática y participación ciudadana. |
| Participación Ciudadana e innovación en las políticas públicas locales. |
| La edad de jubilación: un replanteamiento atendiendo a los cambios en el ciclo vital de las personas. |
| Situación del Trabajo Social en España. |
| El movimiento de Okupación en España y Europa. |

| 2012-2013 |
|---|
| Estudio de las empresas multinacionales de ámbito vasco |
| Herritar Parte Hartzeasarrera: Albiztur. |
| Proyecto de Innovación Educativa (PIE): Técnicas de simulación en Relaciones Internacionales |
| Técnicas de simulación en Relaciones Internacionales: Implementación y difusión de tres simulaciones adaptadas a distintas asignaturas impartidas por la sección de Relaciones Internacionales, así como creación de un repositorio bibliográfico y de materiales en euskera, castellano e inglés. Proyecto de Innovación Educativa |
| Parte hartzeari sarrera |
| ¿Cómo puedo reducir los riesgos del consumo de alcohol con mi alumnado? Guía para la resolución activa de situación de riesgo de consumo de alcohol entre alumnado de instituto y su profesorado, en formato web. ¿Qué puedo hacer si tengo un problema por beber alcohol? Pasos para responder ante una situación- problema relacionada con el consumo de alcohol en menores entre 14 y 17 años, para la red social Tuenti. |
| Aurrekontu Partehartzaileak, lantaldearen dinamizazioa eta idazkaritza teknikoa. |
| Marcas que generan ventas: modelización del impacto |
| Hamaika Telebistako Facebookeko jarraitzaileen profil eta telebista gustuen online azterketa |
| Ikuspegi – Euskal Immigrazioaren Behatokia |
| Feminismos Modelos de Democracia y Participación |
| Infraestructuras culturales al servicio del turismo: Análisis cuantitativo del impacto |
| EHU eta Bilboko Udaletxearen arteko elkarkidetza Konbenioa |
| Análisis de instrumentos para la transformación y la cohesión social. Aplicación desde un marco de integración de la economía feminista y la innovación social. |
| Usurbilgo emakume baserritarrak historian zehar bizi izan duen errealitatearen azterketa |
| Participación y urbanismo: discusión pública en torno a diferentes figuras urbanísticas |
| Deuda ecológica vasca y biodiversidad global: implicaciones para el desarrollo |
| Aplicación de técnicas novedosas a las células solares de fósforo-aluminio de alta eficiencia |
| Estudio comparado del impacto de los nuevos pobladores en los distintos escenarios de la ruralidad: actores, prácticas y discursos. |
| Euskal Estatuaren pertzepzioa |
| Cooperación para un nuevo modelo energético: La transición democrática de la deuda ecológica al buen vivir |

Iturria: Egileak, UPV/EHUren web orrialdeko datuak erabiliz.

### 1.3.2.2. Nazioarteko Ikasketen Katedrak sustatutako ikerketak

Hurrengo taulan, Energia eta Garapenerako Lankidetzari buruzko mintegiaren esparruan egindako ikerketak biltzen ditugu. Ikerketa horiek Nazioarteko Ikasketen Katedrako ikertzaileek egin dituzte 2011-2015 urteetan.

| 16. taula. Nazioarteko Ikasketen Katedraren ikerketa | |
|---|---|
| Ikasturtea | Izena |
| 2011-2012 | - Definición de una estrategia de transporte sostenible en países de América Latina.<br>- Durban, ¿hacia un mundo libre de emisiones? Análisis crítico de la COP-17.<br>- Creación de agencias energéticas locales en países emergentes.<br>- Capacitación de técnicos especialistas en provisión de servicios energéticos sostenibles en países en vías de desarrollo.<br>- Mejora de la Eficiencia Energética en países emergentes.<br>- Capacitación de técnicos para dar servicio a comunidades rurales para desarrollo de proyectos de electrificación rural. |
| 2012-2013 | - Presente y futuro de los mercados de carbono. Éxito económico – fracaso Climático.<br>- Propuesta de un mix eléctrico en la triple frontera amazónica.<br>- Biocombustibles y desarrollo sostenible en América Latina: Análisis de los pros y contras.<br>- Energías renovables y potabilización del agua en los campamentos de refugiadas/os saharauis. |
| 2013-2014 | (Web orrialdean informaziorik ez) |
| 2014-2015 | - Las nuevas generaciones de los biocombustibles: aspectos tecnológicos y aspectos económicos.<br>- Implementación de la Iniciativa de la ONU "Energía sostenible para todos" en Bolivia. |

Iturria: Egileak, UPV/EHUren web orrialdeko datuak erabiliz.

### 1.3.2.3. Hegoa Institutuaren Ikerketa Proiektuak

Hegoa Institutuak ikerketa talde desberdinak ditu. Hauek dira talde horien lanak:

| 17. taula. Hegoa Institutuaren ikerketak | |
|---|---|
| Garapenerako Lankidetzarako Politiken Analisi taldea (finkatua) | |
| Ikasturtea | Izena |
| 2009-2012 | Análisis y Evaluación de Políticas de Cooperación al Desarrollo |
| 2011 | 25 años de cooperación al desarrollo en Euskadi. La política de las instituciones públicas y el sistema vasco de cooperación |
| 2012 | La cooperación al desarrollo de base local en Euskadi |
| 2013 | Sistematización y Análisis de Evaluaciones de intervenciones financiadas por la AECID a ONGD |
| 2013 | Coherencia de Políticas de Desarrollo en la CAPV. Diagnóstico y propuestas |
| 2013-2015 | Análisis y Evaluación de Políticas de Cooperación al Desarrollo |

| Giza Segurtasuna, Tokiko Giza Garapena eta Nazioarteko Lankidetza taldea (finkatua) | |
|---|---|
| Ikasturtea | Izena |
| 2011 | Ni olvido, ni silencio. Tribunal de conciencia contra la violencia sexual hacia las mujeres durante el conflicto armado en Guatemala |
| 2011 | El oasis de la memoria. Memoria histórica y violaciones de derechos en el Sáhara Occidental |
| 2012 | Mujeres con memoria. Activistas del movimiento de derechos humanos en El Salvador |
| 2012 | Meheris. La esperanza posible: fosas comunes y primeros desaparecidos saharauis identificados |
| 2012 | Memoria para la vida. Una comisión de la verdad desde las mujeres para Colombia |
| 2013 | Aspectos socio-políticos del Desarrollo Humano Local. Nuevas claves de análisis para la participación democrática y las interacciones público-privadas |
| 2013 | Marco teórico y metodológico del Desarrollo Humano Local |
| 2013 | El Desarrollo Humano Local desde la equidad de género. Un proceso en construcción |
| 2013 | Del desarrollo sostenible según Brundtland a la sostenibilidad como biomimesis |
| 2013 | La dimensión económica del Desarrollo Humano Local. La economía social y solidaria |
| 2013 | Interrelación local-global en los procesos de Desarrollo Humano Local |
| 2014 | Saber al fin. Fosas comunes, desaparición forzada y derecho a la verdad en el Sáhara Occidental |
| 2014 | Los otros vuelos de la muerte. Bombardeos de población civil en el Sáhara Occidental |
| **Hezkuntza taldea** | |
| Ikasturtea | Izena |
| 2009-2011 | Diagnóstico sobre la Educación para el Desarrollo en la UPV/EHU |
| 2011 | Informe sobre la situación de la Educación para la Ciudadanía en ocho comunidades autónomas |
| 2013 | Voces y saberes feministas. Hacia una agenda de cooperación emancipadora |
| 2014 | Desde abajo. Alianzas para una cooperación feminista |
| **Lankidetza kritikoa eta Gizarte Mugimenduak taldea** | |
| Ikasturtea | Izena |
| 2013 | Diagnóstico de la cooperación para el desarrollo vasca y oportunidades para la alianza con movimientos sociales |
| 2013-2015 | Cooperación internacional y movimientos sociales emancipadores. Bases para un encuentro necesario |
| 2014 | Cooperación vasca y movimientos sociales. Manual de implementación de la agenda alternativa de solidaridad internacionalista |
| 2014-2015 | Experiencias de formación política en los movimientos sociales |

Iturria: Egileak.

### 1.3.2.4. Doktore tesiak

Ikerketa honek aztertzen duen denboraldian UPV/EHUn irakurritako tesi guztiak sakon aztertzea diagnostiko honen helburuez harago doa. Jarraian aurkezten dugun zerrenda egiteko, "hezkuntza" eta "lankidetza" hitzak erabili ditugu Unibertsitateko web orrialdeak eskaintzen duen datu basean bilaketa egiteko.

| 18. taula. Doktore tesien zerrenda | | |
|---|---|---|
| Urtea | Izena | Saila / Institutua |
| 2011 | La interacción dialógica en los procesos de enseñanza-aprendizaje de la educación física: una experiencia educativa | Hezkuntzaren Teoria eta Historia |
| 2011 | Expectativas e implicación educativa de las familias inmigrantes de escolares en educación primaria de la CAPV: bases para la intervención educativa | Didaktika eta Eskola Antolakuntza |
| 2011 | Emakume eta gizonen berdintasuna irakasleen formazioan. Gasteizko irakasle eskolaren kasua | Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia |
| 2011 | El impacto de la diversidad socio-cultural en la escuela primaria desde la perspectiva del docente. Perfil psico-social y (re)construcción de significados | Gizarte-Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia |
| 2011 | Las microfinanzas en el marco de la financiación del desarrollo. Compatibilidad y/o conflicto entre objetivos sociales y financieros | Ekonomia Aplikatua I |
| 2012 | Claves para atender la diversidad afectivo-sexual en el contexto educativo | Hezkuntzako Ikerkuntza eta Diagnosi Metodoak |
| 2013 | Construcción de la paz posconflicto: Divergencias entre las organizaciones de mujeres y la cooperación internacional en El Salvador y Bosnia-Herzegovina | Hegoa |
| 2013 | Zaurgarritasun Ibilbideetan Balantzaka: Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentaren argi-ilunak | Hegoa |
| 2013 | El concepto de calidad en la educación superior como herramienta transformadora: Una aportación desde la Cooperación al Desarrollo | Hegoa |
| 2013 | La coherencia de los planes África a examen. La relación entre los flujos de migración y los fondos de cooperación al desarrollo entre África Occidental y la Unión Europea | Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia |
| 2014 | Debates conceptuales y aspectos organizativos de la economía solidaria: el caso de REAS Euskadi | Hegoa |
| 2014 | La cooperación al desarrollo de las comunidades autónomas del Estado español. Relevancia, alcance y aportación específica | Hegoa |
| 2014 | Redefiniciones del desarrollo y la cooperación en Ecuador. Transiciones críticas sobre buen vivir, cooperación internacional y participación social | Hegoa |

| | | |
|---|---|---|
| 2014 | Los procesos políticos y de formación en la construcción de capacidades para el Desarrollo Territorial. Una aproximación al aprendizaje desde la experiencia. | Hegoa |
| 2014 | Sexual orientation, violence and human rights in Africa: South African case study | Hegoa |
| 2014 | Derechos humanos y la globalización neoliberal. Una necesidad de adaptación | Administrazio Zuzenbidea, Konstituzio Zuzenbidea eta Zuzenbidearen Filosofia |
| 2014 | La transparencia en la emisión de información de las entidades sin fines de lucro. Hacia un modelo de indicadores | Finantza Ekonomia I (Enpresen Kontabilitatea eta Administrazioa) |
| 2014 | Incidencia de las revoluciones en los movimientos sociales transnacionales. El caso de la revolución cubana y su influencia en el movimiento antiglobalización | Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia |
| 2015 | Cambios en la identidad y cultura docente en procesos de innovación educativa en la Educación Superior. Estudio de un caso | Didaktika eta Eskola Antolakuntza |

Iturria: Egileak.

### 1.3.3. Gizarte konpromisoa

UPV/EHUk gizartearekin konprometitutako instituzio gisa ardura bat hartu behar du. Ardura hori identifikatzen duten jarduerak instituzioak gizarte konpromisoaren inguruan duen ideiaren barruan sartzen dira. Plan Estrategikoaren arabera (2012-2017), UPV/EHUk:

- Gizarte elkarrizketarako, topaketarako, hausnarketarako eta eztabaidarako espazio komunak sortuko ditu, gizartean duen inplikazioa handitzeko bide berriak sustatzeko asmoz.
- Konpromiso etiko argiaz eta gizarte erantzukizunez, ezagutza sortuko du, belaunaldi berrien prestakuntzan funtsezko eragile gisa eta iritzia sortzeko erreferente gisa.
- Batez ere, bizitza politikoan, kulturalean eta sozialean parte-hartze hobeagoa garatzeko lagunduko duten baldintzak lortzera bideratuko du Unibertsitatearen hedapena eta proiekzioa.
- Unibertsitate komunitatea modua aktiboago batean inplikatuko du bere inguruko arazo sozial eta kulturaletan.
- Parte hartzekoa eta demokratikoagoa den gizarte baten baloreak sakontzen lagunduko duten jarduerak garatuko ditu.

#### 1.3.3.1. Unibertsitate egiturek sustatutako diru-laguntzetarako deialdiak

*Ikasle elkarteen jardueretarako diru-laguntzak*

UPV/EHUren aurrekontuetako idazpen hori Ikasle Kontseiluak kudeatzen du eta asoziazionismoa bultzatzera bideratuta dago. Hala, Araudi bat dago UPV/EHUko erregistroan onartutako ikasle

elkarteen jarduueretarako diru-laguntzak arautzen dituena[16]. 2016ko uztailan, UPV/EHUren web orrialdean, 36 elkartez osatutako zerrenda bat argitaratu zuten.

Urtero zabaltzen den deialdi horretara ikasketa akademikoaren, kulturaren eta/edo Unibertsitate hedapenaren osagarri den edozein proiektu aurkez daiteke. Araudiak ezartzen duen balorazio irizpideetako bat gizarte erantzukizun ekintzak egotea da, berdintasun politikak, ingurumenarekiko konpromisoa, garapen iraunkorra, gizarte ekintza eta giza eskubideak errespetatzea sustatzen dituztenak.

Antza denez, zenbaitetan, ez da inor ere aurkeztu deialdi horretara. Horren arrazoiak desberdinak izan daitezke, esaterako, ikasleen elkarteek ez dutela hori ezagutzen edo deialdia ez dela haientzat interesgarria.

### *Iraunkortasunaren arloko berrikuntzarako laguntzetarako 2016ko deialdia (Iraunkortasun Bulegoa)*

2013. urtean Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzak Iraunkortasunaren arloko berrikuntzarako Laguntzak eskatzeko deialdi bat argitaratu zuen, iraunkortasunaren kultura bultzatuz eta UPV/EHUri berari aplikatuz (Campusa laborategi gisa). Urte horretako deialdian aipatzen denez, "jarduketa horrek zehaztuko eta ezaugarrituko ditu gure Unibertsitateko iraunkortasun-ezaren arazoak, eta horiek konpontzeko moduak bilatuko ditu (...) Laguntza horien bidez sustatu egin nahi dira Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean iraunkortasunaren kultura bultzatzen duten proiektuak, Unibertsitatean bertan zuzenean aplikatuko diren berrikuntza-proiektuak diseinatzeko eta garatzeko laguntzak emanez".

2014. urtean, honako hau eransten dute: " Laguntza horien bitartez, hainbat jarduketa sustatu nahi dira, UPV/EHU eragile aktibo gisa azaltzeko, giza garapen iraunkor bat lortze aldera. Ez da gure asmoa hezkuntza ikuspegia ingurumenari buruzko ezagutzak transmititzera mugatzea, iraunkortasunari begira pertsonen gaitasuna aldatzea da xedea hezkuntza aldaketa eraldatzaile bat lortzeko. Iraunkortasunaren aldeko hezkuntza pertsona motibatzaile eta konprometituetan zentratzen da, zehazki, etorkizun hobea sortzen lagundu eta ahalegintzen direnak tituludunek etorkizun alternatibo bat lortzeko beharrezkoak diren gaitasunak bereganatu ditzaten".

2014. urtean, aurkeztutako proiektuek, ingurumenaren inguruko sentsibilizazioaz gain, hezkuntza ikuspegia txertatu behar dutela aipatzen du deialdiak. Hala ere, ez da aldaketa garrantzitsurik sumatzen; izan ere, proiektu gehienek ingurumen gaiak lantzen dituzte modu espezifikoan baina ez dute horren inpaktu sozial eta kulturalarekiko loturak egiten (Ikus proiektuen informazioa 4. eranskinean).

### *Garapenerako lankidetzarako proiektu eta ekintzak aurrera eramateko diru-laguntzen deialdia (Garapenerako Lankidetza Bulegoa)*

Deialdian aipatzen den bezala, horren helburua da "UPV/EHUren unibertsitateko kideek lankidetza proiektuetan eta garapenerako hezkuntza proiektuetan laguntzea eta haiek bultzatzea, giza garapen maila apalagoa duten herriek bizi eta prestakuntza baldintzak hobe ditzaten; baita unibertsitateko kideen artean kontzientzia kritiko bat eta gizartearen eraldaketarako jarduerekin konpromiso solidario bat sortzea. Hala, deialdi honek laguntza ekonomikoak eskaintzen ditu lankidetza zein hezkuntza proiektuak osorik edo zati batean

16 <www.ehu.eus/documents/1775594/2004092/00+-+Ikasle+Elkarteentzako+Diru+Laguntzen+Araudia+2016>.

finantzatzeko, UPV/EHUko unibertsitateko kideek burutuko dituztenak honako arlo hauetan: irakaskuntza eta prestakuntza; garapena sustatzeko ikerketa; informazio, ezagutza eta teknologia transferentzia; Hegoaldeko herrialdeetako Unibertsitateen sendotze instituzionala; eta Garapenerako Hezkuntza".

Ikertutako denboraldian onartutako proiektu guztien artean (Ikus proiektuen informazioa 4. eranskinean), 2012-2013an onartutako bik bakarrik dute hezkuntza kritikoaren ildotik doan ikuspegia:

- Consolidación del programa Proyectos Fin de Carrera en Cooperación para el Desarrollo en la UPV/EHU (II. fasea).

- Cooperación para el fortalecimiento de la formación y la investigación-acción sobre género y memoria histórica del conflicto armado en El Salvador.

### *Garapenerako Unibertsitate Hezkuntza Proiektuetarako diru-laguntzen deialdia (Garapenerako Lankidetza Bulegoa)*

Garapenerako Hezkuntza Bulegoak 2011-2012 ikasturtean Garapenerako Unibertsitate Hezkuntza Proiektuetarako diru-laguntzak eskatzeko lehenengo deialdia egiten du. Guztira, bi deialdi egon ziren (2012-2013 ikasturtera arte) (Ikus proiektuen informazioa 4. eranskinean).

Hala, deialdi horren helburua "UPV/EHUko Unibertsitate Elkarteek eta ikasleek garapenerako hezkuntzako proiektuetan parte har dezaten babestea eta sustatzea da. Proiektu horiek modu eraginkorrean lagundu behar dute unibertsitateko kideen artean kontzientzia kritikoa eta gizartearen eraldaketarako jarduerekin konpromiso solidario bat sortze, gizarte eraldaketarako ekintzen bidez". Diru-laguntza ekonomikoen helburua, bada, "Unibertsitate Elkarteek gauzatuko dituzten garapenerako unibertsitate hezkuntzako proiektuak erabat edo zati batean" finantzatzea da. Horiek arlo honetan gauzatu beharko dira: "garapenerako hezkuntza: garapenerako hezkuntzako berezko estrategietako batekin edo batekin baino gehiagorekin "sentsibilizazioa, prestakuntza eta irakaskuntza, ikerketa, eragin politikoa eta gizarte mobilizazioa) erlazionatutako proiektuak, unibertsitateko kideek, bereziki ikasleek, gizarte eraldaketako ekintzetan parte har dezaten kontzientziatzera eta sustatzera bideratutakoak".

Deialdi hau UPV/EHUko Elkarteen Erregistroan sartutako elkarteei zuzenduta zegoen. Horiek, bada, garapenerako hezkuntza proiektuak aurkeztu zitzaketen, bakarrik zein Unibertsitateko Sail, Eskola, Fakultate eta unitate administratibo edo akademiko desberdinekin batera, baita Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Gobernuz Kanpoko erakunde ezberdinekin ere.

2013an egin zen azken deialdia; izan ere, zenbait unibertsitate elkarte desagertu dira (Bionatur eta Mugarik Gabeko Arkitektura) eta Mugarik Gabeko Ingeniaritza (ISF-MGI) besterik ez da geratzen. Garapenerako Lankidetza Bulegoak, hortaz, deialdi hori kentzea eta ISF-MGIrekin zuzenean hitzarmen bat sinatzea erabaki zuen, erakunde horrek egiten zituen ikastaro monografikoei jarraipena emateko asmoz.

### *%0,7 Elkartasun Fondoa Elkartearen proiektuetarako diru-laguntza deialdia*

Deialdi horretara aurkez daitezke elkarteen udal, EAE edo estatu mailako erregistro batean sartutako GKEak, deialdiaren aurretik, gutxienez, bi lankidetza proiektu egin izan dituztenak.

Proiektuak UPV/EHUko %0,7 Elkartasun Fondoko kideek onartzen dituzte, bozketa bidez (Ikus proiektuen informazioa 4. eranskinean).

Deialdi horrek bi proiektu mota hauek ahalbidetzen ditu: 1) garatzko bidean dauden herrietan urtebeteko iraupena duten garapenerako lankidetza proiektuak eta 2) laugarren munduan urtebeteko iraupena duten proiektuak. Azken horiek, Garapenerako Hezkuntzaren ikuspegiarekin erlaziona zitezkeen; ikertutako denboraldian, ordea, ez zen modalitate horretara proiekturik aurkeztu.

#### *Berdintasunerako Zuzendaritzako diru-laguntza deialdiak*

Zuzendaritza horrek 8 deialdi desberdin egiten ditu, berdintasuna sustatzeko helburua dutenak (Ikus deialdien informazioa 4. eranskinean).

Horietako batzuk beren garapenean generoko analisia txertatzen duten lan hauek saritzen dituen modalitateari dagozkio:

- Gradu Amaierako lanak
- Master Amaierako Lanak
- Doktore Tesiak

Beste deialdi kategoria batek izaera akademikoko topaketen modalitatea laguntzen du (jardunaldiak, mintegiak, batzarrak...).

Hirugarren batek graduondoko ikasleek ikasketa feministen eta generokoen inguruan ikertzea sustatzen du.

Azken modalitateak tailer eta batzarretan parte hartzeko eta ostatu gastuetarako diru-laguntza ematen ditu.

### 1.3.3.2. Sentsibilizazio jarduerak eta eragile desberdinek sustatutako beste zenbait ekimen

#### *Berdintasunerako Zuzendaritzak sustatutako sentsibilizazio jarduerak*

Berdintasunerako Zuzendaritzak, bere web orrialdean, hainbat dokumentu, diagnostiko eta txosten biltzen ditu, berezkoak zein eremu horretan erreferente diren beste pertsona eta instituzio batzuetakoak. Hala, *UPV/EHUren Jardun-Protokoloa, Genero-indarkeriazko ekintzei aurre egiteko* eta *Emakumeak eta Gizonak UPV/EHUn Diagnóstikoa. 2011. urtea* dokumentuez gain honako hauek nabarmendu nahi ditugu ikerketa honetarako duten interesagatik:

- *Guía para el uso no sexista de la lengua castellana y de imágenes en la UPV/EHU*[17]. Berdintasunerako Zuzendaritzak, gida horren hitzaurrean Unibertsitatea, sortzen duen dokumentazioaren bitartez, errealitatearen ikuspegi bat adierazten eta igortzen duen instituzio akademikotzat jotzen du. Era berean, gidaren arabera, Unibertsitateak zalantzan jarri behar ditu tradizioak eta etengabeko ikasketa bat eskatzen du, unibertsitate eremuan sexu araberako desberdintasuna ekiditeko eta gainditzeko.

17 Euskararen erabilera ez sexistarako bertsio bat ere badago: <https://www.ehu.eus/documents/2007376/0/Gida/d9665c73-f57d-4574-8b74-1d58d2b4ac05>.

- *Diagnostikoa: Genero ikuspegiaren txertaketa UPV/EHUko graduetan.* Graduen mapa horrek gaitasunak eta edukiak generoko ikuspegi batetik aztertzen ditu. Horrekin Berdintasunerako Zuzendaritzak ezagutzaren transmisioan generoko ikuspegia txertatzen lagundu nahi du.

- *UPV/EHUko Master Ofizialen mapa. 2011.* Ikerketa horrek Master Ofizialen eskaintza berrikusten du, bai hizkuntzaren erabilerari eta generoaren eta/edo berdintasunaren aipamenak egoteari dagokionez, bai berdintasunari eta generoko ikuspegiari buruzko irakasgaiak eta gai espezifikoak identifikatzeari dagokionez; izan ere, hori gai kezkagarria da hezkuntza ekintza kritiko bat egiteko.

Gainera, sentsibilizazioa eta zabalkundeari, eta prestakuntzari, ikerketari eta laguntzari dagokienez, Zuzendaritzak beste jarduera hauek ere sustatu ditu:

- UPV/EHUko genero ikuspegia txertatzen duten Gradu Amaierako Lanak ikustarazteko Jardunaldia (2015).
- Ikerketa-metodologia feministari buruzko ikastaroa: "Análisis crítico del discurso desde la perspectiva feminista" (2015).

### *Ikasleen Zuzendaritzak sustatutako sentsibilizazio jarduerak*

Ikasleen Zuzendaritzak, Bolunta - Boluntariotza eta Parte-hartzerako Agentziaren Unikide programarekin batera, Boluntariotzaren azoka sustatzen du. Hori, bada, gizarte erakundeen eta unibertsitateko ikasleen arteko topaleku bat izan nahi du, "sentsibilizatzeaz gain, ikasleei esparru horri buruzko informazioa eta prestakuntza emateko". Hauek dira ekimen horren helburuak: 1. Gizartearen parte-hartzea sustatzea unibertsitateko kideen artean; 2. Gizarte erakundeek gure inguruan egiten duten lana bistaratzea eta ezagutzera ematea; 3. Boluntarioek egindako lana aintzat hartzen laguntzea; eta 4. Boluntariotza solidariori lotutako baloreak hedatzea (konpromisoa, gizarte erantzukizuna, elkartasuna...).

### *Garapenerako Lankidetza Bulegoak sustatutako sentsibilizazio jarduerak*

Garapenerako Lankidetza Bulegoaren web orrialdearen arabera, bere eginkizun nagusietako bat, gai hauen inguruan unibertsitate komunitateari (IIL, AZL eta ikasleei) zuzendutako hedapen eta sentsibilizazio jarduerak daude: Hegoaldeko errealitateak eta gizarte "garatuetan" eman behar diren eraldaketak, Ipar-Hego harremanak errespetuan, berdintasunean, ekitatean eta justizian oinarritu daitezen.

Hala, 5. eranskinean esparru horretan garatutako ekimenak aurkezten ditugu, bai zerbitzu horrek egindakoak bai beste gizarte eragile batzuek kolektiboan egindakoak. Datu horiek aztertzean ikus dezakegunez, 2014-2015 ikasturtean sentsibilizaziorako egindako ekimenen zati handi bat Garapenerako Lankidetzaren inguruko Gradu Amaierako Lanak ezagutzera emateari eta Garapenerako Unibertsitate Lankidetza Proiektuak aurkezteari dagokie. Izan ere, horiek Bulego horren berezko ekintzak dira.

Beste alde batetik, UPV/EHUren eta GGKEen arteko lankidetzarako hitzarmenak nabarmendu nahi ditugu. Horiek jarduera desberdinetarako izan dira (Ikus informazioa 6. eranskinean). Aipatu ditugun akordioak urriak dira (6 bakarrik, ikerketa honek aztertzen duen denboraldian) eta denbora labur batean (2011-2012 eta 2012-2013) eta GGKE berberekin (Kultura, Comunicación y Desarrollo Elkartea; Paz con Dignidad - Bakea eta Duintasuna Elkartea; eta Medicus Mundi Gipuzkoa) egin zituzten.

*Iraunkortasun Bulegoak sustatutako sentsibilizazio jarduerak*

*Irakasle eta Ikertzaileentzako Mintegia: "Iraunkortasunerako Hezkuntza".* Mintegi hori 2014ko uztailan egin zen eta UPV/EHUko graduko ikasleen curriculumean iraunkortasuna inplementatuko zuen estrategia bat martxan jartzeko helburua izan zuen. Ekimen horren programaren hitzaurrean azaltzen denez, Iraunkortasun Bulegoa, antolatzaile gisa, bat dator Nazio Batuen Erakundearekin; izan ere, azaltzen duen bezala, araudi politikoak eta ekimen ekonomikoak ez dira nahikoak garapen iraunkorra lortzeko. Horrexegatik, bere hitzetan, "ezinbestekoa da jendearen pentsamoldeak eta jarduteko erak errotik aldatzea. Aspaldian aitortu zuen jada nazioarteko komunitateak ezen funtsezkoa zela hezkuntza, eraldaketa hori lortuko bada". Gainera "Garapen Jasangarrirako Hezkuntza (GJH) tresna bat da ikasleek etorkizun jasangarria osatzeko behar diren jakintzak, gaitasunak eta jarrerak eskura ditzaten. GJH gauzatu ahal izateko, beharrezkoa da oso irakaskuntza eta ikaskuntzan garapen jasangarriaren oinarrizko gaiak sartzea, aldaketa klimatikoa eta pobreziaren murriztea kasu".

*Irakasle eta Ikertzaileentzako Mintegia: "Iraunkortasuna eta curriculuma".* Mintegi hori 2015eko uztailan egin zen eta aurreko urtean Iraunkortasunerako Hezkuntzaren inguruan egindako horretatik sortzen da. Bere helburua irakaskuntzaren egoera ideala irudikatzea da. Horretarako, galdera hauek egiten ditu: Nolako curriculuma izan beharko genuke? Nola eman eskolak? Titulazioa/ikasketa-plana/irakasgaia/unibertsitate osoa kontuan hartuta?

*Jardunaldia: "Garapen Iraunkorrerako Helburu berriak: Euskadiko Garapenaren eta Lankidetzaren Agendan izan ditzaketen eraginak".* Iraunkortasuna sustatzera bideratutako marko horretan, 2015eko abenduan, beste zenbait erakunderekin batera, "Garapen Iraunkorrerako Helburu berriak: Euskadiko Garapenaren eta Lankidetzaren Agendan izan ditzaketen eraginak" jardunaldia antolatu zuten. Horren helburua Garapen Iraunkorreko Helburuen inguruko analisi kritikoari laguntzea zen.

Izan ere, jardunaldiak antolatzea beharrezkoa da ikuspegiak eta edukiak eztabaidatzeko eta eguneratzeko, baina horrelako mintegiak bereziki interesgarriak dira, ikuspegi sentsibilizatzaile hutsa gainditzen baitute eta auziaren muinari heltzen saiatzen baitira; hau da, hori curriculumean inplementatzeari.

Hala, unibertsitate instantzia desberdinek antolatutako sentsibilizazio ekimen ugari dago eta ez ditugu hemen garatuko, ikerketa honen ahalmena gainditzen dutelako. Hala ere, Unibertsitateak gizarte konpromisoaren eremuan egiten duenaren adierazgarriak diren heinean, 5. eranskinean oinarrizko informazioa eskaintzen dugu, ekintza horien inguruan.

### 1.3.4. Ardatz estrategikoei lotutako ekimenak, hezkuntza kritikoaren ikuspegian interesa izateagatik nabarmentzen ditugunak

Atal honetan, izaera eraldatzailea duten ekimenak aipatuko ditugu, bai irakaskuntzan, bai ikerkuntzan, sentsibilizazioan eta/edo gizarte konpromisoan. Aipatutako ekimenak sistematizatzeko fitxa bat egin eta hori espazio horietan sartutako zenbait pertsonak bete dute.

| Ekimenaren izena | Unibertsitate eraldaketa |
|---|---|
| **Bultzatzaileak** | Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko zenbait irakasle eta ikasle |
| **Kontaktua** | Joxi Imaz eta Marta Luxan |
| **Laburpena** | Kolektibo bat da, 2011tik Fakultatean Unibertsitatearen eta gizarte eraldaketaren arteko harremanaren inguruan hausnartzeko helburua duten jardunaldiak antolatzen dituena. |
| **Helburuak** | Beharrezkoa eta posiblea den gizarte eraldaketaren inguruko kontzientziazio lana. |
| **Interes gakoak Hezkuntza kritikotik** | • Unibertsitatearen "barruan/kanpoan" edo "akademia/borroka herritarra" eta antzeko zatiketak gainditzeko zubiak sortu edo arrakalak egin.<br>• Estamentuen arteko trabak ere gainditu: irakasleak, ikasleak, administrazio eta zerbitzuetako langileak...<br>• 2016-17 ikasturterako helburua barrura begiratzea da: esperientzia-proiektu interesgarriak gonbidatzeaz eta sarea sortzeaz gain, Fakultate barruan ere pauso zehatzak egin. |

| Ekimenaren izena | Berezko masterra: "Nazioarteko lankidetza eta hezkuntza askatzailea" |
|---|---|
| **Bultzatzaileak** | UPV/EHUko Hegoa - Nazioarteko Lankidetzari eta Garapenari Buruzko Azterlanen Institutua |
| **Kontaktua** | hegoa@ehu.eus |
| **Laburpena** | Garapenari buruzko ikasketen eremu zabalean, giza garapen iraunkorraren inguruko eztabaidak, analisiak, ikerketak eta proposamenak bezain garrantzitsua da pentsamendu kritikoa sortzea eta herritartasun kritikoa, arduratsua eta gizarte aldaketarekin, giza eskubideekin eta ekitatearekin konprometitua sortzen laguntzea.<br>Ikuspegi horretatik, erronka, bada, sozializazio kritiko eta hezigarri zabala bultzatzea da; tokiko eta nazioarteko testuingurua bere konplexutasunean ulertzeko beharrezkoa den jakintza sustatzen duena; irakurketa etiko eta eraldatzaileetatik, gizartea aldatzeko erabilgarria den ezagutza berri bat sortzen duena, irakurketa horiek pertsona eta komunitate guztien eskubideak indartzen eta beren emantzipazio interesei erantzuten dietelarik. |
| **Helburuak** | Helburu orokorra:<br>• Lankidetzari eta/edo hezkuntzari lotutako pertsonen prestakuntza profesionala hobetzea, baita gizarte ekintzako beste eremu batzuetara lotutako pertsonena ere.<br>Helburu espezifikoak:<br>• Ikasleak printzipio etikoen araberako garapen profesionalerako trebatzea eta gizarte justiziarekin eta ekitatearekin konprometitutako herritartasun aktibo, aske eta arduratsu baterako prestatzea.<br>• Ikasleek, etorkizunean, garapenerako lankidetzako lan inguruetan moldatzeko trebetasunak garatzea, bai administrazio publikoetan, bai nazioarteko erakundeetan eta bai gizarte zibileko erakundeetan.<br>• Ikuspegi pedagogiko kritikoetan eta parte hartzeko metodologien garapenean trebatzea, ikerketa esparrurako zein gizarte ekintzarako.<br>• Ezagutzak, trebetasunak, baloreak eta gaitasunak garatzea, profesional horiek beren jarduera eremuan gizartea eraldatzeko hezkuntza ekintzak bultzatzeko gai izan daitezen. |
| **Interes gakoak Hezkuntza kritikotik** | Tokiko eta mundu mailako errealitatea modu kritikoan ikustea; lankidetzari eta hezkuntzari lotutako edukiak etengabe eguneratzea; baloreak barneratzea eta gizartea hobetzeko irizpideetan eta irizpide etikoetan oinarritutako garapen profesionalerako gaitasunak garatzea. |

| Ekimenaren izena | Herri unibertsitatea |
|---|---|
| **Bultzatzaileak** | Bilbouni (San Mames, Sarriko, Deustu eta Begoñako Andra Mariko Fakultateak). |
| **Kontaktua** | https://buiaka.info/category/herri-unibertsitatea/ |
| **Laburpena** | Herri Unibertsitatea ikasleek berek bultzatutako ekimena da. Horrekin, hezkuntza eredu berri bat proposatu nahi dute, gaur egun nagusi den eremu merkantilista, kapitalista eta heteropatriarkaletik kanpo. |
| **Helburuak** | • Gaur egungo hezkuntza ereduari buruz hausnartzea era guztion artean eta guztiontzat egindako Unibertsitate alternatibo bat proposatzea.<br>• Unibertsitatean lantzen ez diren gaiak ikuspegi kritiko batetik lantzeko espazio partizipatibo bat sortzea.<br>• Autogestioa eta antolaketa (lan desberdinak taldean banatu, lan talde txikiagoak eginez, aurten 4 izan dira: komunikazioa, azpiegitura, zaintzak eta edukiak).<br>• Pertsona zehatz batzuentzat pribilegiozko traturik ez duen Unibertsitate horizontal bat sortzea.<br>• Hiru egun hauetan ikasitakoa eta egindako proposamenak kurtsoan zehar ideia horiek garatzeko tresna bat izatea.<br>• Indibidualismoarekin eta lehiakortasunarekin haustea.<br>• Pedagogia metodo berriak garatzea; ez da entzunez bakarrik ikasten, tailerrek era jolasek ere eguneroko egoera desberdinetan nola erantzuten den ikusteko balio dute, gorputza garrantzitsua da.<br>• Berdintasunean oinarritutako espazio seguruak sortzea (komunak, lanak banatzea, elkarlana, taldearen babesa...). |
| **Interes gakoak Hezkuntza kritikotik** | • Parte-hartzea, antolaketa eta hausnarketa, etikoa ez de horri aurre egiteko zein alternatibak eraikitzeko.<br>• Pertsonekiko eta ez interes ekonomikoekiko konpromisoa.<br>• Ikuspegi ez indibidualista batetik eraikitzea.<br>• Aldez aurretik dagoena ez asimilatzea. |

| Ekimenaren izena | Unibertsitate kritiko eta eraldatzaile baten aldeko behatokia (sortzeko prozesuan) |
|---|---|
| **Bultzatzaileak** | Gipuzkoako GGKE koordinakundeko Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza Taldea |
| **Kontaktua** | gipuzkoa@ongdeuskadi.org |
| **Laburpena** | Esperientzia hau GGKEen artean, gizarte eraldaketarako hezkuntzaren inguruan sinergiak metatu eta koordinatu beharragatik sortu zen Gipuzkoan. Lehenengo batzarretan identifikatu zenez, erakunde askorentzat UPV/EHU ekintzarako eremu estrategikoa zen eta gainera, aldaketarako eragile interesgarritzat jotzen zuten. Hortik abiatuta eta jarduteko dokumentu marko batean oinarri hartuta, hiru topaketa egin ziren "Unibertsitatea eta Gizarte Mugimenduak: Unibertsitate kritiko eta konprometituago bateruntz" izenpean.<br>Espazio horietan eragile desberdinen artean lehenengo hurbilketa bat eman zen. Eragile horiek bat datoz honekin: Unibertsitateak gure gizarteko pentsamendu kritikoa sostengatu behar du. Era berean, Unibertsitatean eta Unibertsitatetik kanpo goi mailako hezkuntzak giza eta gizarte mailan gabeziak dituela usten duten hainbat pertsona eta kolektibo dagoela egiaztatu zen. Azkenik, UPV/EHUn gizarte eraldaketarako hezkuntzaren ikuspegitik lan egin nahi duten eragileekin sinergiak eta aliantzak bilatzen jarraitu behar dela identifikatu zen. Zentzu horretan, "Unibertsitate kritiko eta eraldatzaile baten aldeko behatokia" sortzeko asmoa dute. Horren interes nagusia da instituzio horrek gizartearen benetako problematikei erantzuteko eginkizuna betetzea. |
| **Helburuak** | Helburu orokorra:<br>• Unibertsitate komunitatea kalitatezko garapen politika eraginkor batekin konprometitzea eta horretan parte hartzea, generoko ekitatea duten elkartasunarekin, gizarte justiziarekin eta giza eskubideekin erlazionatutako gaitasunak, baloreak eta jarrerak ezagutuz eta garatuz.<br>Helburu espezifikoak:<br>• Unibertsitatean gizarte eraldaketarako hezkuntzaren ikuspegitik lan egin nahi duten Gipuzkoako gizarte erakundeak identifikatzea.<br>• Eragile desberdinen (unibertsitatean eta unibertsitatetik kanpo) arteko koordinazio eta ekintza estrategia bat diseinatzea.<br>• UPV/EHU nola antolatzen den eta bere funtzionamendu eta botere dinamikak nolakoak diren aztertzea eta ulertzea.<br>• Erabakitzeko ahalmena duten unibertsitate organoetan politikoki eragitea ikuspegi sozial eta kritiko horretatik aldaketak egiteko. |
| **Interes gakoak Hezkuntza kritikotik** | • Izaera desberdina baina antzeko interesak dituzten eta gizarte aldaketarako hezkuntzaren ikuspegiarekin bat datozen eragileen arteko topaketa (unibertsitatearen, garapenaren, elkartasunaren eta abarren eremukoak);<br>• Helburuak adosteko gaitasuna;<br>• UPV/EHU instituzioa hobeto ulertzea;<br>• Hezkuntza komunitateak Unibertsitatearen eginkizun sozialaren narriadura eta sistema aldatzeko premia aitortzea. Eskakizun hori argiagoa da krisiaren eraginez egindako murrizketen ondorioz;<br>• Eragileak eta praktika onak hobeto ezagutu beharraz jabetzea; ekimen bakan batzuk identifikatu dira, autogestionatuak, babes instituzional gutxi baina eraldatzeko gaitasun handia dutenak;<br>• Unibertsitateko erabakiak hartzen diren esparruetan politikoki eragiteko lanak egin beharraz konturatzea;<br>• Etorkizunean Unibertsitate Behatokiak denboran tresna egonkorra izateko eta eragile desberdinen parte-hartzea lortzeko izan dezakeen ahalmena. |

## 2. Elkarrizketen azterketa

Euskal Herriko Unibertsitateko eta EAEko beste unibertsitate eta gizarte kolektibo batzuetako eragile desberdinei elkarrizketa sakonak egin genizkion (Ikus elkarrizketen gidoia eta elkarrizketatutako egituren eta kolektiboen zerrenda 8. eranskinean). Horretarako, lagin txiki baina adierazgarri bat aukeratu genuen, esparru desberdin hauen ikuspegiak bilduko zituen ikuspegi globala eskaini ahal izateko:

- UPV/EHUn erantzukizuneko karguak izan dituzten pertsonak
- Garapenerako Hezkuntza sustatzen duten zerbitzuetan lan egiten duten pertsonak
- Ikasleen kolektiboko kideak diren pertsonak
- Gizarte kolektiboetako kideak diren pertsonak

### 2.1. Globalizazio neoliberalak Unibertsitate publikoan duen inpaktua eta Hezkuntza Emantzipatzaile baterantz ibiltzeko aukerak

Elkarrizketatutako pertsonen artean gehien errepikatzen den diskurtsoak globalizazio neoliberalak unibertsitatean dituen inpaktuak azpimarratzen ditu. Horiek gizarte erantzukizunetik eta konpromisotik urruntzen dute unibertsitatea. Orokorrean, joera pribatizatzaile bat hautematen da eta, unibertsitate hezitzailearen logiken ordez, merkatuarekiko eta enpresarekiko harreman estua ikusten da:

> “Unibertsitatea pribatizatzen ari da, interes pribatuetara hurbiltzen ari da, ez publikoetara. Hala, alde batean geratzen dira kultura, irakastea, herritarrak prestatzea... Hezkuntza lan esparrura bideratzen da eta ez zentzu kritikoa duten herritar arduratsuak izan gaitezen” (6. elkarrizketa).

> “Neoliberalismoak Unibertsitatea lan merkatura begiratzera bultzatzen du, merkatu kapitalistara, ekoizpenaren eta kontsumoaren merkatura eta ez gizartea eraldatzera” (5. elkarrizketa).

Globalizazio neoliberalak ondorioak ditu hezkuntzaren eta bere antolaketa sistemaren funtsezko alderdietan, esaterako, ezagutzan, egituran eta botere harremanetan; eta funtzionamendu dinamiketan:

> “Ezagutzaren balioa aldatu da. Orain zenbait irakasgairen produktibismoan oinarritzen da. Ezagutza merkatuaren zerbitzura jartzen duen logikak joera hori justifikatzen du” (2. elkarrizketa).

> “Unibertsitatea ez da batere horizontala, nahiko hierarkizatuta dago, alde handia dago zuzendaritzaren, irakasleen eta ikasleen artean. Ikasleok garrantzitsuak garela sinestarazten digute, baina ez dago, ordea, guk gauzak proposatzeko espaziorik, Zuzendaritzatik mugatzen gaituzte” (4. elkarrizketa).

> “Unibertsitatearen mikromunduak burbuilako dinamikak erakusten ditu, beste eragileekiko harreman gutxikoak (gure artekoak irakurtzen eta aipatzen ditugu, horrek kapsulatzen gaitu). Ikuspegi erreproduzitzailea da, bikaintasunaren logikan oinarritua” (2. elkarrizketa).

Horrek guztiak, noski, eragina du ikasleengan eta irakasleengan. Aztarna neoliberalak beren pentsamenduetan, pertzepzioetan eta jarreretan eragiten du. Kolektibo horiek bada, kolonizazio prozesuak pairatzen dituzte eta horiek lan egonkortasuna zoriontasun eredu bilakatzen dute eta lan egonkortasuna munduan kokatzeko modurik onena dela pentsarazten dute:

> "Ikasleengan ere hautematen da. Gogorarazi behar diegu zientziak ikuspegi politiko bat duela beti, ez dela neutrala. Horrek harritzen ditu, guztiontzat ona den hezkuntza neutrala lor daitekeela uste dute, lanpostu bat emango dien titulua nahi dute. Kredentzialismoan mugitzen dira. (...) Irakasleon subjektibitateetan ere eragina du. Presio neoliberala onartzen ari gara, akreditazioen bitartez, lan egonkortasuna bilatuz eta, gure nahiei dagokienez, ospea, seiurtekoen "puntutxua", indexatutako aldizkari internazionaletan argitaratzeko eta nazioarteko kongresuen jolasean sartzen zara..." (5. elkarrizketa).

Elkarrizketatutako pertsona gehienen ustez, gaur egun, Unibertsitateak ez du hezkuntza eragile baten rola betetzen eta ez ditu gizartea eraldatzeko prozesuak sustatzen; alderantziz, bere balore eta praktikek nagusi den sistema sozioekonomikoa erreproduzitzen dutela ematen du:

> "Gaur, Unibertsitateak zientzia klasikoa eta hegemonikoa transmititzen du eta horretarako kanal bat erabiltzen du, eskola magistralak, alegia. (...) Horren ordez, gure gizarteak dituen arazoak landu beharko lituzke, adibidez, Gipuzkoako erraustegiari, Abiadura Handiko Trenari eta abarri buruz hitz egin lezake. Unibertsitateak erantzun bat eman lezake, baina ez da bertako kontuetan inplikatzen" (6. elkarrizketa).

> "Unibertsitatea ez da gizartea aldatzeko instituzio bat, ez du diskurtso kritikoa bere eremu naturaletan barneratzen" (2. elkarrizketa).

> "Unibertsitatearen rola gizarte eraldaketa barik, gizarte erreprodukzioarena da. Horren adibidea gisa, ikus dezakegu Unibertsitate honetan akademiko arrakastatsua izatea zer den... lehenengo, ikasle gehiago dago, baliabide gutxiago, lanordu gehiago, presio handiagoa eta erosteko ahalmen txikiagoa; eta sistema horretan arrakasta izateko, ibilbide profesionalean aurrera egiteko, oso lehiakorra den jolas batera jolastu behar da (gizartea eraldatzeko behar diren balore horien kontrakoak direnak, hain zuzen), zure ikerketa taldean zentratu eta ikerketa modan dagoen edo merkatuak ordaintzen duen horretara bideratuz (...) Lehia, elitismoa, euskal gizartearen benetako interesetara bideratzen ez den ikerketa; izan ere, euskal gizarteak eraldaketa behar du. Jolas perbertso horretan energia, denbora eta dirua gastatzen da gizartea erreproduzitzeko eta ez gizartea eraldatzeko" (5. elkarrizketa).

> "Elkarrizketaren ordez, Unibertsitateak indar polizialak erabiltzen ditu. Herri Unibertsitatean hori gertatu zitzaigun. Barregarria da baina UPV/EHUk ez digu hezkuntza kritikorako espazio horiek sortzen uzten, hark hezkuntza eragile gisa eskaintzen ez dizkigun arren. (...) Publikoa den heinean Unibertsitateak horrelako proiektuak sustatu beharko lituzke" (4. elkarrizketa).

Zenbaiten ustez, Unibertsitateak ez du gizartean bete behar duen rol bereizgarriaren inguruan hausnartu, horren ondorioz, batzuetan, beste eragile batzuen praktiken menpe dago:

> "Unibertsitateak ez du berezko irakurketa bat egin lankidetza edo eraldaketa eragile gisa izan dezakeen rolaren inguran, mundua ikusteko moduaren inguruan. Nolabaiteko paradoxa dago; alde batetik, Unibertsitatea lankidetzaren trenera igotzen da eta horrela hazten da eta azkarra da, baina beste aldetik, ez du bere identitatetik egiten, eta horrela ezin du bere potentzial osoa garatu" (2. elkarrizketa).

Hala ere, Unibertsitateak hartzen duen izaera eta posizioa gorabehera, krisi testuinguru honetan ere aldaketarako aukerak agertzen dira. Horiek, hain zuzen, Unibertsitateak bere misioa berrikustea eskatzen dute:

> "Unibertsitatearen gaur egungo testuinguruan, nagusi den garapen eredua zalantzan jartzen eta beste paradigma batzuen araberako ezagutza sustatzen duten espazio gutxi dago. Horrek ez du esan nahi Unibertsitate barruan ahots kritikorik ez dagoenik edo diziplina desberdinetako ikuspegi berriak txertatzea sustatzen duen ekimenik ez dagoenik (...) krisi globala eta erantzunen premia duen momentu honetan, erronka berriek Unibertsitatea bere misioa eta gizartearekin ehuntzen dituen harremanak berrikustera bultzatzen dute" (7. elkarrizketa).

> "Gizartean erreferente bat den heinean, Unibertsitateak gidaritza rol bat izan beharko luke gizarte eta erreibindikazio gaietan. Irizpide akademikoa erabiliz, kritika egin beharko luke. Jarrera bat hartu beharko luke, baina ezagutza akademikoan oinarrituta. Unibertsitatea gizarte ekitatiboagoak eta justuagoak lortzeko helburua duten eraldaketa prozesuen gidaria izan beharko litzateke, baina beti Akademiatik argudiatuz. Hori da, hain zuzen, Unibertsitatea eta gainontzeko eragile sozialak bereizten dituena. Akademian hobeto argudiatzeko ardura dugu" (3. elkarrizketa).

Unibertsitateak gizarte eraldaketarako eragile gisa duen rol garrantzitsua aintzat hartzean, garapenerako hezkuntza potentzial hori sendotzeko funtsezko estrategia bat dela hautematen da. Unibertsitate desberdinetako lankidetza bulegoak prozesuaren ardatz izan daitezke, orain arte izan dutena baino politikoagoa den profil batetik:

> "Garapenerako Hezkuntza Unibertsitateari eskatzen zaion paper hori indartzeko hurbilketa on bat izan daiteke" (7. elkarrizketa).

> "GKEetan oinarritutako ikuspegi bat dago [lankidetza] bulegoetan, horrek beren paper kritikoa murrizten du. Buelgoek aldaketa instituzionala sortu eta hezkuntza instituzio bilaka zitezkeen (...) Garapenerako Lankidetza Bulegoek dinamizazio rol garrantzitsua izan dezakete ezagutzaren eta curriculumaren eztabaidan sartuz" (2. elkarrizketa).

## 2.2. Goi mailako Hezkuntzaren Europar Esparruaren ezarpena, Unibertsitateak gizartea eraldatzeko prozesuetan duen rolaren inguruan eztabaidatzeko aitzakia

Bolonia Plana izenez ezagutzen dugun Goi mailako Hezkuntzaren Europar Esparrua (GHEE) azken urteotan unibertsitate sisteman egindako erreformarik handienetako bat da. Testuinguru horretan, elkarrizketatutako pertsonek muga desberdinak identifikatzen dituzte, baita aukera eta indar desberdinak ere. Aipatutako mugekin hasiko gara; horietako batzuk makro izaera dute eta beste batzuk mikro izaera, alderdi espezifiko edo puntualei baitagozkie. Lehenengoei -makro mugei- dagokienez, gehien aipatzen diren horietako bat da hezkuntza esparruaren finantzamendua publikoa. Izan ere, hori da, azken batean, Unibertsitatearen orientazioa erabakitzen duena, gizarte konpromisoari lotutako helburuetara ala enpresen eta merkatuaren interesetara:

> "Estatuko eta autonomietako gobernuen unibertsitatez gaindiko politikak helburua pribatizatzailea du eta unibertsitate eremuan eragiten du. Horrek hezkuntza sistemaren finantzamenduarekin du zerikusia. (...) Makro alderdi horrek ikasleen eta irakasleen ibilbidea

> markatzen du. (...) Lan ildo espezifikoak sustatzeko "programa-kontratuak" daude eta eztabaida gogorrak ematen dira Unibertsitatearen interesen eta gobernuaren interesen artean. Programa-kontratuak unibertsitate publikoen gaur egungo finantzamendu eredua dira eta horiek markatzen dituzten helburuei moldatzeko beharra inposatzen dute. Hortaz, finantzamendua lortzeko horren [gobernuaren] interesen menpe jartzea beharrezko bihurtzen da" (3. elkarrizketa).

Elkarrizketatutako batek, GHEE aukeratzat hartzen duen arren, finantzamendua pedagogia kritikoen ikuspegiak txertatzeko zailtasun bat dela identifikatzen du:

> "Graduaren diseinua onartu behar dizute (ez da berez ematen) eta dauzkagun baliabideak muga bat dira. Ez dizute proiektu perfektu bat egiteko behar duzun guztia ematen, daukazuna besterik ez dizute ematen. Finantzamenduaren menpe zaude. Momentu horretan, finantzamendua marko juridikoak baino erabakigarriagoa da" (1. elkarrizketa).

Bizi dugun krisi testuinguruaren eta finantzamendu eredu horren ondorioetako bat aurrekontuen murrizketa da. Azken batean, horrek eskubideen murrizketa dakar, bai irakasleentzat bai ikasleentzat:

> "Ez dute estatu hezkuntza publikorako dirurik jartzen eta horren ondorioz taldeak oso handiak dira. (...) Euskal Herriko Unibertsitatearen kontrako eraso neoliberala; lan egiten dugunoi baliabide gutxiago ematen digute eta exijentzia handiagoa da. Aurrekontuak murriztu dira eta horren ondorioz pentsatzeko, irakurtzeko eta aldaketak proposatzeko denbora gutxiago dugu" (5. elkarrizketa).

Elkarrizketetan Bolonia Planaren beste muga hau aipatzen dute: sailen eta diziplinen artean boterea eskuratzeko lehia. Hori baliabide urritasunaren ondorioa da. Lehia horretan, seguruenik, pentsamendu kritikoa sustatzen duten diziplinak eta irakasgaiak gutxietsiak eta baztertuak izango dira. Hortaz, ikuspegi hegemonikoa ikuspegi alternatiboei nagusitzen zaie:

> "Balore kritikoek espazio gutxi dute; izan ere, zenbait diziplina gutxiesten eta zigortzen dituzte. "Garapenari" buruzko ezagutza alor bat falta da. (...) Departamentuen eta diziplinen arteko lehia bat dago" (2. elkarrizketa).

> "Esaterako, Ekonomia ematerakoan, sistemarentzat mesedegarria den ekonomia ematen dizute, eurei interesatzen zaiena; ez dizute Ekonomiaren ikuspegi feminista azaltzen, hori zeuk bilatu behar duzu zeure kabuz" (4. elkarrizketa).

Goi mailako hezkuntza eredu horrekin ezartzen den bikaintasunaren logika makro ezaugarriak dituen oztopo gisa ere ikusten da, ez baita sozializazio kritikoko prozesu gisa ulertzen den hezkuntza baterako oso mesedegarria. Bikaintasuna ulertzeko modu horrek begirada zabalago eta integralagoak txertatzea eta esparru akademikoz kanpoko beste eragile batzuekin harremanak izatea oztopatzen du:

> "Unibertsitatearen mikromunduak burbuilako dinamikak erakusten ditu, beste eragileekiko harreman gutxikoak (gure artekoak irakurtzen eta aipatzen ditugu, horrek kapsulatzen gaitu). Ikuspegi erreproduzitzailea da, bikaintasunaren logikan oinarritua" (2. elkarrizketa).

Bereziagoak diren beste ezaugarri batzuen mugak hauek izan daitezke: alde batetik, ikasleak kritikoak edo gogoetatsuak ez diren sozializazio prozesuetan ibiltzen direla, horrek oso

konplexuak ez diren pentsamendu logikak mantentzera eramaten dituelarik; eta bestetik, gelak masifikatzeak talde lanerako eta elkarrizketarako sustagarriak ez diren partaidetza moduak sortzen dituela:

> "Ikasleek aldez aurretik izan duten hezkuntzan ez da hau lantzen: pentsatzea, hausnartzea, kritikatzea, informazioa biltzea, politizatzea, problematizatzea, gizartean parte hartzea, militatzea..." (5. elkarrizketa).

> "Gelak masifikatzeak ere ez dio partaidetzari mesede egiten" (4. elkarrizketa).

Hurrengo elkarrizketatuaren arabera lehiakortasuna GHEEren muga handienetako bat da baina, hala ere, bere ustez, UPV/EHUk zailtasun hori aukera bihurtzea lortu zuen, IKD ereduaren bitartez. Eredu hori, bere sustatzaileen hitzetan, "bertakoa, kooperatiboa, eleaniztuna eta barneratzailea da, eta bere helburu nagusia ikasleak beren ikaskuntzaren jabe izan daitezela" da:

> "Goi mailako Hezkuntzaren Europar Esparruaren sistemak Europa mailan titulatuen mugikortasuna lotu nahi du, hau da, Europa mailan titulatuek zirkulazio librea izatea mundu mailan lehiatzeko. Europak beste estatu hegemonikoekin lehiatu nahi du. Sistema horrek mundu mailako lehiakortasuna du buruan. Ni ez nator horrekin bat, konkurrentzia eta lehiakortasunarekin, baina hainbat elementu beste helburu batzuekin erabil daitezke. Guk hau esan genuen: Bolonia gure Unibertsitateak nahi duen hori lortzeko aukera da. Beste modu batera ezinezkoak izango liratekeen aldaketak egiteko aukera ematen du. Hau da gure papera: datorrena datorrela, erabil dezagun Unibertsitatea nahi dugun lekura eramateko". Beste modu batera ezinezkoak izango liratekeen gauzan egitea ahalbidetu du. Lehen ez zegoen irakaskuntza-ikasketaren inguruko hausnarketarik" (1. elkarrizketa).

Pertsona horren ustez, IKD eredua Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Esparruaren konbergentziaren indar bat izan da. Elkarrizketatuak, argi eta garbi babesten du UPV/EHUren irakaskuntza-ikasketa eredu hori, izan ere, bere ustez horrek ikuspegi kritiko bat du. Era berean, Unibertsitateak ezagutza tekniko eta espezializatua transmititu behar duela adierazten du:

> "Hezkuntza kritikoa ez bada ere, IKD ereduak orientazio kritiko bat du. Baina orientazio tekniko bat ere badu; izan ere, Unibertsitatean gaude eta arazo hiperespezifiko eta hiperteknikoak lantzen dituzten zientzia hiperespezializatuak ditugu. Hori ez da teknikoa bakarrik; hezkuntza harremana teknikoa da, tresnak eta teknikak behar ditu funtzionatzeko, baina intentzio pedagogiko bat dago eremu teknikoaz harago. Ikasketa kooperatiboaz ari garenean, teknikaz harago goaz, harreman horizontalez ari gara, hierarkiak hausteaz, besteak aintzat hartzeaz, konpromisoaz. Erabaki bat ala bestea hartzea ez da gauza bera" (1. elkarrizketa).

Izan ere, Boloniako prozesuaz geroztik, ez dago graduetako Irakaskuntza plana egiteko mugarik eta horrek pentsamendu kritikoa sartzeko aukera ona eskaintzen du. Elkarrizketatuaren ustez, *status quo*-a erreproduzitzen zuen aurreko lege markoarekin hori ez zen posible:

> "2010z geroztik, graduak diseinatzeko direktibak mesedegarriagoak dira gauza hauentzat; izan ere, lehen direktiba eza zegoen eta horren ondorioz status quoa inolako arazorik gabe erreproduzitzen zen (...) Bolonia aurreko graduek dekretu bidez diseinatzen zituzten eta orain, ordea, hau esaten dute: "eman ezazue nahi duzuena" eta diseinua ebaluatzen dizute. Unibertsitate bakoitzak nahi duena diseina dezake" (1. elkarrizketa).

Era berean, goi mailako hezkuntzaren marko berri horretan eskumenak hartzeak gure proposamen alternatibo hau txertatzeko aukerak handitzen ditu. Funtsean, ikuspegi kritikoa garatzen duten konpetentziak dira nagusi den eredua zalantzan jartzen dutenak, Hezkuntza Emantzipatzailerantz ibiliz:

> "Boloniak ikuspegi aldaketa ekarri du unibertsitate hezkuntzaren helburuetan. Hala, ezagutzak sortu behar dituzten gaitasunen arabera egituratzen dira. Izan ere, formari dagokionez, errealitatearen begirada kritikoa sustatzen duten gaitasunak, paradigma aldatzeko oinarrizkoak direnak, eredu berri horren muinean daude" (7. elkarrizketa).

Hezkuntza Emantzipatzailearen ikuspegia txertatzeko beste indar bat gaur egungo krisi testuinguruari eta gizarte eredua zalantzan jartzeari dagokie. Horrek herritarren berraktibazioa eta irakasle eta ikasle gehienen jarrera kritikoa ekarri du:

> "Gizartea bizi duen momentu hau mesedegarria izan daiteke Unibertsitatearentzat. Arrakala eta maila anitzeko eta estrategia anitzeko espazio guztiak baliatu behar ditugu" (2. elkarrizketa).

> "Gizarte eta giza zientzien eta zientzia puruen fakultateetako irakasle asko kritikoak dira, hori onartu behar dugu. Neurri batean, ikasleak ere; gauzak aldatzeko gogoak dituzte, metodologia eta ikuspegi berriak saiatzeko gogoak" (5. elkarrizketa).

> "Dagoeneko hori egiten ari den masa kritikoa dago irakasleen artean" (1. elkarrizketa).

Akademiak, azken urteotan, diziplina artekotasunaren aldeko interesa erakutsi du. Izan ere, hori diziplina desberdinetatik ezagutza lantzeko esperientzia interesgarria izan daiteke eta Hezkuntza Emantzipatzailearen aldeko potentzialtasun bat da. Hala ere, egia esan, hasi berri da, zenbait pertsonen borondatearen menpe dago eta ez dator bat unibertsitatearen orientazio nagusiarekin:

> "Diziplina artekotasuna nolabait aintzat hartzea" (2. elkarrizketa).

> "Metodologia kualitatiboak sartzen ari dira, baina hori irakasleen eskuetan dago, pertsonen eskuetan. Oraindik ere diziplina bereizketan oinarritutako egitura mantentzen da, baloratzeko orduan... Diskurtsoari dagokionez, diziplina anistazunaz eta transdiziplinakotasunaz hitz egiten da, ikuspegi holistikoaz, baina egia esan, ez da horrelakorik... Adibidez, ikerketarako deialdi handietan hori ez da merituen artean sartzen" (3. elkarrizketa).

Elkarrizketatutako pertsona gehienen arabera, Goi mailako Hezkuntzaren Europar Esparruaren ildoak desegokiak dira sustatzen ari garen proposamenerako. Hala ere, jarrera baikorra dute eta, zenbaiten ustez, curriculum ofizialaren marko estuarekin ere ekimen interesgarriak gara daitezke, esaterako, gizarte gaietan eta gizarte eraldaketaren aldeko Gradu Amaierako Lanak eta praktikak:

> "Enpresaren aurrean, instituzio horretatik, hau da, Unibertsitatetik egin daitezkeen esperientzia anitzak. Curriculum ofizialaren barruan ere gauzak egin daitezke, bururatzen zait, adibidez, ekologia, gizarte desberdintasunak, ikasketa askotan egin daitezke, ikasleen elkarteak daude feminismoaren, gizarte aldaketaren eta abarren inguruan..." (5. elkarrizketa).

> "Baina zirrikituak daude horietan lan egin ahal izateko, adibidez, Gradu Amaierako Lanak, gizarte gaietan edo gizarte eraldaketan lan egiteko praktikak" (6. elkarrizketa).

## 2.3. Hurbilketa desberdinetatik Unibertsitatean eragiteko estrategiak

Unibertsitatearen egituraren konplexutasuna kontuan hartuta, Hezkuntza Emantzipatzailearen proposamena Unibertsitatean txertatzeko estrategiak zeintzuk izan daitezkeen identifikatze aldera, elkarrizketatutako batek botere azterketaren inguruko mapa bat proposatzen du. Horren bitartez, erabakiak non hartzen diten eta aliatuak nortzuk izan daitezkeen identifikatu nahi du:

> “Botere azterketa bat egin. Posibilitateak eta aukerak baloratu, gakoak eta gatazkak, erabakiak nortzuk hartzen dituzten. Oso interesgarria da sarea sor dezaketen aliatuen mapatze lana egitea: sailak, ikerketa taldeak, instituzioak... Unibertsitatean eta Unibertsitatetik kanpo. Egiturazko arazoak ez dira mikro logiken bitartez konpontzen, hortaz, interesgarria da boterea aztertzea” (2. elkarrizketa).

Beste baten ustez, UPV/EHUk badu dagoeneko gizarte konpromisoari bideratutako politika instituzionala. Hortaz, estrategiaren helburuak egitura aldatzea izan beharko du, beti ikuspegiak bateratzen dituen logika batetik:

> “UPV/EHUko Plan estrategikoak gizarte konpromisoari buruzko ardatz oso bat du. Arazo kontzeptual bat dago, birsortze biltzaile bat behar dugu, lurraldeak zatitzen ez dituena. Antolaketa arazo bat da. Biltzeko helburua ez badago, erakundeak mikroegiturak sortzen ditu gai bakoitzaren inguruan eta berrelikatzen da beste egiturak kontuan hartu gabe. (...) Pausoz pauso egiten da, zeharka lan egiten da. (...) Markoak badaude, egiturak aldatu behar ditugu” (1. elkarrizketa).

Tesi horren kontra, beste batzuen ustez, gizarte errealitateekin konprometitutako unibertsitate bat lortzeko estrategia ezin da instituzio horretako instantzia edo egituretatik sortu. Aitzitik, formalizazio maila txikiagoa baina eraldatzeko ahalmen handiagoa duten espazioetatik etorri behar du:

> “Ezin da goitik beherako estrategia bat izan, beherik gorakoa izan behar du, argi eta garbi. Ez da errektoretzatik etorriko, ezta bulegoetatik ere” (5. elkarrizketa).

Zentzu horretan, GGKEak “behetiko” espazio hori izan daitezke, horietatik politikan eragiteko estrategia diseina daiteke, Unibertsitateak bere hezkuntza eginkizuna eta gizartearekiko erantzukizuna bete dezan:

> “Unibertsitateari exijitu ahal zaio eta exijitu behar zaio. Izan ere, misio zehatza du, gizartearekiko erantzukizuna du, bere DNAn dago. GGKEok presio egin behar dugu, akuilatu...” (6. elkarrizketa).

Hala ere, zenbaiten ustez, Unibertsitatearen barruan ere aldaketa sor daiteke. Garapenerako Lankidetza Bulegoa espazio interesgarria izan daiteke, horretatik eragiteko. Horretarako, ezinbestekoa da bere orientazioa orain arte baino kritikoagoa izatea:

> “Unibertsitateetako garapenerako lankidetza bulegoak egitura txikiak dira eta, beraz, ez dute eragiteko ahalmenik izan. (...) GKEetan oinarritutako ikuspegi bat dago bulegoetan, horrek beren paper kritikoa murrizten du. Horiek aldaketa instituzionala sortu eta hezkuntza instituzio bilaka zitezkeen (...) Garapenerako Lankidetza Bulegoek dinamizazio rol garrantzitsua izan dezakete ezagutzaren eta curriculumaren eztabaidan sartuz” (2. elkarrizketa).

Horiez gain, Unibertsitatean landu daitekeen beste bide bat irakasleekin lan egitea da. Horiek beren kontzientziazio eta prestakuntzaren bitartez parte hartuko lukete, ikasleengan efektu biderkatzaile bat sortuz:

> “Irakasleak UIPREren eta ez edozein espazioren bitartez prestatzea. Garapenaren arloko practicuma ere irakasleak trebatzeko bide bat da. Efektu biderkatzaile bat ematen da irakasleekin lan egitean, izan ere, horrela ikasleen prestakuntzan eragiten duzu” (3. elkarrizketa).

Aukera horiek desegokiak direla adierazi gabe, aldi berean, ahaleginak metatzeko, unibertsitate komunitateko kolektibo desberdinen borrokak eta aldarrikapenak lotzeko ideia sortzen da:

> “Interesgarri izango litzateke borroken estamentu artekotasuna: ikasleenak, irakasleenak eta AZL langileenak” (5. elkarrizketa).

Ildo horretatik doa hurrengo elkarrizketatua. Izan ere, bere ustez, begirada zabalduz, kolektibo eta instituzio (unibertsitatekoak eta unibertsitatez kanpokoak) desberdinen arteko sare lana eta eztabaidarako espazioak sortzea funtsezkoa da hezkuntza kritikoaren proposamena unibertsitate curriculumean txertatzeko:

> “Sare lanean eta eztabaidako eta eraikuntza kolektiboko espazioak sortzean oinarritutako estrategia sendoa. Espazio horiek horrelako prozesu batean zerikusia duten eragile guzti hauek mobilizatu beharko ditu: zentroak eta fakultateak, errektoreordetzak, irakasleak, ikasleak, unibertsitate lankidetza bulegoak, gizarte erakundeak eta administrazio publikoa. Lan espazio horiek elkar topatzea eta elkarrekin partekatzea eta eraikitzea ahalbidetu dute. Horien helburu nagusia, bada, pixkanaka Unibertsitate publikoetan GH curriculumean txertatzen laguntzea izan da” (7. elkarrizketa).

Amaitzeko, lantzen ari garen gai honetan funtsezkoa izan daitekeen estrategia bat dugu. Horrek kontzientziazio kritikoa lortzeko prozesuak sustatu nahi ditu, ikasleengan zein gizartean. Horren helburu zuzena da ikasleek berek, ezagutzaz jabetuz, orientazio emantzipatzailea eskatzea Unibertsitatean:

> “Eskaera sortzea. Hezkuntza kritikoa gizartearen eskakizun bat izan dadin lortzea” (2. elkarrizketa).

> “Gazteak politizatzea, herritartasun kritikoa funtsezkoa da hezkuntza kontsumitzen duen hezkuntzaren aurrean” (5. elkarrizketa).

> “Ikasleak kontzientziatzea, eurak izango baitira lan mundu horretara irtengo direnak” (4. elkarrizketa).

## 2.4. Elkarrizketaren bitartez alternatibak sortu eta beste hezkuntza eta gizarte eragile batzuekin lan egin

Iritzi desberdinak daude -batzuk kontrakoak- Unibertsitateak eta gizarte eragileek elkarrekin lan egitearen inguruan. Zenbaiten ustez, Unibertsitatea instituzio hermetikoa da eta, hortaz, gizarte eragileekin dituen harremanak eskasak dira. Beste batzuen arabera, ordea, gizarte eragile horiekin begi bistako harremana dago. Tarteko iritziak ere badaude. Horien arabera, helburu hori lortzeko pausoak egiten dira, baina modu irregular batean:

> “Harreman gutxi izan du beste eragile batzuekin. Unibertsitateak bere esparru hauen monopolioa du: irakaskuntza eta ikerketa. Antza, Unibertsitatean egiten dena besterik ez da onargarria, ez da beste sektore batzuetara zabaldu” (2. elkarrizketa)

> “Eragile horiek sartuta daude dagoeneko, beste kontu bat da zein neurritan dauden sartuta (...) Unibertsitateak irabazi asmorik gabeko hainbat erakunderekin eta elkarterekin lan egiten du, publikoak eta enpresak. (...) Etengabeko harremana dago, beste gauza bat da harreman hori desorekatuta egotea; izan ere, ingeniaritzakoek ez dituzte gizarte gaiak lantzen eta gizarte zientzietakoak ez doaz enpresara” (1. elkarrizketa).

> “Beste eragile batzuk sartzeko lan egiten ari da. (...) Modu light batean sartzen ari dira Boluntariotzaren Azokaren bitartez, Bizilurrek elikadura burujabetza bultzatzeko jardueren bitartez parte hartzen du, mugimendu feminista desberdinekin lankidetza practicumak egiten ditugu... Eragile horiek irakasleak prestatzen laguntzen digute” (3. elkarrizketa).

Elkarrizketatutako pertsona guztiek ondo deritzote lankidetza horri, interesgarriak izan daitezkeen forma desberdinak azpimarratuz. Hala, honako ezaugarri hauek dituen ikerketa egiteko gaitasuna aipatzen dute: gizartea eraldatzera bideratutako ezagutza sortzen duena edo, sistematizazioa bezalako proposamenen bitartez, gizarte mugimenduen prozesuak laguntzen dituena:

> “Unibertsitatearen eta gizarte eragileen arteko muga porotsuagoa izan beharko litzateke, ezagutzak eztabaidatuz, ikerketen emaitzak instituzioetara eta politikan eragiteko esparruetara eramanez. Ezagutzak, bada, errealitatea eraldatu behar du. Ezagutza, kritikoa bada, kontraboterea da. Unibertsitate-gizarte zibil harremana oso garrantzitsua da” (2. elkarrizketa).

> “Ikerketan tarte bat egon liteke, adibidez, gizarte mugimenduak laguntzeko. Hori da Joxemi Zumalabe Fundazioak egiten duena. Sistematizatu, lagundu...” (5. elkarrizketa).

Batzuetan, gizarte eragileek unibertsitate irakaskuntzan laguntzeko aukera hori ez da posible izaten GGKEen beren gabeziak direla eta. Horiek formakuntza prozesu sakonagoak eta luzeagoak egitea oztopatzen dute:

> “Beste alde batetik, GGKEk eta gizarte mugimenduek hezkuntza formalean lekua izatea eskatu ohi duten arren, askotan, ez dute giza baliabide nahikorik sortzen diren -ordaindu gabeko- lankidetza proposamen horiei erantzuteko. Salbuespena izaten da formakuntza horiek proiektu zehatz baten ildo estrategiko batekin bat datozenean. Hori horrela denean ere, erakundeen lan dinamikek diru-laguntzen denboren menpe egon daitezke eta horrek epe ertaineko lan ildoak garatzea oztopatzen du, unibertsitate egituraren erritmoak motelagoak izaten baitira” (7. elkarrizketa).

Formakuntza eremu horretan, UPV/EHUren “Praktiges” ekimena aipatzen da, kanpoko enpresa eta erakundeetan praktikak egiteko helburua duena:

> “Bizitza akademikoan interesgarriak diren elementuak eman behar dituzte, bai ezagutzak egiaztatzen dutelako bai ikasleak trebatzen dituztelako. (...) Eragile horiek ikasleak trebatzen laguntzen digute. Eremu horretan Praktiges izeneko esperientzia bat dago” (3. elkarrizketa).

Hala ere, zenbaiten arabera, enpresentzat gizarte eraldaketaren aldeko eragileentzat baino errazagoa da lankidetza hori:

> "Unibertsitateak ez du hori errazten, enpresentzat gizarte eraldaketaren aldeko eragileentzat baino errazagoa da lankidetza hori (...) Gehienbat, enpresei zuzenduta dago sistematizazioa eta antolaketa" (6. elkarrizketa).

> "Unibertsitate irakaskuntzak gabeziak ditu bere curriculumaren bitartez pentsamendu kritikoa sortzeari eta hiritartasun global bat eraikitzeari dagokionez. Hala, ikasleen praktikak enpresa sektorera bideratzeko joera ere izan ohi du. Horrela, bada, GKEei eta beste gizarte eragile batzuei parte hartzeko aukera gutxi eman die" (7. elkarrizketa).

Hala, ikerketa eta formakuntzaz gain, ideia hau ere ekarpen interesgarri bat izan da: Unibertsitateak jendarteak eta testuinguruak mahaigaineratzen dituzten arazoei erantzun behar die. Hala, kalean sortzen diten eztabaiden, gizarte borroken eta esperientzien iragazkortasuna bide iradokitzaile bat da eta asmo argi bat du, gizartea eraldatzea, alegia:

> "Unibertsitatearen eta hirugarren sektoreko erakundeen, gizarte mugimenduen eta abarren arteko harremana funtsezkoa da gizartearen errealitatearekin konprometitutako hezkuntza bat garatzeko, jendarteak mahaigaineratzen dituen erronkei erantzuteko gai den Unibertsitatea bermatzeko eta erakundeak berak eta jendarte zibila indartzeko" (7. elkarrizketa).

> "Unibertsitatean arrakalak egiten saiatzea, borroka sozialen eta kaleko eztabaiden sarbidea izateko eta kalera irten eta eraldaketa esperientzia horiekin kontaktua izateko. (...) Unibertsitatearen eta kanpoan dagoenaren artean zubiak eraikitzea. Intelektuala bolizko dorrean kokatzeko joera izan da, lokatzarekin zikindu gabe. Funtsezkoa da eztabaida, borroka eta proiektu desberdinak integratzea" (5. elkarrizketa).

Hala ere, ez da erraza Unibertsitatearen eta gizarte eragileen artean harremanak sortzea. Izan ere, erresistentzia desberdinak hautematen dira. Horietako batzuk unibertsitateko aparatuan eta bere egitura konplexuan aurkitzen ditugu eta instituzio horretako irakasleengan eta aliantza sortu nahi duten gizarte eragileengan dute eragina. GGKE batean lan egiten duen elkarrizketatutako baten ustez, arazoa Unibertsitatean erabakiak hartzeko espazioak identifikatzeko zailtasuna da. Horrek, zentzu estrategiko batean, komunikazioa eta koordinazioa garatzea oztopatzen du:

> "Unibertsitatean erabakiak hartzeko eta jendea informatzeko bitarteko espazio bat dago, eta ez du funtzionatzen. GGKEek Unibertsitatearekin lan egin nahi dute, baina nola hurbildu Unibertsitatera? Hor dago koska, hain zuzen ere, nork eta nola kudeatzen duen hori. Irakasleek badakite Gradu Amaierako Lanak GGKE edo gizarte mugimenduekin egiteko aukera dagoela, hori ez dago sistematizatuta eta ez da ondo komunikatzen. (...) Campus, ardura eta protokolo nahaspila dago eta, azkenean, ez dakizu erabakiak non hartzen diren. Horrek komunikazioa eta koordinazioa oztopatzen du. Egitura ez da ulerterraza, garapenerako lankidetza kontseilu bat dago baina inork ez daki noiz biltzen diren, aktak non dauden... ez dago batere argi" (6. elkarrizketa).

Era berean, Unibertsitatea gizarte errealitatetik urrun dagoenaren pertzepzio hori lankidetzarako oztopo bat da:

> "Jendeak ez du Unibertsitatera jotzen hori goretsita dagoelako, halo moduko bat dagoelako" (6. elkarrizketa).

> "Unibertsitatea kanpotik, oso handia ematen du, oso kontserbadorea, oso burokratizatua, oso instituzionalizatua" (5. elkarrizketa).

Elkarrizketatutako batek, Unibertsitatearen eta gizarte eragileen arteko lankidetza aurrera ateratzeko, kontuan hartu beharreko zenbait elementu aipatzen ditu. Horiek, eragileen arteko ezagutza faltagatik, arrakasta izan ez zuen ekimen batetik ikasiak dira:

> "Hala ere, nire ustez, oraindik ez dugu elkar ezagutzen, gutxi ezagutzen dugu elkar. Unibertsitateak, bada, ez ditu kanpoko eragileak ezagutzen eta alderantziz. (...) Topaketa horiek porrot egin zuten; izan ere, GGKEek biltzea eskatzen zuten estres akademikoko momentuetan eta Unibertsitateak deitzen zien horiek deialdietara aurkezteko proiektuak prestatzen eta formulatzen ari ziren momentuetan. Harremanerako mekanismoak ezarri behar dira. Kontuz ibili behar dugu denborekin eta prozesuekin. Etengabeko lankidetza, lankidetza iraunkorrago bat interesgarria izango litzateke" (3. elkarrizketa).



# III. Atala

## Ikerketaren azken gogoetak

# 1. Ondorioak

Hezkuntza kritikoak Euskal Herriko Unibertsitatean 2011-2015 urteetan izan duen egoera deskribatu eta aztertu ondoren, jarraian, alderdi garrantzitsuenak aurkezten ditugu, ikerketa honek aztertutako hiru maila hauen arabera antolatuta: unibertsitate politika, egitura eta ardatz estrategikoak.

## 1.1. Unibertsitate politikari buruz

UPV/EHUk kode eta plan desberdinak sinatzen, egiten eta sustatzen ditu. Horiek instituzioaren politika ofizialean sartzen ditu eta horien arabera jarduten da. Horien garapena ikusita, badirudi horietako askok Hezkuntza Emantzipatzailearen proposamenarekin bat datozen hainbat orientazio dutela. Irakurketa eta azterketa sakonagoa egiten badugu, ordea, ikuspegi horrek indarra galtzen du, desagertu arte. Hala, UPV/EHUko Plan estrategikoan (2012-2017) garapenerako lankidetzari buruzko gaiak oso modu zehaztugabean agertzen direla argi ikusten dugu. Era berean, hezkuntza ez da modu esplizituan aipatzen, aipamen honetan izan ezik: "Jasangarritasunerako, berdintasunerako eta garapenerako hezkuntza sustatzea unibertsitate curriculumean txertatuz prestakuntza- eta ikerketa-alderdietan".

Bakarrik gizarte konpromisoaren ardatzean aipatzen da garapenerako lankidetza txertatzea, honako elementu hauei lotuta: jasangarritasuna, berdintasuna, boluntariotza eta aniztasuna. Antza, Unibertsitateak erantzukizun etiko eta sozial guztia kokatzeko konpartimentu bat topatzen du horretan. Hala, gainontzeko jarduera ardatzek -prestakuntza, ikerketa, internalizazioa eta gobernantza[18]- ez dute zentzu horretan doazen neurriak garatzearekin inolako loturarik.

Unibertsitateak gizarte eztabaidarako eta hausnarketarako topaketa espazioak sortzearen alde agertzen da. Alabaina, aldi berean, merkatuaren interesei erantzuten dieten helburuak dituzten beste joera batzuk ere gainjartzen ditu.

Plan Estrategikoaren sarreran, bada, UPV/EHU Nazioarteko Bikaintasun Campus gisa aitortu zutela aipatzen da. Izan ere, 2010. urtean, Euskal Herriko Unibertsitateak "Nazioarteko Bikaintasun Campus" ziurtagiria lortu zuen, Hezkuntza Ministerioaren eskutik. Horren helburu nagusia hau da: "unibertsitatearen bikaintasuna eta nazioartekotzea artikulatu eta herrialdeari lotzea". Euskampusen web orrialdearen arabera, proiektua UPV/EHUk, Tecnalia Teknologia Korporazioa eta Donostia International Physics Center (DIPC) zentroak osatutako talde publiko-pribatuan oinarritzen da. Tecnalia "teknologiaren esparruko enpresa bat da, ezagutza BPG bihurtzen eta enpresetan negozio-aukerak sortzen dituena" eta DIPC "Materialen Fisikan oinarriko ikerketa egiten duen zentroa" da. Enpresa bi horiek bada, lankidetza estua dute Iberdrola S.A., Telefónica S.A., Confebask eta horrelako enpresekin. Hori ulergarria da 2011n onartutako lege hauek direla eta: 2011ko Ekonomia Iraunkorraren Legea[19] eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Legea[20] eta 2015eko iraileko dekretua, Unibertsitateko gobernu organoetan enpresen ordezkaritza errazten duena.

Hala, jendartean duen paperaren inguruan, UPV/EHUk ikuspegi desberdinak biltzen ditu bere diskurtsoan. Alde batetik, irakaskuntzarekin, ikerketarekin eta ikasleen prestakuntzarekin

18 Diagnostiko honek ez ditu nazioarteratze eta gobernantza ardatzak aztertzen; izan ere, horietan ez da Hezkuntzaren ikuspegia aipatzen.

19 2/2011 Legea, martxoaren 4koa, Ekonomia Iraunkorrari buruzkoa: <https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A/2011-4117>.

20 14/2011 Legea, ekainaren 1ekoa, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzkoa: <https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A/2011-9617>.

konprometitutako gizarte eragile gisa, herri, elkartasun eta justizia baloreak transmititu nahi ditu. Bestetik, enpresa munduaren beharrak eta interesak asetzeko joera du, horri bere espazioak eskainiz.

Unibertsitateak akordioak eta hitzarmenak ditu enpresarekin, hori ulergarria da. Ez, ordea, orientazio akademikoa eta ikerketa enpresaren menpe egotea; batez ere, enpresen interesak eta praktikak Unibertsitatearen eginkizunaren helburuetatik urruntzen direnean, ezta hezkuntza proiektu publikoaren konpromiso eta gizarte erantzukizun printzipioen kontrakoak direnean ere.

Unibertsitateak enpresa eremuarekin dituen harremanak egiaztatzeaz gain, kalitate eta bikaintasun kontzeptuak ere askotan aipatzen dira, lehiakortasunari, arrazionalizazioari, nazioarteratzearui eta unibertsitate rankingetan duen posizioari lotuta. Hezkuntza kritikoaren ikuspegia ez da bikaintasun irizpidetzat jotzen, Unibertsitateak bere aldeko apustua egiteko.

Jaume Martínez Bonaféren arabera, hizkuntza hori Unibertsitatean instituzio-enpresen garapena sustatzen duten mekanismo diskurtsiboen parte da. Hori, bada, nagusi den hezkuntza eredu teknokratiko eta neoliberalaren ondorio bat da: "Europako batzordeak sustatutako prozesuak "ezagutzaren ekonomia" sustatzen duen hizkera arranditsu bat erabiltzen du; proiektu "humanista" bat "jendarte kognitiboen" bilakaeran, unibertsitateen "autonomia indartzen dituena, bere programen "kalitatearen eta bikaintasunaren" aldeko apustua egiten duena, ikasleen "mugikortasuna" sustatzen duena -"Erasmus" klixe handiaren bitartez-. Horiek dira denboraz eta dokumentazio ugariaren bitartez gugan instalatu dituzten leloetariko batzuk" (2015:100).

UPV/EHUko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana (2014-2017) kultura aldatzeko gai den Hezkuntza Emantzipatzailearen proposamenera gehien hurbiltzen den dokumentua da. Politika zehatz bat garatzeko tresna besterik ez bada ere, hori ezinbestekoa da instituzioak bere unibertsitate komunitatearen barruan berdintasuna sustatzeko helburuz har ditzakeen neurriak identifikatzeko.

Hala ere, plan guzti horiek ez dute orientazio interesgarri bera. II. Inklusio Planak, adibidez, hasieran inklusioaren esanahi orokor bat ematen du baina, gero, desgaitasunen bat duten pertsonen beharrak asetzeko helburuan zentratzen da, bere esku-hartzearen irismena mugatuz.

Batzuetan, Unibertsitateak, bere dokumentu programatikoetan eta txostenetan, aniztasunaren, inklusioaren, parte-hartzearen eta abarren inguruan, itxuraz kritikoak diren elementuak sartzen ditu. Ez du lortzen, haatik, instituzioko curriculuma, gizarte arauak eta botere harremanak aldatzea.

Adierazpen horren adibide gisa Kudeaketa txostena 2014-2015[21] dugu. Horrek, inguruko gizarte eta kultura konpromisoan egindako aurrerapausoak azaltzean, funtsezko lorpentzat jotzen du Ezgaitasunak dituzten pertsonentzako arreta zerbitzuen Karta. Izan ere, hori lorpen handi bat da, baina ezin du justifikatu, ordea, benetan inklusiboa den Unibertsitatea lortzeko beharrezkoak diren beste neurri asko kontuan ez hartzea.

Azkenik, UPV/EHUk Garapenerako Lankidetza Planik ez izatea adierazgarria da. Jakin dugunez, 2012. urtean, Garapenerako Lankidetza Kontseiluak Garapenerako Lankidetza eta Hezkuntza Plana (2012-2015) egiteko prozesua dinamizatu zuen. Hala, dokumentuak hainbat zirriborro izan zituen arren, ez zen inoiz onartu.

21 Hemen eskuragarri: <www.ehu.eus/documents/1769324/3204412/PROGRAMA_GESTION_2014_15.pdf>.

## 1.2. Unibertsitatearen egiturari buruz

Lehenik, deigarria da Unibertsitateak duen antolaketa egitura konplexua. Hori osatzen dute, alde batetik, Komisioek eta Batzordeek eta beste organo batzuek eta, bestetik, Gobernu Taldea osatzen duten Errektoreordetzek. Errektoreordetza bakoitzak, aldi berean, zuzendaritza, bulego eta institutu kopuru zehaztugabe batek osatzen du. Horren ondorioz, egitura ulertzea zailago bihurtzen da.

Ikusten dugunaren arabera, garapenerako lankidetza ez da irakasgai garrantzitsua UPV/EHUrentzat; are gutxiago da Hezkuntza Emantzipatzailea. Ondorioz, horiek ez dute instituzio horretan garrantzia duen egitura sendorik lortu. Hezkuntza kritiko eta emantzipatzailearen proposamenaren ezaugarriak errazago aurkitzen dira instituzio politikan unibertsitate egituran baino.

Konpromiso etiko eta sozialari lotutako ekimena bultzatzeari dagokionez, bi kontseilu -Garapenerako Lankidetza Kontseilua eta Ikasle Kontseilua- eta batzorde bat -Berdintasunerako Batzordea- izan zitezkeen organorik dinamikoenak. Aitzitik, beren jarduera urria eta profil baxukoa da. Izan ere, Garapenerako Lankidetza Kontseiluak eta Ikasle Kontseiluak, 2013az geroztik, ez dute web orrialdean informaziorik eguneratu. Oso paradigmatikoa da Garapenerako Lankidetza Kontseiluak ezin izan duela arlo horretan plan bat sortu, hori bere eskumenetako bat den arren.

Berdintasunerako Batzordea, aldiz, aktiboagoa dirudi. Berdintasunerako Plan bitan parte hartu du, Unibertsitate Bikaintasunerako Espainiako Unibertsitateen Genero Berdintasun Unitateen Sareko kidea da eta 2014an UPV/EHUko Berdintasunerako Batzorde Intersektoriala sortu zuen. Azken hori IIL eta AZL langileekin lan egiten du berdintasunaren arloan.

UPV/EHUko Gizarte Kontseiluak instituzio horren, Eusko Legebiltzarraren, sindikatuen eta Euskal Enpresarien Konfederakuntzaren ordezkariak biltzen ditu. Deigarria da bere kideen artean gizarte mugimenduen eta/edo kolektiboen ordezkariak ez izatea; batez ere, kontuan hartuta, Plan Estrategikoko (2012-2017) Ikuskeraren arabera, Unibertsitateak garatu nahi dituela "gizonezkoen arteko berdintasuna lortzera eta desberdintasun sozial eta kulturalak murriztera bideratutako neurriak, giza eskubideentzako zuzentasun, jasangarritasun eta errespetu handiagoko klabean gizarteen aurrerapena ahalbidetuko dutenak".

